

Zu hemen zaude.

goiena



MONDRAKO FUTBOLARI BETERANOAK, MINBIZIAREN AURKA

Futbola eta elkartasuna eskutik, maiatzaren 1ean, Mojategin, Mondra, Eibar, Amorebieta eta Intxaurdi taldeetako emakume beteranoak Izan Inurri elkartearen alde ariko dira; minbiziari aurre egiteko / 9

Mondrako futbolari beteranoak eta Izan Inurri elkarte kideak Mojategin eguaztenean, maiatzaren 1ean jokatu den txapelketa iragartzeko saioan. XABIER URTZELAI

AP-1eko Lesarriko tunela bihar irekiko dute eta irailean berriro itxiko dute, beste noranzkoan / 4



Aretxabaletako Loramendi elkarteak erakusketa irekiko du datorren astean, 30 urteak ospatzeko / 14



'OSASUNA' GEHIGARRIA / 19

SINADURAK

	MIKEL GOENAGA / 27
	ESTEPAN PLAZAOLA / 6
	AITOR UGALDE / 31
	JOSEBA EZPELETA / 9
	IZAR ODRIONOZOLA / 40

+ puatua
Almeneko bertso eskolak 50 urte bete ditu
Erik Isasmendi geologoari elkarrizketa

BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak

60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46

Audi Q4

Disfrutatu teknologiaz!

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz

EH Bildu nagusitu da ibarrean, 2020an baino %5,2 boto gehiago lortuta

EAEn babes handien EAJk izan badu ere, Debagoiengan bozkatuena EH Bildu izan da; EAJk 2020an baino boto gutxiago jaso ditu eta PSE-EEK, berriz, gehiago. Sumarrek eta Elkarrekin Podemosek 2020an batera aurkeztu zirenean baino boto gutxiago lortu dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA EAJk eta EH Bilduk 27na eserleku eskuratu dituzte, baina jeltzaleek irabazi dituzte Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak botoetan. Hala ere, koalizio aber-tzaleak gorakada handia izan du bai botoetan, bai eserleku kopuruan. PSE-EE izan da hirugarren indarra, hamabi eserleku lortuta, eta PPk, Sumarrek eta Voxek ere izango dute ordezkari-tza, zazpi eta legebiltzar-kide banarekin. Elkarrekin Podemos aulki barik geratu da.

Hauteskundearen ostean, analisia egin du Elena Laka abokatuak, eta azpimarratu duen lehenengo gauza izan da datozen lau urteetan gehiago oso nagusiz aber-tzalea izango dela Legebiltzarra: "75 eserlekuetatik, EAJk EH Bilduk 27na eserleku izango dituzte. Uste dut lehen aldiz aber-

tzaletasunak horrelako ordezkari-tza zabala lortzea esanguratsua eta oso garrantzitsua dela". Hala-ber, dio nahiz eta alderdi jeltzaleak boto kopurua galdu babes gehien izaten jarraitzen duen alderdia dela; batez ere, Bizkaian duen indarragatik.

EAJk bozketan beherakada izan duenez, uste du jeltzaleek aztertu egin beharko lituzketela emaitzak, eta "ikusitako eragina daukan horrek eta nola egon den baldintzatuta aurreko 12 urteetako kudeaketarekin". Azaldu du PSE-EEren emaitzek ez dutela "inongo galerarik" sumatu azken urteetan gobernuak egindako kudeaketagatik.

Sumar eta Podemos era zati-katuan aurkezteak bi alderdiei emaitza "oso txarrak" ekarri dizkiela dio, nahiz eta Sumarrek Arabatik eserleku bat eskuratu.

Debagoiengan EH Bildu nagusi 49.518 debagoiendar zeuden bozkatzerantz eta 31.953 lagunek eman zuten botoa hilaren 21ean. Abstentzioa %35,47koa izan zen, 2020ko Legebiltzarrerako hauteskundeetan –pandemia bete-be-tean– baino bost puntu gutxiago.

Debagoiengan, hala ere, EH Bildu izan da bozkatuena, bai-larako botoen erdia lortuta: 16.043. Aipatzekoa da herri guztietan izan dela alderdirik bozkatuena, eta botoetan ere gora egin duela; 2020ko hauteskun-deekin alderatuta, %5,18 boto gehiago jaso ditu.

Bigarren alderdi bozkatuena izan da alderdi jeltzalea, aldeko 10.110 botorekin, eta, EH Bildu-ren kontrara, 2020an baino babes txikiagoa jaso du Debagoiengan. Izan ere, herri guztietan egin du behera jeltzaleen aldeko bo-



Herritar bat botoa ematen Oñatiko hautesleku batean. IMANOL SORIANO

toen kopuruak, eta 2020an baino %5,04 boto gutxiago lortu ditu.

PSE-EE izan da gehien bozka-tu duten hirugarren alderdia, eta, gainera, botoak irabazi ditu ibarreko herri guztietan 2020tik hona –EAEn ere tendentzia bera izan da–. 2.785 boto eskuratu ditu eskualdean. Duela lau urte, %1,2 gutxiago lortu zituen; hain zuzen ere, 2.283 boto.

Legebiltzarrera lehen aldiz aurkeztu den Sumarrek 814 boto bildu ditu, eta laugarren alderdia izan da Debagoiengan. Eserleku barik geratu den Elkarrekin

Podemosek Debagoiengan ere babesa galdu du. Jaitsiera nabarmena izan da, aurreko Legebiltzarrerako hauteskundeekin alderatuta botoen erdia baino gehiago galdu baitu. 621 boto jaso ditu, 2020an baino %3,79 gutxiago. Bi alderdien botoak zenbatuta, 2020an batera aurkeztu zirenean baino boto gutxiago eskuratu dituzte.

Alderdi Popularrak ere botoak irabazi ditu ibarrean. 771 debagoiendarrek bozkatu dute, 2020an baino %0,72 gehiagok –orduko hauteskunde haietan 511k boz-

2020ko eta 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitzak Debagoiengan

	ANTZUOLA				ARAMAIO				ARETXABALETA				ARRASATE				BERGARA			
	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%
Errolda	1.598		1.612		1.138		1.150		5.561		5.455		16.921		17.254		11.245		11.478	
Abstentzioa	%30,79		%32,63		%37,17		%32,00		%34,06		%41,08		%38,82		%44,69		%33,17		%37,69	
Parte-hartzea	1.106		1.086		715		782		3.667		3.214		10.352		9.544		7.515		7.152	
EH BILDU	638	%58,21	554	%51,39	415	%60,41	441	%56,54	1.873	%51,44	1.387	%43,34	4.557	%44,23	3.733	%39,32	3.813	%50,89	3.333	%46,81
EAJ	310	%28,28	370	%34,32	198	%28,82	264	%33,85	1.218	%33,45	1.266	%39,56	3.149	%30,57	3.381	%35,61	2.458	%32,81	2.597	%36,47
PSE-EE	77	%7,03	74	%6,86	16	%2,33	14	%1,79	270	%7,42	237	%7,41	1.315	%12,76	1.095	%11,53	637	%8,50	509	%7,15
E. PODEMOS	14	%1,28	42	%3,90	23	%3,35	36	%4,62	56	%1,54	179	%5,59	281	%2,73	723	%7,62	131	%1,75	401	%5,63
SUMAR	19	%1,73	-	-	17	%2,47	-	-	88	%2,42	-	-	354	%3,44	-	-	164	%2,19	-	-
PP	14	%1,28	15	%1,39	2	%0,29	1	%0,13	70	%1,92	37	%1,16	383	%3,72	245	%2,58	152	%2,03	107	%1,50
VOX	7	%0,64	4	%0,37	5	%0,73	5	%0,64	22	%0,60	16	%0,50	89	%0,86	68	%0,72	40	%0,53	24	%0,34



katu zuten-. Vox alderdiari dagokionez, 185 boto eskuratu ditu, 2020ko hauteskundeetan baino 43 boto gehiago: %0,58.

Debagoieneko emaitzen analisia ere egin du Lakak: "Debagoienean oso nabarmena dena da EH Bilduk gora egiten jarraitzen duela. Gainera, azken hauteskundeetan ikusi da gora egin duela botoetan. Uste dut hori garrantzitsua dela. EAJk, ostera, beherakada izan du, bai aurreko hauteskundeetan ere, eta joera horri ere eutsi egin dio. Beharbada, ez datoz bat Debagoieneko emaitzak EAEko emaitzekin. Azpimarratuko nuke, baita ere, eskualdean PSE-EEk apurtxo bat bada ere gora egin duela, eta hori badator bat EAEn izandako boto-emaitzarekin".

Lehen hiru alderdiak, gustura

Hauteskunde emaitzen ostean, gauean bertan emaitzen balorazioak egin zituzten alderdietako Debagoieneko ordezkariak. Oñatiko alkate Izaro Elorzak aurreko hauteskundeetatik datorren goranzkoaren berrespen modura ikusi ditu EH Bilduk Oñatin, bailaran, Gipuzkoan eta EAEn lortutako emaitzak: "Azkenean, boto kopuruan asko igo gara, eserleku kopuruan asko igo gara, eta bagoaz, poliki-poliki, aldaketa horretan eragiten. Egiten dugun politikari esker herritarren gehiengoarena iristen gara, eta, nolabait, identifikatuta sentitzen dira".

"BOTO ETA ESERLEKU KOPURUAN ASKO HAZI GARA, ETA BAGOAZ ALDAKETAN ERAGITEN"

IZARO ELORZA, EH BILDU

"HAUTSKUNDEEN EMAITZEN BALORAZIO POSITIBOA EGITEN DUGU"

MIKEL LETE, EAJ

"IBARREKO HERRI GUZTIETAN HAZI GARA; HORI KONTUAN HARTZEKO DA"

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

"EZKER KONFEDERALA ALDERDI BAKARREAN OSATZEKO SAIAKERAN JARRAITUKO DUGU"

JUAN LUIS MERINO, SUMAR

"BUelta BATZUK EMANGO DIZKIUGU GURE PROIEKTUARI PODEMOS EUSKADIN"

EVA ABUIN, ELKARREKIN PODEMOS

EAJko Mikel Letek, berriz, azpimarratu du A2lean eten egin zela Bergaran eta ibarrean azken hauteskundeetan jeltzaleek jasotako boto kopuruaren beheranzko joera, eta goranzko joera mantendu dadin lanerako ilusioz daudela. Arreta EAEko emaitzetan jarrita, nabarmendu du EAJ izan dela boto gehien jaso dituen alderdia: "Inkestean arabera, emaitza okerragoak izateko aukera zegoen. Eserlekuetan EH Bildurekin berdinduta gaude, baina 30.000 boto gehiago ditugu. Balorazio positiboa egiten dugu".

Alderdi Sozialistako Alberto Alonso legebiltzarkide oñatiarrak modu positiboan ikusten du bailarako herri guztietan jasotako emaitza, eta dio EAEn gertatu denaren isla direla emaitzak: "Eskualdeko herri guztietan igo gara, eta hori positiboa nahiz kontuan hartzekoa da".

Sumar eta Elkarrekin Podemos
Sumarreko Juan Luis Merinoren ustez, haren alderdiak bailaran lortutako emaitzak esperotakoak eta duinak dira, baina azaldu du ezker konfederala berriro ere alderdi bakar izateko saiakerak jarraituko dutela hurrengo hauteskundeetara begira. Hala, Elkarrekin Podemoseko Eva Abuinek dio lortutako emaitzen aurrean autokritika egiteko prest daudela eta proiektuari "buelta batzuk" emango dizkiotela, "berriro ere" herritarren konfiantza berreskuratzeko.

Bost debagoiendar Legebiltzarrean



EH Bilduk hamaika jarleku lortu ditu Gipuzkoan, eta Lore Martinez aretxabaletarra eta Rebeka Ubera elgetarra legebiltzarkide izango dira. Jeltzaleek bederatzi eserleku lortu dituzte, eta Elena Lete bergararra eta Aitor Urrutia eskoriatzarra ere egongo dira Parlamentuan. Bestalde, Arabako zerrendetatik joango da Legebiltzarrera PSE-EEko Alberto Alonso oñatiarra.

Akordio posibleak

Lehendakaritzarako gehiengo osorik ez, eta, Elena Lakaren iritziz, EAJk eta PSE-EEk eutsi egingo diote hitzarmenari: "Uste dut Imanol Pradales izango dela lehendakari eta Eneko Andueza lehendakariorde. Ziurrenik, Alderdi Sozialistak bere emaitza onak baliatuko ditu Jaurlaritzan pisu handiagoa eskatzeko".

Mikel Letek dio Pradalesek kanpainan zehar adierazi duen moduan EAJko lehendakariarena jarriko dela harremanetan beste alderdiekin, "Gobernu sendo

eta programa partekatatu batekin" aurrera egiteko.

Izaro Elorzak nabarmendu du dena "oso zabalik" dagoela eta EH Bilduk adierazi duela "beste gobernantza modu baterako" prest dagoela alderdia.

Giltza PSE-EEk izan dezake. "Guretzat funtsezkoa da programa mahai gainean jartzea eta lantzea; hemendik aurrera, hurrengo Eusko Jaurlaritzarako bide-orri bat adostea. Hori adostu arte, Alderdi Sozialistak ez dio bere botoa inori emango", dio Alberto Alonsok.

OHARRAK: 2020an ELKARREKIN PODEMOS: PODEMOS eta EZKER ANITZA KOALIZIOA. 2024an ELKARREKIN PODEMOS: PODEMOS eta ALIANTZA BERDEA KOALIZIOA. 2024an SUMAR: SUMAR MUGIMENDUA, EZKER ANITZA, BERDEAK EQUO eta MAS EUSKADI KOALIZIOA.

ELGETA				ESKORIATZA				LEINTZ GATZAGA				OÑATI				DEBAGOIENA				
2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	2024	%	2020	%	
861		858		3.231		3.213		170		177		8.793		8.846		49.518		50.043		Errolda
%29,73		%31,93		%38,69		%44,85		%36,47		%30,51		%32,86		%35,77		%35,47		%40,17		Abstentzioa
605		584		1.981		1.772		108		123		5.904		5.682		31.953		29.939		Parte-hartzea
354	%58,80	309	%53,18	970	%49,16	713	%40,49	63	%59,43	66	%53,66	3.360	%57,13	2.962	%52,31	16.043	%50,48	13.498	%45,30	EH BILDU
175	%29,07	200	%34,42	650	%32,94	741	%42,08	35	%33,02	46	%37,40	1.917	%32,60	2.115	%37,35	10.110	%31,81	10.980	%36,85	EAJ
26	%4,32	8	%1,38	170	%8,62	128	%7,27	1	%0,94	1	%0,81	273	%4,64	217	%3,83	2.785	%8,76	2.283	%7,66	PSE-EE
9	%1,50	33	%5,68	34	%1,72	108	%6,13	1	%0,94	3	%2,44	72	%1,22	186	%3,29	621	%1,95	1.711	%5,74	E. PODEMOS
12	%1,99	-	-	64	%3,24	-	-	1	%0,94	-	-	95	%1,62	-	-	814	%2,56	-	-	SUMAR
10	%1,66	8	%1,38	43	%2,18	20	%1,14	0	%0,00	0	%0,00	97	%1,65	78	%1,38	771	%2,43	511	%1,71	PP
2	%0,33	4	%0,69	11	%0,56	10	%0,57	0	%0,00	1	%0,81	9	%0,15	10	%0,18	185	%0,58	142	%0,48	VOX



Gipuzkoako Enpresaren saridunak. GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

MLAKOOPek Zerbitzu Enpresa saria irabazi du

Bost sari banatu zituen Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Enpresa Sarien 32. edizioan, eta saria jaso zuenetako bat Arrasateko MLAKOOP izan zen; hain zuzen ere, 2024ko Zerbitzu Enpresa saria jaso zuen Bazkundearen eskutik

Julen Murua Mesonero ARRASATE Gipuzkoako Enpresa Sarien 32. edizioa ospatu zuten joan den egubakoitzean, eta Arrasateko MLAKOOP enpresa izan zen saria jaso zuenetako bat. Gipuzkoako Enpresa saria, Enpresen Nazioartekotze saria, ETE Enpresa Industrial saria, Berrikuntza Enpresa saria eta Zerbitzu Enpresa saria banatu zituzten; hain zuzen, azken hori jaso zuen MLAKOOPek.

MLAKOOP Mondragon Korporazioari lotutako bi kooperatiba bateratzen dituen enpresa bat da: Mondragon Lingua eta Alecop. Prestakuntza eta hizkuntza-zerbitzuen alorreko enpresentzako neurri egindako soluzio, zerbitzu eta produktuetan aditua da enpresa bera; duela bi urte inguru hasi ziren proiektua lantzen eta MLAKOOPeko zuzendari nagusi Idoia Mujikak dioenez, jasotzea espero ez zuten saria eskuratu zuten: "Nik uste dut saririk, normalean, ez duela inork espero. Beti iza-

ten dira ongiatorriak. Oso une onean harrapatu gaitu sari honek eta uste dut aukera aprobetxatu egin behar dugula".

Zerbitzuetatik harago

Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu MLAKOOPek egunerokoan, hala nola hizkuntza, prestakuntza eta itzulpen zerbitzuak. Alabaina, horrez gain, ekipamendu didaktikoko eta prestakuntza-aholkularitzako proiektuak garatzen dizkie hainbat herrialdeko erakundeei; batez ere, Latinoamerikan, Marokon eta Debagoien inguruko enpresetan.

Eskaintzen dituzten zerbitzuez gain, enpresak dituen balioak nabarmendu ditu Mujikak; esan du Gipuzkoako Bazkondeak

**MONDRAGON LINGUA
ETA ALECOP
BATERATZEN DITUEN
ARRASATEKO ENPRESA
DA MLAKOOP**

emandako sariak horri egiten diola aitortza: "Fusioa aztertu genuenean, bi enpresek genuen gauza bera zen gure balioetako bat etika profesionala zela; gure lana zintotasunez egitea, bezeroei gertutasuna erakustea, arduratzea eta abar. Nik uste dut sari honek balio horiek duten garrantzia adierazten duela".

Etorkizunerako baliagarria

Enpresa berria da MLAKOOP; duela bi urte inguru hasi ziren proiektua garatzen, baina "MLAKOOP identitatea duela urte erdi inguru" atera zuten, Mujikak dioenez. Proiektu berria izanik, "horrelako sari bat jasotzea bultzada bat jasotzea" bezala dela dio Mujikak. Hori dela eta, haien proiektua "Erkidegoan ezagutarazteko aukera paregabea" dela aitortu du zuzendariak; argudiatu du "gaur egun proiektu berriak ezagutzera ematea zaila" dela, eta "etorkizunerako aukera aprobetxatu" behar dutela.



Lesarriko tunela, berrituta, Gasteizerako noranzkoan asteen. GOIENA

Lesarriko tunela irekiko dute bihar; irailean, bigarren fasea

2023ko irailean abiatu zituzten birgaitze lanak, eta, zazpi hilabeteren ostean, tunela irekiko dute

J.M.M. BERGARA

Zapatuan, apirilaren 27an, irekiko dute AP-1eko Lesarriko tunela Gasteizerako noranzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez. Iazko iraila ezker aritu dira birgaitze integraleko lanak egiten, eta dagoneko erabilgarri dago. Irekieraren ondoren tuneleko bi hodiak zabalik egongo dira bi noranzkoetan, baina, aurretik, barrualdean eta kanpoaldean ingurabidea egiteko jarritako hormigoizko hesiak kenduko dituzte. Hori dela eta, Foru Aldundiak jakinarazi du "ostiral gauean, apirilaren

26an, AP-1 autobidea erabat itxita" egongo dela "bi noranzkoetan, Maltzaga eta Bergara artean, larunbateko 09:00ak arte". Itxiera 21:00etan hasiko da Behobiarako noranzkoan eta 21:30ean Gasteizerako noranzkoan.

Iraileko bigarren hamabostaldian obren bigarren fasearekin lanean hasiko direla adierazi du Aldundiak; hain zuzen, "hodia Behobiarako noranzkoan birgaitzeko lanekin". Denbora tarte horretan "trafikoa Gasteizerako noranzkoko hodi berrituan jarriko den pasabidetik" bideratuko dela jakinarazi du.

Autobusa egongo da Debagoienetik Herri Urratsera

Aretxabaletatik, Arrasatek eta Bergararik irtengo dira, maiatzaren 12an, Senpererako autobusak

J.M.M. DEBAGOIENA

Maiatzaren 12an, domeka, ospatuko da Herri Urrats jaia Senperen (Lapurdi), eta *Ortzadarra* izango da leloa. Urteroko hitzordua izaten da askorentzat Herri Urrats, eta aurten ere Debagoienetik egongo da aukera jaira joateko. Zehazki, Aretxabaletatik, Arrasatek eta Bergararik izango da jaira joan eta ostean etxera itzultzeko aukera.

Bertaratzeko interesdunek maiatzaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, Loramendi, AED eta Jardun euskara elkar-

teen egoitzetan. Autobuseko sarrerek hamar euroko prezioa izango dute bazkideendako eta hamabikoa, berriz, bazkide ez direnendako. 08:30ean irtengo da autobusa Aretxabaletatik, AZBE alboko geltokitik; Arrasaten izango du hurrengo geldialdia, 08:45ean, Zalduspe autobus geltokian, eta Senperera joan aurreko azken geltokia Bergararako Ibargarai geltokian izango da, 09:00etan. Itzulerari dagokionez, arratsaldeko zazpietan irtengo da autobusa Senperetik.

Zortzigarren Puntaik Punta Elgetan izango da

2016an Debagoieneko natur ondareari balioa emateko sortu zen jaialdiak zortzigarren aldia izango du; lehenengoa Elgetan. Maiatzaren 10etik 12ra bitartean, denetarikoa ekintzekin betetako egitarauarekin gozatzeko aukera egongo da

Iñigo Barrena Kortabarria ELGETA
Puntaik Punta –Debagoieneko bidezidorren jaialdia ere deiturikoa– Elgetan izango du zortzigarren aldia; lehen aldia izango da Elgetarentzat jaialdia hartzen duela. Hala, Elgetako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko, Turismo-ko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak elkarlanean antolatuta, askotariko ekintzek hartuko dute herria maiatzaren 10etik 12ra bitartean.

Mendi irteerak, tailerrak eta kontzertuak ez dira faltako hiru eguneko egitarauan. Mendi ibilbideen kasuan, zapatuan eta domekan egingo dituzte, GR-289 bidearen barruan. Lehenengoan Bergararik Elgetara joango dira oinez eta bigarrenean, berriz, Arrasatetik Elgetara abiatuko dira. Bestalde, Intxortako frontea ezagutzeko ibilbide tematikoa ere egongo da aukeren artean. Kulturari, besteak beste, zapatuan bi kontzertu egongo dira. Eguerdian Unai Cantabrana herritara-

rrak abestuko du eta gauean Gozategi taldearen doinuak gozatzeko aukera egongo da.

Aurten ere berrikuntzak izango dira; tartean, mendi-ibilien eta artisauen azoka, *food track*-ak herrian zehar eta ikuskizun eta ekintza bereziak: dantza bertikala; *pump track* pistaren erakustaldia eta ikastaroa. Etxeko txikiak ere izango duten non gozatu; izan ere, euren zuzendutako abentura txokoa jarriko dute bolatoki inguruan. Hain zuzen ere, egitarau osoa www.turismodebagoiena.com webgunean dago.

Natur ondareari balioa emateko
2016an ekin zion Puntaik Punta jaialdiak, eta, jai giroko ekintza

**EGITARAUKO HAINBAT
EKINTZATAN PARTE
HARTZEKO IZENA
EMAN BEHAR DA
AURRETK**

bada ere, natur ondareari balioa emateko sortu zuten. "Debagoienak betidanik eman digu ondare naturalaz gozatzeko aukera. Daukagun mendi-ibilbideen sarea oso handia da, eta eskualde osoa zeharkatzen du. Horren adibide da 40 bide homologatuak ditugula: GR-ak, SR-ak eta SL-ak", azaldu du Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomiko eta Turismo batzordeko lehendakari Angel Mari Etxabek.

Era berean, Mugikortasuneko, Turismo-ko eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Azahara Dominguezek adierazi zuen ekimenak bat egiten duela Aldunditik sustatu nahi duten turismo ereduarekin: "Turismo jasagarria erakarriz hazi nahi dugu; hau da, gurera datozen bisitariak errespetuz eta ingurunea zainduz hurbiltzea nahi dugu. Puntaik Punta jaialdia Gipuzkoatik kanpora erakutsi nahi dugunaren erakusleho ezin hobea da".



Puntaik Punta jaialdiaren aurkezpena. TXOMIN MADINA

Goienakideen txokoa

APIRILEKO SARIAK

**Liburu-
irakurgailua**
SPC e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO OBIKAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Mendi Bidezidorren Jaialdiaren Webgunea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa. Inon ere dagoen DPD 15/1996 legearen arabera jakinarazteko, zuzen datuak goienakide@goiena.eus bidez bidaltzeko. Datu bilaketaren helburuak eta inon ere dagoen sustapena goienakide@goiena.eus bidez bidaltzeko. Hala ere, zozketaren emaitza, lehenengo datuak goienakide@goiena.eus bidez bidaltzeko.

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 30a

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jaietxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2024KO GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



ZABALIK

ESTEPAN PLAZOLA

Buru eta bihotz

Datozen lau urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa egiteko prozesuari ekin diogu Bergaran, eta, lehenengo urrats gisa, herritarrentzako galdetegi bat gertatu dugu. Herritarrei eskatu diegu eman diezazkigutela euskararen egoeraz eta bilakaeraz duten pertzepzioa eta egoera hori hobetzeko proposamenak.

Hasteko, emaitza positibo bat izan dugu, guztira 200 herritarretik gora izan baitira galdetegiari erantzun diotenak. Herritar gehienek iritziz, euskarak okerrera egin du Bergaran azken urteetan. Datu soziolinguistikoek ere geldiuena edo beherakada txiki bat adierazten dute, eta hori iraultzea dugu apustu nagusia.

Eta proposamen interesgarrikerik ere jaso dugu; tartean, honako hau: euskara bera gogoetagai izango duten lanen -iritzi-artikuluak, ikerlan txikiak, proposamenak...- lehiaketa edo antzeko zerbait antolatzea; gure buruak

janzteko eta gure bihotzak berotzeko bide bat, sorgune bat, imajinazio-gune bat.

GAI IZANGO GARA EUSKARAREN ALDEKO OLATU BERRI BAT SORTZEKO?

Euskararekin lotutako bi ekitaldi interesgarri izan ditugu berriki herrian. Alde batetik, euskarak luzaz jasan duen eta jasaten duen

jazarpena bikain aurkezten duen filma: *Bizkarsoro*. Benetan bihotz-berogarria eta emozio-pizgarria. Bestetik, Iñaki Iurrebaso soziolinguistaren tesia aurkezteko hitzaldia, mezu argia utzi diguna: "Euskara askoz gertuago dago heriotzatik osasun betetik baino, eta ez gara kontziente".

Joxean Artzek hauxe dio bere poema batean: *Hala bazen ere lehen / areago da orain hemen / euskararen iraupena 'zenbat' en eskuetan bainoago 'nolako' euskaldunengan dago.*

Pentsatzen dut *zenbat* eta *nolako* biak behar ditugula, baina '*nolako*' horrek garrantzi berezia hartzen duela.

Nolako euskaldunak izango gara gu? Nolakoak gure entitateak? Nolakoak gure politikariak? Gai izango gara euskara gure lehentasunen erdigunerara ekarri eta, buru eta bihotz, euskararen aldeko olatu berri bat sortzeko?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hamaika molde

BLANCA URGELL
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/PE829

Astelehenean Materraren *Dotrina Christiana* (1617) aztertzen ari ginen, lapurtera klasikoaren estreinako liburua. Etxauz apezpikuari egin zion eskaintzan, gaixo antzean nenbillelako-edo, bereziki erreparatu nion *nola eta zer moldez...* galderari. Ttak.

Adorez hiztegiak modu (ez) esateko lau aukera ditu: era, gisa, molde eta manera. Har dezagun astearteko BERRIA, esate baterako. Azken biak ez dira inon ageri; aldiz, modu 28tan dago era guztietara: modu argiagotan, jotzeko modukoak,

erakutsi duten moduan, modu askotara, zer moduz, beste modu batean, zurubi baten moduan, adibide moduan, haga modukoa... Era bakan eta ia fosildurik (era berean hiru aldiz, beste era batera eta era horretan bana, eta ohiko eran bat eta bakarra); gisa gordexeo du izen ondoan bezala ondo ikusia ez izateak (bazkide gisa, lagin gisa... guztira sei); mediatik gorako bi agerraldi ere baditu, artean ene saria irabazi duen Garbine Ubedaren "bihotz taupadatsu" baten gisan, non eta Itxaro Bordaren poesia liburuaz ari.

Gero esfortzu handirik gabe ediren dut "eta ez nuen abesten ez zelako hiltzeko era bat" Sefaris-enean, Maite de las

Heras-en itzulpenean. Poesiatik kanpora non dagoke *moldezko*, non Miranderen *haren ezpain moldegaitzak*, non *aldez edo moldez*, non Kardaberatzen *moldezia?*

Modumolde baino jatorragoa ote? Zergatik? -u trixte horregatik? Gure *molde* ez dakit xuxen nondik datorren: esanahia gurea ote den nago, ordea. Sukaldaritzatik ezagunago den gaztelaniazkoa katalan zaharretik omen (valentzieraz bizirik: *pa de motle*, kasu), eta ezustean lat. *modulus*-tik dator, *modu*-ren txikigarritik.

Mundua ez da beti jai / inoiz tristea ere bai, / baina badira mila motibo (eta hamaika molde) / kantatzeko alai.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Ezin dugu ahaztu adimen artifiziala tresna bat dela"

AMAIA ARROYO SAGASTA KOMUNIKAZIOAN ETA HEZKUNTZAN DOKTOREA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Nola integratu beharko litzateke adimen artifiziala hezkuntzan? Grao argitaletxeak MUko Humanitate eta Zientzien Fakultateko ikertzaile talde batek egindako ekarpenak argiratu ditu *Inteligencia artificial y educación: construyendo puentes* liburuan.

Amaia Arroyok (Arrasate, 1983) koordinatu du lana.

Gaur-gaurkoz, zein leku du adimen artifizialak hezkuntzan?

Esango nuke hastapenetan gaudela. Uste dut orain hasi garela urrats sendoagoak egiten: curriculumean jartzen da kompetentzia digitala, irakasleen formakuntza derrigorrezkotzat jo da... Orain hasi da hau guztia forma hartzen, eta, nire ustez, ezin dugu ahaztu adimen artifiziala tresna bat dela, teknologia bat. Adi-adi gaude zer gertatuko ote den.

Sektore guztietan eragingo du adimen artifizialak; hezkuntzan, zertan?

Ez naiz teknikaria eta niri ere kosta egiten zait gauza horiek ulertzea. Horregatik egin dugu liburu hori polifonian, eta lagundu digu definizio batera heltzen. Ulertzen dut adimen artifiziala dela makinei dagokien gaitasuna, berez, gizakion



Amaia Arroyo Sagasta. L.Z.L.

gaitasunarekin lotutako zereginak egiteko. Hori hezkuntzara ekarrita izango litzateke, adibidez, hizkuntza bat ikasten dugunean ahozkotasuna aplikazio batekin praktikatzea edo ikasketa prozesu batean egiten dituzun ariketen eta akatsen arabera sistemak bideratzea jarduera batzuetara beste batzuetara baino. Bada pertsonalizazioan gorantz egiteko aukera emango duen tresna baten promesa.

Dilemak ere badaude, ordea.

Dilema etikoak planteatzen dira. Gai potoloa da, eta, askotan, diskurtsoa ez da oso zehatza. Kontua ez da pribatutasuna bakarrik; ez da datuak norenak diren bakarrik, nork erabiltzen dituen edo nork dakien teknologia erabiltzen. Justizia sozialarekin, inklusioarekin eta konpromiso sozialarekin lotutako dilemak ere badaude. Nik hor badut ideia bat askotan errepikatzen dudana: gaur egun, korporazio

handiek maneiatzen dute gai hori guztia, baina etorkizunera begira hezkuntzak badu giltza handi bat. Etorkizuneko algoritmoak eta teknologiak diseinatuko dituztenak klaseetan daude, gure seme-alabak dira. Hor dago dilema horiei kontrapuntua jartzeko dugun ardura.

Elkarlanean egin duzue liburua Ainar Bilbaok, Egoitz de la Igleziasek, Beñat Floresek eta zuk zeuk; polifonia da?

KoLaborategian hainbat lagun ari gara STEM eta digitalizazioaren bueltan. Hasieratik adierazi genuen gai horri heldu egin behar zitzaioela. Filosofiatik heldu dio Egoitzek, alderdi teknikitik Ainarak, sormen aldetik Beñatek eta teknopedagogiatik neuk. Hezkuntza erakunde eta unibertsitate gisa eta ikastetxeei eta ditugun graduak begira aztertu dugu gaia. Nola kokatu nahi dugu horren aurrean? Ertz asko dituen gaia da, eta hastapenetan gaude. Ikerketa gehiago egin behar dira, eta lanketa horrek eskatzen du ikuspegi poliedrikoa. Teknologia guztiak ez dira disruptiboak, baina adimen artifiziala bai. Jauzi kualitatibo bat dago.

Ondorio nagusiak zeintzuk dira?

Ikasleei orain arte proposatu dizkiegun egitekoak adimen artifizialak egin baditzake eta guk ere, irakasle moduan, erabili badezakegu adimen artifizial sortzaile hori ikasleen lanak ebaluatzeko, harreman horrek bukatuko du izaten

makina batena beste makina batekin. Orduan, zein da gure rola? Zein da gure funtzioa edo gure egitekoa? Non dago benetan desberdintzen gaituena? Galdera potoloak dira, eta benetako aldaketa aroa etorriko da hortik. Eta bai edo bai hautuak egin beharko ditugu.

Ikasteko eta irakasteko moduetan zenbaterainoko iraultza ekarriko du adimen artifizialak?

Nik ikusten dudana da tresnetan oinarritutako formakuntzan jarraitzen badugu kale egingo dugula, eta orain arte egin izan ditugun hanka-sartze berak egiteko aukerak daude. Orduan, benetan sinets dezagun paradigma aldaketa baten aurrean gaudela. Aprobetxa dezagun aukera modu arduratsuan benetako aldaketak egiteko. Neurtu eta ezagutu beharko dugu teknologiak zer eskaintzen digun, ikusi nola aplikatu dezakegun modu arduratsuan...

"TEKNOLOGIA GUZTIAK EZ DIRA DISRUPTIBOAK, BAINA ADIMEN ARTIFIZIALA BAI"

"APROBETXA DEZAGUN AUKERA MODU ARDURATSUAN BENETAKO ALDAKETAK EGITEKO"



Realaren eta Las Palmasen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Las Palmas norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partidua maiatzaren 4an izango da, 14:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 28a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena^{''}
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia



Hainbat ibilgailu Otolara Lizentziaduna kalean. E.A.B.

Mugikortasun Plan berria lantzen ari da Gobernua

Mugikortasun Jasangarrirako Udal Plan berria izango du Arrasatek. Hain zuzen ere, Udal Gobernua diagnostika osatzeko datuak biltzen ari da, eta ekainean eragileen eta herritarren iritzia jasoko ditu. Ondo bidean, urte bukaerarako prest egongo da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2018 eta 2023 arteko Mugikortasun Plana ebaluatu ostean, datozen bost urteetarako plana osatzeko lanetan ari da Arrasateko Udal Gobernua. Otsailean abiatu zuten horretarako prozesua, Intra enpresarekin elkarlanean, eta garbi dute, txikitutasunetik bada ere, jasangarritasunaren alde egiteko garaia dela. Era horretan, herritarren mugitzeko ohiturak aztertu ostean, mugikortasun "hobe eta jasangarriago" baterako neurriak proposatuko ditu planak, Maider Morrás alkatearen esanetan.

Lanketaren baitan, hainbat helburu jarri dituzte, Garazi Etxeberria Hirigintza, Trantsi-

zio Ekologikoa eta Mugikortasuna Saileko zinegotziak dioenez, baina nagusiak hiru dira.

Batetik, oinezkoen mugikortasuna modu seguruan bermatzeko aukerak landuko dituzte, genero ikuspegia ardatz hartuta. "Faktore asko daude, baina emakumeok eta gizonetakoak ez gara berdin mugitzen, ez ditugu behar berberak, eta segurtasun pertzepzioa ere desberdina da. Beraz, hori kontuan hartuko du planak".

Bestetik, ibilgailu pribatuetatik garraio publikorako trantsizioan, autobusen eta herribusaren lineak berriro aztertuko dituzte. "Horrela, ikusiko dugu zerbitzu egokia ematen duten

edo ez". Horrez gain, taxien zerbitzuak gainbegiratu dituzte, eta taxi-bus zerbitzua aztertu.

Hirugarrenik, bizikleten mugikortasuna hobetu gura dute. "Bidegorri sarea osatzen joan da, baina ez da sare jarraitu bat, eta hori da gura duguna, praktikoa eta funtzionala izan dadin".

Horiez gain, bestelako helburuak ere aipatu ditu Etxeberriak: "Eskola ibilbide seguruak egitea, gizonen eta emakumeen arteko segurtasun-pertzepzioari erreparatuz espazio seguruak sortzea, bizikletentzako ibilbide funtzionalak egitea, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak ezartzeko aukera aztertzea edota aparkalekuen behar erreala aztertzea".

Herritarrek parte hartuko dute Etxeberriak adierazi duenez, datuak batzen ari dira orain, diagnostika egiteko, horretarako hainbat bide erabiliz. Batetik, herriguneko ibilgailu kopurua neurtu zuten duela hilabete. Bestetik, udal teknikariek hainbat elkarrizketa egin dituzte; ez bakarrik Hirigintzako teknikariek, baita beste hainbat sailtakoekin ere. "Guztien ekarpenak jaso gura ditugu, planean ikuspegi guztiak txertatu ahal izateko".

Txosten hori ekainerako prest izatea da Gobernuaren aurreikuspena, eta, ekainaren bigarren astean hasita, herritarrekin hainbat saio egingo dituzte.

Hala, ekainaren 10etik 30era arte inkesta bat betetzeko aukera izango dute herritarrek udal webgunean, proposamenak eta ekarpenak egin ahal izateko, eta ekainaren 10etik 15era saio irekiak egingo dituzte. "Planak duen garrantzia kontuan hartuta, prozesuan parte hartzeko dei egiten diegu herritar guztiei", azpimarratu du Etxeberriak.

Urte amaierarako prest

Ondo bidean, urte bukaerarako prest izango dute plan berria. Izan ere, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ere berritzekotan da Gobernua, eta, horretarako, ezinbestekoa da Mugikortasun Plana finkatuta izatea.

Udala auzora autobusak udan

Morrás dio landa-auzoetako mugikortasunari arreta berezia jarriko diotela. "Horren baitan, aztertzen ari gara uztaileko asteburuetan Udalara joateko autobus zerbitzua jartzea. Proiektu pilotua izango litzateke, helburu jakin batekin: Udalan auto pilaketak ekiditea".



Ignacio Zuloagako lanak. A.U.

Euskaltelek Ignacio Zuloagan aurreikusita zituen lanak, hasita

Zebra-bideak egiteko lanak baliatuta eta Euskaltelek bere sarearen hedatze eta hobetze lanak egitea aurreikusita zuela jakinda, Arrasateko Udalak lan horiek aurreratu ditu, obra guztiak batera egitea lehenetsita, "bizilagunek eragozpen gutxiago izan ditzaten". Telefoniako lanek bi aste iraungo dute eta Kondekua kaleko aparkaleku eta edukiontziei eragingo diete.

Abian da errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina

Apirilaren 8an hasi zen errenta aitortpena egiteko kanpaina Gipuzkoako Foru Ogasunean, eta uztailaren 1era arte iraungo du. Ohi moduan, Arrasateko Udalak dei egin die herritarrei errenta aitortpena euskaraz egin dezaten. Aldundiaren datuen arabera, iazko aitortpena arrasatearren %22k egin zuten euskaraz. 2006a ezkerre, 16 puntu hazi da kopurua.

Matrikulazio epea zabalik!

2023-2024 JAIOTAKOENTZAT

IZEN EMATEA

Apirilaren 22tik maiatzaren 10era

ON LINE

www.haureskolak.eus

Zatoz gu ezagutzera AURTEN, DOAKOAK

Arrasateko Haureskolak



MUSAKOLA haureskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haureskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Mondrako zuzendaritza batzordeko kideak, emakume beteranoen taldekoak eta Izan Inurri elkarteak, Mojategin. XABIER URTZELAI

Elkarlana delako inurrien bereizgarri nabarmenena

Minbiziaren aurkako futbol txapelketa solidarioa jokatu dute hilaren 1ean Mondrako, Eibarko, Amorebietako eta Intxaurdiko emakume beteranoen taldeek; helburua da Izan Inurri elkarteari laguntzea, ikusgarritasuna emateaz gain, ekarpen ekonomikoa eginez

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Kirolak eta elkartasunak bat egingo dute maiatzaren 1ean, eguaztena, Mojategi futbol zelaietan. Izan ere, minbiziaren aurkako txapelketa solidarioa jokatu dute, 11:00etan hasita, Izan Inurri elkarteari laguntzea helburu hartuta.

Mondrako emakume beteranoen taldeko jokalariek Susana Santorrek azaldu duenez, Mondragon futbol klubak badu hurremana Izan Inurri elkartearekin, besteak beste, zuzendaritza batzordeko hainbat kide elkarte baxkide ere badirelako. "Alde horretatik, interesgarria iruditzen zaitzaigun elkarteari laguntzeko txapelketa bat antolatzea. Gabonetan, Ermuan, diabetesaren aldeko txapelketa solidario batean parte hartzeko deia jaso genuen, eta, horren harira, beteranoen talde sortu genuen. Hala, beste herri batzuetan horrelako ekimenak egiten dituztela ikusita, guk ere bat antolatu dugu".

Txapelketaren bidez, beraz, Izan Inurri elkarteari lagundu gura diote: "Sentsibilizazioa sustatzea, elkarteari elkartasuna eta babes adieraztea eta laguntzea dira helburuak. Bide batez, haiek egiten duten lanari ikusgarritasuna eman eta lan horri balioa eman gura diogu. Izan ere, egoera pertsonalean laguntzeaz gain, ekonomikoki ere laguntzen diete minbizia dutenei, bizi-kalitatea hobetuz".

Eguaztenean, ikusgarritasuna emateaz gain, laguntza ekonomikoa ere emango diote elkarteari. Batetik, txapelketak hainbat babesle ditu, eta bakoitzak bere ekarpena egin du. Honako hauek dira babesleak: Arrasateko Udala, Ibai-arte merkatarien elkarteak, Goisolutions, Amuebladora Mondragonesa, Uribesalgo Aseguruak, Ereindajan, Begia Optika, Abian Service, Ikerra SL, Osorik taberna, Errekabarren, Bibai, BZ Sistemas, Araba Autobusak, Kajoi taberna, Abian Fisioterapia Zentroa, Buart

Loradenda, Cristaleria Errasti eta Kopyprest. "Asko eskertzen diegu eman diguten babes eta laguntza guztia", dio Santorrek.

Bestetik, txapelketa egunean bertan zozketa bat egingo dute. Hala, goizean zehar txartelak salduko dituzte, euro baten truke, eta bi otarre zozkatuko dituzte: bata Ibai-arte emandakoa eta bestea, aldiz, Ereindajanek emandakoa. Otarre horiek, gainera, Mondrako hainbat produktorekin osatuko dituzte. Txartelen bidez lortutako diru guztia Izan Inurri elkartera bideratuko dute.

Lau talde ariko dira Mojategin Txapelketari dagokionez, lau taldek hartuko dute parte: Mon-

EGUNEAN BERTAN BI OTARRE ZOZKATUKO DITUZTE, ETA TXARTEL BAKOITZAK EURO BAT BALIOKO DU

Ikuspegi feminista eta eraldatzailea

Izan Inurriko kide Argitu Perosterena oñatiarrak dio halako ekimen guztiak "ongi-erriak" direla. "Izan ere, bularreko minbiziaren geroz eta kasu gehiago daude, baita bularreko minbizi metastasiko kasuak ere, eta beharrezkoa da ikertzen jarraitzea". Halaber, ikuspegi feministan jarri du arreta: "Emakume batek minbizia duenean, esaten dioten lehenengo gauza da ileordeak non saltzen dituzten. Gero, bularra kendu ostean, presio egiten diote bular berria jartzeko, eta, askotan, gainera, medikua bera da horretan lehena. Horrek amaitu egin behar du. Emakume batek emakume izaten jarraituko du bular batekin edo bularrik gabe ere, eta hori aldarrikatu gura dugu. Egia da geroz eta emakume gehiago ikusten ditugula bular batekin, eta enpresa batzuk ere hasi direla bular bakarreko bularretakoak ekoizten, eta hori ere oso garrantzitsua da guretzat".

dra, Amorebieta, Eibar eta Intxaurdi. 11:00etan hasiko dituzte partidua, hogeitun minutukoak, eta talde guztiek elkarren aurka jokatu dute, ligaxka eran. Zazpiko futbola izango denez,aldi berean bi partidua jokatu dituzte. Mondraren kasuan, 11:00etan Eibarren aurka jokatu du; gero, Intxaurdiren aurka; eta, azkenik, Amorebietaren aurka.

12:15ean izango da finala, hirugarren eta laugarren postua erabakiko duen partidua batekin, eta, ostean, 12:45ean, zozketa eta sari banaketa egingo dituzte. Era berean, parte hartuko duten lau taldeei garaiak banatuko dizkiete.

Bigarren txapelketa izango dute Mondrako emakume beteranoek, baina, behin taldea osatuta, "berriz futbolaz gozatzen" jarraitu gura dutela aitortu dute.



NIRE USTEZ

JOSEBA EZPELETA

Iritsi da hurrengo eguna!

Hauteskunde guztiek dute biharamuna, eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeena ere iritsi da. "Eskerrak!", pentsatuko du batek baino gehiagok.

Ohituegiak gaude ikustera nola egun honek, *bixamon* honek, efektu amnesikoa duen, nola atzo egia absolutu eta promesak zirenak gaur "agian" edo "ikusiko dugu" bilakatzen diren.

Ondorio garbi bat utzi digu biharamunak: eraberritze politikoa eta gobernatzeko beste eredu bat behar dugu.

Einsteinek zera omen zioen: "Ez dezagun espero ezer aldatzea, guk beti gauza bera eginez gero". Eta hor dago gakoa. Tentazioa egon baitaiteke gatopardismoan erortzeko, "dena aldatzea ezer ez aldatzeko". Baina hori ez da gure iparra, jakin badakigulako aldatzen ez den gauza bakarra dela dena aldatzen dela.

Mandatu argia da: orain artekoak ez du balio. Bestelako emaitzak lortzeko, bestelako modu batean aritu beharra daukagu. Kooperaziotik eta komunitatetik, elkar ulertuz eta elkarlanean. Jendarteak nahi hori adierazi du hauteskunde hauetan, eta komeni da gogoan izatea, amnesia jo aurretik.

OHARRAK

San Felipe

San Felipe Elkarlaguntzak ohiko batzar nagusia egingo du bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian. Lehen deialdia 10:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 10:30ean.

Familia meza etzi

San Juan Bataiatzailea parrokiaren egingo dute familia meza, domekan, 11:00etan.

Ipuin artean murgilduta igaro dute astea ikasleek

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen hilaren 23an, eta, horren harira, Ipuin Astea egin dute Arrasate Herri Eskolan. Erguinen, esaterako, ipuin kontaketa kolektiboa egin zuten martitzenean bertan, eta 28 ipuin irakurri zituzten, askotariko hizkuntzetan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Azken urteetan, Arrasate Herri Eskolan ohitura bilakatu da Ipuin Astea, hainbat ekintza batzen dituena. Ipuin kontaketa kolektiboa da arrakastatsua. "Laz, hogeit bat ipuin kontatu zituzten, eta aurten, berriz, 28", dio Edurne Alonso irakasleak. Hala, ipuin guztiak aldi berean kontatzen dituzte, ikasleak taldeetan banatuta. Ikasleen senideak, irakasleak eta boluntarioak izaten dira irakurleak eta horietako bakoitzak aukeratzen du ze hizkuntzetan kontatu ipuina. Hala, euskaraz, hassaniaz, gazteleraz, ingelesez, alemanez, turkieraz eta galegoz kontatu dituzte ipuinak aurten.

Une politena, Birjina Telleria irakaslearen esanetan, liburu aukeraketarena da. "Irakurri beharreko liburuak ikusgai jarri ditugu; beraz, gustukoena eskatzen dituzte, horiek entzuteko. Edozelan ere, banaketa orekatu bat egin behar izaten dugu, ikasle kopuru antzekoa duten taldeak osatzeko; izan ere, 421 ikasle ditugu, eta zaila da guztien gustura banatzea".

Egitekoak utzi, irakurtzeko

Dena utzi eta irakurri izan da beste ekimen bat, aurten lehenengoz egin dutena. Hala, hain-



Erguinen guneko ikasleak, liburu batekin. ARRASATE HERRI ESKOLA

bat egunetan, txirrinak jotzean, ikasleek egiten ari zirena alde batera utzi eta hamar minutu hartu dituzte irakurtzeko, pasillora irtenda. "Eguneko edozein momentutan izaten zen, haiek ez zekiten noiz. Gainera, irakurtzen zuten bitartean, musika lasaia jartzen genuen girotzeko, eta hor sortu izan diren isiltasun uneak oso politak izan dira", dio Telleriak. "Benetan hunkigarria da ikasle guztiak lerroan jarrita irakurtzen ikustea", gaineratu du Alonsok. Ikasle askok etxetik eraman dituzte liburuak

ekimenerako, eta beste askok ikastetxean hartu dituzte.

Lau ipuin, elkarlanean sortuta

Ipuin partekatua-ren baitan, azkenik, lehen mailako ikasleek titulua pentsatu dute; bigarren mailakoek, pertsonaiak; hiru-garrenekoek, sarrera bat; lau-garrenekoek istorioa garatu dute; eta bosgarrenekoek bukaera ematen diote ipuinari; azkenik, seigarren mailakoek forma eman diote guztiari. Metodo hori erabiliz, lau ipuin osatu dituzte aste honetan.



LUKEN UGARTEBURU

Mondra igoera ospatzen ari da

Futbolearen, Gizezkoen Erregional Ohorezko Mailara igo da Mondra, azken partiduan Legazpiko linterari 0-3 irabazita. Joan den zapatuan lortu zuten igoera, eta festa giroan ospatu zuten, lehenik Legazpin eta ostean herriko zaleekin, San Frantzisko ondoko biribilguneko iturrian, ohiturari jarraituz. Asteburu honetan jarraituko dute ospakizunekin.

Egitarau mardula San Andresko jaietan, gaurtik eguaztenera

Gaur, bihar eta etzi bakarrik ez, maiatzaren lehen ere ospatuko dituzte jaiak San Andres auzoan. Jai Batzordeak egitarauaren berri eman du, eta, ohi legez, askotariko ekintzak egongo dira egunotan. Plater nagusietako bat Gozategi taldearen emanaldia izango da, gaur bertan, 23:00etan (Ikus 12. orria). Musikarekin jarraituz, Urban 13 Kolektiboarekin hip-hop doinuak eta Figueras Fest jaialdia ere nabarmentzekoak dira. Bestalde, aurten ere ez dute hutsik egingo herri bazkariak eta mus txapelketak, eta umeendako, besteak beste, puzgarriak eta Potx magoa egongo dira. Egitarau osoa, *Goiena.eus*-en.

Federazioaren urteurrenean, talde argazkia Udalatzen

Euskal Mendizale Federazioa mendeurrenara ospatzen ari da, eta, horren baitan, *100 urte 100 mendi* ekimena abiatu du. Hala, urteak adina tontor igoko dituzte asteburuan, eta goian talde-argazkia atera. Horietako bat Udalatx izango da, eta Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta du igoera. Hain zuzen, apirilaren 28an, domeka, Udala auzoan elkartuko dira, 09:00etan, eta Udalatxera igoko dira. Ondoren, 12:00etan, talde-argazkia egingo dute, urteurrenko banderarekin, Asensio lepoan –bi gurutzeen arteko lepoa, ermita egon zen tokia–. Egingo duten ibilbideari dagokionez, 7,5 kilometrokoa izango da.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

OKASIO ETA OKM AZOKA



STOCKKA

Berehala eramateko!

ARRASATE, Mugarri

Apirilak 25, 26 eta 27 10:00etatik 20:00etara



Ford PUMA
175 €/hilean*



Ford TOURNEO COURIER
179 €/hilean*



Ford KUGA
189 €/hilean*



Hyundai i20
170 €/hilean*



Hyundai KONA
186 €/hilean*



Hyundai TUCSON
199 €/hilean*

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

682 909 625

**GRUPO
EASO
MOTOR**

www.grupoeasomotor.com



Easo Motor



HYUNDAI
Oarso Car

Zuzeneko musikarekin kontatutako ipuina

Familiendako sortutako 'Euskelelea' ikuskizuna egingo dute Euskal Barrok Ensemble musika taldeak eta Goikobalu Txiki abesbatzako haurrek, Arrasateko Bibliotekak gonbidatuta, gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan hasita

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

Orain dela hiruzpalau urte Portugalgo Braga hirira kontzertu bat ematera joan zenean ezagutu zuen Enrike Solis Euskal Barrok Ensemble taldeko kideak cavaquinho izeneko instrumentua. "Gitarra txiki bat da, Hawaiiiko jatorria duen ukelearen antzerakoa, eta orain dela mende asko katedrala eraikitzen etorri ziren Bizkaiko langileek ekarri zuten musika tresna baten aurrekaria zela kontatu zioten. Familia bereko instrumentuak mundu osoan daudela ikusi zuen gero, hango museo batean. Etxera itzulitakoan istorioarekin txundituta, euskal instrumentu zahar hori berreskuratzea proposatu zigun", kontatu du Euskal Barrok Ensemble taldeko Miren Zeberio.

Gasteizen bizi den luthier batekin harremanetan jarri ziren ondoren, eta elkarrekin sortu dute Euskelelea izena jarri dioten tresna; hain justu, gaur Arrasaten eskainiko duten ikuskizunaren protagonista. "Enrike Solisek joko du tresna hori, eta alboan izango gara: Lore Zeberio eta Leire Berasaluze abesten; Iraide Ansorena perkusioan; Mixel Etxekopar txirulekin eta abesten ere bai; eta biolin barrokoarekin eta arrabitatekin ni", gaineratu du Zeberio.

Juan Kruz Igerabideren ipuina

Musikarekin eta ilustrazioekin jantzitako ipuin kontaketa da *Euskelelea*. "Itziar Saenz de Ojerrek kontatuko du Juan Kruz Igerabidek idatzi digun istorioa gaur Arrasaten. Euskal mitologiako pertsonaiekin musika tresna horren historia da ikuskizuneko kontakizuneko oinarria; istorio sinplea da, baina oso lasaia eta polita".

Liburu formatuan ere badute *Euskelelea*, non ipuina, ikuskizuneko abestien partiturak

eta Irrimarrak egindako ilustrazioak batzen dituzten; marrazki horiek agertokian erakusten dituzte kontakizuneari zehar.

Goikobalu Txikikoak, abeslari

Ikuskizuna tokian tokiko artistekin eskaintzea dute hasieratik helburu, eta, oraingoan, Goikobalu Txikiren atea jo dute. "Halako ikuskizunik egin bakoak ginen arren, materiala partekatu ziguten eta segituan engantxatu ginen proiektura. Aste Santu aurretik hasi ginen presaketekin, eta serio heldu diogu ondoren. Oso motibatuta egon dira denak. Ekainean, urtero moduan, ikasturte amaiera jaialdia egingo dugu, eta hori prestatzen ari gara, baina halako proiektuetan parte hartzea oso aberasgarria da guretzako. Esperientzia oso polita izan da denontzako", kontatu du Goiko-

GOIKOBALU TXIKI IZANGO DU EUSKAL BARROK ENSEMBLE TALDEAK LAGUN GAURKO EMANALDIAN



Goikobalu Txikikoak Miren Zeberiorekin eta Enrike Solisekin entseatzeko. E.B.

balu Txiki abesbatzako zuzendari taldeko Maialen Gonzalezek.

Gaurko ikuskizuneari 6 eta 13 urte bitarteko abeslariak izango dira kantuan eta tarteka dantzan ere bai. "Kantu oso politak dira, eurek normalean entzuten ez duten musika estilo batekoak. Zati batzuetan kantatu baino gehiago egingo dute, eta inprobisatu beharra izango dutela ere aurreikusita dute".

Publikoa ere kanturako prest

Oso gustura egiten duten ikuskizuna dela aitortu du Miren Zeberio: "Arriagan egin genuen estreinaldia formatu nahiko handian, eta tokian tokiko aretoetara moldatutakoak eskaini ditugu ondoren. Familia giroan gozatzeko ikuskizun polita da, askotariko osagaiak dituelako. Agertokian gaudenez gain, publikoak ere parte hartzen du; izan ere, abesten eta dantzan jartzen ditugu gurasoak eta haurrak; hala, momentu polita pasatzeko aukera paregabea da".

Gonbidapenak hartzea komeni

Dohainik da sarrera, baina aurrez gonbidapenak eskuratzea gomendatu dute antolatzaileek.

"Esperientziak gozatzeko ahalmena eman digu"

IÑIGO GOIKOETXEA GOZATEGI TALDEKO BAXU-JOLEA
San Andres auzoan izango da gaur Gozategi, 23:00etan

A. Aranburuzabala ARRASATE

32 urte bete ditu Gozategi taldeak, eta Asier Gozategirekin batera hastapenetatik kide da Iñigo Goikoetxea (Urdiain, 1972).

Arrasatera etortzeko "gogotsu" zaudete. Plaza berezia da?

Hala da, bai; azkenaldian inguruko herrietan izan garen arren, urteak dira Arrasatera etorri ez garelako; bada, ilusio berezia dugu gaurko emanaldirako.

Urte asko daroazue taularen gainean; osasuntsu dago taldea?

Bai, horixe. Urte oso eroak izan ziren hastapenekoak, handi samarra zen dena, ez genuen ondo dastatzeko aukerarik izan, eta urteetako esperientziak gozatzeko ahalmena eman digu.

Azkenaldian, gazte asko izaten dira erromeriatan dantzan.

Eta pozgarria da, zalantza barik! Pandemiaren ostean hasi ginen joera hori igartzen. Esango nuke azkeneko urteetan berreskuratzea dela festa egiteko modua. Pribilegiatu hutsak sentitzen gara gure musikaren inguruan aitona-amonak, gurasoak eta seme-alabak elkartzen direlako.

Zein da zuen sekretua?

Esango nizuke Gozategiren ezauzgarri nagusia kantak direla, ez



Iñigo Goikoetxea baxu-jolea. GOZATEGI

da sekula izan irudia zaindu duen talde bat. Talde batek horrenbeste urte jarraitzeko atzetik duen indarra uste dut kantuetan dagoela.

Ez da samurra izango erreperitorioa zehaztea, ezta?

Helburua plazan dagoen jendearekin komunikazioa sortzea da; hortaz, ez gara aspertzen *Kalan-break, Nork, Nori, Nor* edo *Korrikarena* abesten. Kanta bat komunikatzeko instrumentu bat da, eta publikoarekin komunikatzeko beste aukera bat ematen digute aldiro.

Herbehereetako Savage Beat taldea Irati Topalekuan

Askotariko kultura ekitaldiak egiten dituzte Irati Topalekuan, bereziki, musikari tokia eskainita; eta etzi, domeka, Herbehereetako Savage Beat taldea igoko da agertoki txikira, 19:00etan.

Punk, oi!, rock-and-roll eta garage musika estiloak uztartzen ditu dituzte Amsterdameko taldeak. "Euskal Herrian estreinakoz izango dira eta hiru kontzertu egingo dituzte asteburu honetan: Alonsotegiko Txiberri Festa jaialdian izango dira gaur, egubakoitza; Madrilgo Funhouse aretoan joko dute bihar; eta, bira borobiltzeko, Arrasateraino etorriko dira domekan. Sarrera dohainik da", azaldu dute antolatzaileek.

Doke antzerki taldearen eskutik udalekuak uztailean

Laster erakutsiko dute antzerki tailerretan ikasturtean zehar egindako lana Doke Antzerki Taldeko gazteek. "Gustura ari gara aurten ere, eta udan antzerkera hurbiltzeko aukera gehiago eskaini gura ditugu; hori horrela, 12 eta 17 urte bitartekoentzako antzerki udalekuak eskainiko dugu", azaldu du Maider Alzelai antzerki-irakaslea.

Astebete iraungo du udalekuak, uztailean letik 5era bitartean, 10:00etatik 13:00etara. Kulturola eraikinean duten lokalean egingo dute. Udalekuan izena emateko edo informazioa eskatzeko, idatzi lehenbailehen Dokekastaroak@gmail.com helbidera.

Aramaioko energia talde eragilea sortzeko bidean

Aramaioko Udala energia talde eragilea sortzeko pausoak ematen ari da eta taldea sortzeko abiapuntu gisa planteatu zuen martitzenean Debagoiena 2030eko Aritz Ameztegik gidatu zuen 'Aramaioko egoera eta aukera energetikoak' hitzaldia

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Duela zenbait aste, Aramaioko Udalak bilera egin zuen hainbat herritarrekin, herri mailan energiaren inguruko talde eragile bat sortzeko planteamendua egiteko. Energia talde eragilea sortzeko abiapuntu gisa proposatu zuen Udalak martitzenean Debagoiena 2030eko teknikari Aritz Ameztegik gidatutako Aramaioko egoera eta aukera energetikoak hitzaldia. "Bilera hartan zenbait pertsonarekin jarri ginen harremanetan, taldetxo bat elkartu ginen, azaldu zen zein den asmoa, eta hau izango litzateke bigarren pausoa Aramaioko emaitzak ezagutzeko. Hemendik aurrera proposatuko da talde horren baitan bestelako bilera batzuk edo lanketa espezifikoa egitea", zioen Gorbialdeko Ingurumen teknikari Jon Toñak saioaren hasieran.

Hala, Ameztegiren hitzartzearen ostean, Aramaioko alkate Asier Agirrek hartu zuen hitza eta adierazi zuen Udal Gobernuak ikusten duela Aramaion komunitate energetikoa sortu beharra: "Hori lantzen gabilta era kooperatiboan edo komunitatea bera bakarrik bezala. Bideratu egin behar da epe ertainean". Kiroldegiko plaka fotovoltaikoen proiektua martxan dago eta Aramaioko alkateak iragarri zuen aste honetan eguaztenean zela Energiaren Euskal Erakundera joatekoa, Aramaio Herri Eskolan eta kultur etxean biomasa galdarak jartzeko asmoarekin: "Gaur egun daukagun gas eta energia kontsumo datuekin eta inguruan hainbeste baso edukita, bada garaia pausoa emateko. Ezin diogu heldu duela 16 urte egin zen biomasaren proiektuari; orduan, atek jotzen jarraituko dugu energiari buruzko debate honekin. Zenbat eta jende gehiago etorri ekarpenak egitera, hobeto. Ongietorriak izango dira".



Aramaioko egoera eta aukera energetikoak hitzaldia martitzenean. I.A.A.

AUTOKONTSUMORAKO ARAMAIOK ENERGIA BERRIZTAGARRIA SORTZEKO DUEN GAITASUNA NEURTU DA

Aramaio aztertuz

D2030 ekimenean hainbat eragilek hartzen dute parte, eta horietako bat da Aramaioko Udala; ibarreko herrietako energia kontsumo eta isurketak aztertutako, Udal Sareak emandako datuekin, eta Aramaioko datuak izan zituen hizpide D2030eko teknikari Aritz Ameztegik. Hasieratik argi utzi zuen datuak ez direla "perfektuak", asko estimazioak direla eta datuak aztertzen hasitakoan atzeman zituztela hutsuneak.

2016 eta 2019 bitarteko azterketa egin dute herriz herri, eta ateratako ondorio batzuk dira hauek: Aramaion energia gehien kontsumitzen duen sektorea garraioarena da eta bigarrena etxebizitzarena. Isurketen garrantzia berezia daukela esan zuen Ameztegik. Alabaina, bertaratu zirenetako batzuk ez

zeuden ados. "Abeltzaintza ereduaren arabera, neurketa ezberdina da Aramaion; zelai-hektarea asko daude, eta zelai horiek CO2 xurgatzaileak dira. Ezin dugu abeltzaintzaz horrela hitz egin Aramaion daukagun ereduarekin, gure xurgatzaile baliok kontuan hartu gabe", zioen parte-hartzaile batek. Toñak azpimarratu zuen Udal Sarearen datuetan isurketak daudela, baina karbonoaren xurgapena ez dela kuantifikatzen: "Aldarrikatu behar zaie datuak ematen dizkigutenei, mesedez, hori kontuan hartzeko". Eskualdeko beste herriei alderatuz kontsumo elektrikoaren ehuneko "oso baxua" da, %13, eta etxebizitzaren %86k E, F eta G energia ziurtagiria daukate.

Azkenik, Aramaion zentratuz, beroa sortzeko aukera egokiena biomasa zela planteatu zuen, baina basoak izan arren zenbait eragozpen egon litezkeela. Argindarra sortzeko, berriz, eguzki energia fotovoltaikoak, eta ondorioztatu zuen, besteak beste, herriko teilatu egoki guztietan plakak jarriko balira, behar den argindarraren halako bost lortuko litzatekeela.

Udal Gobernuak mugikortasunari buruzko proposamenak jaso ditu

Adierazi du lanketak egingo dituela eta "behar diren pausoak" emango dituela planak "egingarri" bihurtzeko

I.A.A. ARAMAIO

Aramaioarrek mugikortasunari buruz dituzten proposamenak jaso zituen Aramaioko Udal Gobernuak joan den astean aramaioarrek egindako bileran. Hamabi lagun bertaratu ziren eta, besteak beste, bidegorria, bidezidorrak, auto erabiltzaileen ohitura txarrak eta autobus zerbitzua izan zituzten berbaak.

Bidegorriari buruz jasotako proposamenen artean, batik bat, Ibarrik Gesalibarrera bidegorria egin beharra aipatu zuten, egunerokotasunerako.

Autobus zerbitzuari dagokionez, bertaratu zirenek baloratu zuten astegunetan "zerbitzu egokia" dagoela, baina Gasteiz zerbitzuan aldaketa egin aurreko ordutegia berreskuratu beharra dagoela. Asteburuetan Arrasatera joan-etorriendako zerbitzu gutxi dagoela eta auzotako geldialdiak berreskuratu beharra ere adierazi zuten.

Egun hartako proposamenak jasota, Udalak adierazi du lanketak egingo dituela eta "behar diren pausoak" emango dituela planak "egingarri" bihurtzeko.

Eskaera egin behar da GOIENA aldizkaria etxean jasotzeko

Goienakide ez diren aramaioarrek egin beharko dute eskaera aldizkaria etxean jaso gura badute

I.A.A. ARAMAIO

GOIENA aldizkariaren banaketa-zerbitzua hobetzeko helburuarekin, Debagoieneko gainerako herrietako sistema bera ezarriko da Aramaion ere. GOIENA aldizkaria etxean jasotzea doakoa izango da aurrerantzean ere, baina jaso gura duenak eskaera egin beharko du. Horretarako, bost bide daude: Whatsapp edo Telegram bidez, 688 69 00 07; harpidetza@goiena.eus helbide elektronikora idatzita; 943-25 05 05 telefono-zenbakira deituta; udal etxean eskaera-orriak beteta;

edo labur.eus/aramaio-goiena atarian. Goienakideek, *Puntua* aldizkaria etxean jasotzen dutenek, ez dute eskaerarik egin behar: orain arte bezala, egubakoitzero GOIENA eta *Puntua* aldizkariak jasoko dituzte.

Eskaera egiteko hilabete dago. Ordura arte, orain arte moduan egingo dute banaketa, baina, ostean, eskaera egin dutenek bakarrik jasoko dute GOIENA aldizkaria. Aldizkari horrekin batera *Puntua* aldizkaria jaso gura duenak eskaera-orrian bertan adierazi behar du.

OHARRAK

Laburbira domekan

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, hilaren 28an, 19:00etan, Laburbira film laburren emanaldia egingo dute kultur etxean.

Lorabari Asteko ikastaroak

Maiatzaren 7tik 9ra ikastaroak antolatuta dituzte eta ikastaro bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko da, egunean bertan. Plazak mugatuak dira. Izena emateko: 665 70 21 92.

San Martin jaietako kartel lehiaketa

Maiatzaren 2ra arte luzatu dute sanmartinetako kartelak aurkezteko epea. Edonork har dezake parte eta bi lan aurkeztu ahal dira pertsonako. Informazioa: www.aramaio.eus.

30 urteko ibilbideari begiratu, aurrera indartsu jarraitzeko

Loramendi elkarteak erakusketa zabalduko du datorren astean udaletxe zaharreko atarian; argazkien bidez, egindakoaren eta izandakoaren berri emango du

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Arrasateko AEDk goldatutako lurrean Beinke elkartearen hazia erein eta Loramendi ikastolaren ongaria botata ernaldu zen Joakin Arana Loramendi elkarte, 1993ko abenduan, Beñan jaiotako poetaren izena hartuta. Ordutik, lore eta fruitu asko eman ditu elkarteak, eta, 30 urte geroago, egindako ibilbidearen berri eman gura diete herritarrei. Horretarako, erakusketa zabalduko dute datorren astean. Udaletxe zaharreko atarian jasoko dituzte, besteak beste, ibilbide horren lekuko izan diren dokumentuak, argazkiak eta idatziak; eta elkarteak argitaratutako liburuak ere eskuragai izango dira. Bulegoak duen ordutegia izango du erakusketak ere: goizez, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsaldean, astelehen eta eguenetan 15:30etik 19:30era eta martitzen eta eguaztenetan 14:00etatik 16:00etara.

Beinke eta Loramendi ikastola

Euskararen egoerarekin kezkatuta 1983an sortu zuten AED elkarte Euskal Herriko hainbatentzat izan zen erreferentzia; aretxabaletar batzuek ere bat egin zuten ekimenarekin. Han egiten zebiltzan lana eredu hartuta, lau urte geroago, 1987 inguruan, Beinke kultur elkarte eratu zuten Aretxabaletan. Jasone Gorroñok, talde haren sustatzaileetako batek, ondo gogoan du: "Asanblada batzuk egin ziren eta jende mordoa elkartu ginen. Han erabaki genuen elkarte bat sortzea euskararen alde lan egiteko, baita zein izen jarri, zuzendaritza batzordea zeintzuek osatu eta zein azpitaldeak sortu ere".

Giro hartan, 1968an sortutako Loramendi ikastolak sare publikoan sartzeko erabakia har-

tu zuen; 1993ko maiatzean izan zen hori, eta abenduan batzar nagusia egin zuten, ikastolaren ondasunekin zer egin zehazteko. Honela jaso zuen *Aretxagazeta* herri aldizkariak bilera hark emandakoa: "Alde batetik, Loramendi Ikastolaren bazkideak daude, euskararen aldeko lan handia egindakoak; eta, bestetik, herrian beste kolektibo bat dago euskararen alde diharduena: Beinke. Horrela sortu zen elkarte biak bat egitearen ideia. Elkarte bietan aztertu zen proiektua eta oso ondo iruditu zitzairen ideia berria. Horrela, euskararen alde lanean ibilitako bi belaualdik bat egingo lukete".

Hala, 1993ko abenduaren 10ean sortu zen Joakin Arana Loramendi kultur elkarte. Bi taldeen bat egitea eta elkarte berri horren sorrera Beinke-Loramendi dantzarekin irudikatu zuten urtebete geroago, 1994ko San Migel jaietan. Musika Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak konposatu zuen eta dantza Aretxabaletako dantza taldeak prestatu. Kantuaren letraren egileak, oster, Jon eta Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaia bertsolariak izan ziren. Estreinaldiak jende asko batu zuen; besteak beste, dantzariak, Aretxabaleta abesbatza, txistulariak eta beste zenbait musikari; eta gaur egun ere plaza lepo betetzen da hori dantzatzeko. Ondoren, Loramendi elkartearen lokala inauguratu zuten, Pagaldaixenean, Durana eta Mitarte kaleen artean.

'BERBARI' HITZARMENAK 25 BAT ELKARTEREN KONPROMISOA JASO ZUEN

'Berbari' hitzarmena

Loramendik abian jarritako ekimenak asko dira, eta guztiek izan dute helburu euskara sustatzea aretxabaletarren artean. Elkarte barruan azpitaldeak sortu zituzten funtzionamendu egokirako: Kultura, Tril emakume taldea, Haurren taldea eta Sentsibilizazio taldea. 1995eko martxoan, hain zuzen ere, azken azpitalde horrek, Udalarekin elkarlanean, *Berbari* hitzarmena sinatu zuen herriko 25 elkarterekin. Kirol, kultur zein gizarte esparruetan zihardutenen konpromisoa jaso zuten euskararen erabilera areagotzeko barne funtzionamenduan zein kanpora begira antolatutako ekintzetan, eta Udalean ordezkariak zuten alderdi politiko guztiek -EAJ, EA, HB, PSE-EE- ere oniritzia eman zioten. 1997an, *Berbari* hitzarmenaren bigarren



Loramendiko eta Udaleko ordezkariak *Berbari* hitzarmena sinatzen. ARETXAGAZETA

fasea etorri zen, eta merkatariekin ekin zioten lanketari; itzulpengintza, material sorkuntza eta aholkularitza eskainita euskaraz funtzionatzea izan zen helburua.

Tril taldeak, berriz, hitzaldi eta lan-saio asko antolatu zituen eta sanmigeletako taloen ardur hartu zuen.

Haurren taldeak, oster, 1994ko abenduan ludoteka jarri zuen abian, aisialdian ere euskaraz jarduteko umeek. Hiru hilabeterako proba egitea erabaki zuten eta Otalora kalean zabal-

du zuten, Jasone Garziaetxabe hezitzailearen aginduetara.

Ume eta gaztetxoei begira, Beinkek 1988an sortu zuen literatura lehiaketari Loramendik jarraipena eman zion, eta aurtan, 28.ez egingo dute.

Hainbat liburu

Hasiera hartan dena zegoen mar txan jartzeko, eta ideiak bor-bor; hala, hainbat liburu iritsi ziren. 1995eko irailean, Joakin Arana *Loramendi* poetaren olerkien bilduma berrargitaratu zuten; izan ere, horren oinarria izan

Zein oroitzapen duzu?



JON ANDER LOIDI
DINAMIZATZAILE OHIA
(1994-1998)

"Pagaldaixenien hasi ginen, eta gero, udaletxe zaharrera aldatu. Talde mordotxo zegoen eta lan asko egin zen: *Loramendi*-ren poesia liburu argitaratu, ludoteka zabaldu, merkatariekin hitzarmena... Herri ekimenak ezinbestekoak dira euskarak espazioak irabazten eta mantentzen jarrai dezan".



LEIRE OKARANTZA
DINAMIZATZAILE OHIA
(1999-2001)

"Bereziki, pertsona askoren mugimendu-gunea zela dut gogoan, eta merkatariekin lan asko egin genuela. Herri mugimenduaren eragile nagusienetako bat izan da eta euskararen komunitatea osatzen dugunok indartu egin gaitu. Aurrera begira ere ezinbesteko elkarte da".



IKER URKIA
PRESIDENTE OHIA
(2004-2014)

"Loramendi modernoagoa irudikatu nahi izan genuen logoa aldatuta eta *Itxi atia zabalik* eta *Bueltan dator* leloekin. Auzoko proiektuari hasiera eman genion eta toponimiako liburuak argitaratu genituen. Oraindik ere lanean jarraitu behar da, arreta kendu gabe".



Beinkeren eta Loramendiren 25. urteurrena ospatzeko elkartutako jendetza, 2011ko abenduan. GOIENA

zen Aita Yurre fraide kaputxinoak hainbat aldizkaritan, bereziki, *Zeruko argia*-n, argitaratuta zeuden *Loramendi*-ren lanak bilduta 1960an kaleratutako liburua. Hala, *Olerkiak* izeneko poema bilduma berria osatu zuten, idazlearen bizitzako pasarteak jasota.

Urte hartan bertan, Aretxabaletako idazkera liburuxoa ere argitaratu zuten. Jon Sarasuak, Ane Loidik eta Jon Antxiak osatu zuten eta Aretxabaletako euskara erabilita idazteko irizpideak jaso zituzten han, besteak beste.

Ez dira izan liburu bakarrak. Geroago sortu zen Toponimia taldeak hainbat ibilaldi historiko antolatuta zituen Aretxabaleta inguruetako parajeak eta toponimia ezagutzera emateko, eta ibilbide haiek guztiak liburuan jaso zituzten 2022an: *Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio*. Julen Abasolok eta Gorka Madinabeitiak egindako lan mardula izan zen.

Tokiko komunikabideak

Tokiko prentsa ere hasi zen sortzen 80ko hamarkada bukaeran, eta *Arrasate Press* izan zen aitzindaria. *Aretxagazeta* herri aldizkariak 1989an ekin zion ibilbideari, Andarto kolektiboa izeneko taldetxo baten eskutik. Hiru hilabete behin argitaratzen zen formatu handiko aldizkari hark 1991ko otsailean esan zuen agur, eta, urtebete geroago, *Aretxagazeta* kultur elkarteak sortu eta izen bera zuen hamaibostekaria argitaratzeari ekin zioten. 1997an, herriko tehebista sortzeko proiektua mahai gaineratu zuen Loramendik, "Aretxabaletan egina eta bertako gaiak landuko zituena" helburu, eta *Aretxagazeta* bat egin zuen ekimenarekin. Hala, erabaki

zuten bi elkarteek bat egitea eta Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak eratzea. 2000. urtean, ostera, bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak sortu zen, eskualde osorako asetikari bat eta tehebista bat izateko asmoarekin. Hala iritsi ziren *Goienkaria* –gaur egun GOIENA aldizkaria–, urte hartako abenduaren lehen, eta Goiena tehebista.

Ondo errotutako zerbitzuak

Elkarte barruan sortutako talde haiek moldatzen joan dira urteekin; hala, kultura, aisia eta euskara arloetan kokatu dituzte proiektuak azken urteotan, eta horien baitan ondo errotutako zerbitzuak daude. Umeen aisiari begirakoak dira ludoteka eta Loratu; azken hori, bereziki

udalekuei bideratuta. Euskaren erabilera eta hurbiltzea helburu dutenen artean nabarmentzekoak dira bi: herrira iritsi berri diren umeendako hizkuntza errefortzu eskolak, batetik, eta aniztasunaren bueltakoak, bestetik: Barriketan eta Auzoko taldeak. Eta jarduera orokorren barruan, Toponimia eta Kultura taldeak daude.

2023ko ekainean berri zuten Loramendiko zuzendaritza batzordeak, Lierni Zangitu presidentea buru dela, atzera begiratu gura du, aurrera egiteko indarrak eskuratzeko. "Abenduan lan saio bat egin genuen, norabidea argitze aldera, eta erronken artean zehaztu genituen euskaren erabilera sustatzen jarraitzea, elkarteak herrira zabaltzea eta herritarrengana gerturatzea eta oraingo zerbitzuei osasuntsu eustea".

Korrontzi taldeak folk doinuekin beteko du Arkupe, bihar

Bizkaian sortutako Korrontzi folk taldeak hogeitau urte bete ditu, eta, hori ospatzeko, *Korrontzi 20* izeneko lana prestatu du; hamabigarren diskoa, hain zuzen ere. Aurkezpen birari ekingo dago eta Aretxabaletan ere egingo du geldialdia: bihar, zapatua, izango da, 20:00etan, Arkupen –sarrerak online eros daitezke 5 euroren truke–.

Agus Barandiaran trikitilariak sortutako taldeak hogeitau kolaboratzaileekin egindako hogeitau abesti jaso ditu azken lanean; horien artean lagun izan dituzte Gozategi, ETS taldeko Inigo Etxezarreta, Luar Na Lubre (Galizia) eta Phil Cunningham (Eskezia).

Trikiti doinuekin oinarritutako kontzertua izango da, baina doinu tradizionaleri ukitu moderno emango diete, ohi legez, beste instrumentu batzuen laguntzarekin; mandolinarekin, esaterako.

Literaturke azoka eta haikuen irakurketa egingo dute gaur

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen martitzenean, apirilaren 23an, eta, hori gogoan, Udaleko Kultura Sailak literaturke azoka antolatu du. Hainbat egunetan jaso dituzte liburuak Arkupen, eta gaur, egubakoitza, Herriko Plazan ikusgai egongo dira trukatzeko, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Egunean bertan ere eraman ahal izango

dira azokan utzi gura diren liburuak, eta ale bakoitzarekin txartel bat emango dute antolatzaileek, beste bat hartzeko trukean.

Era berean, literaturari keinu egite aldera, haiku erronka deitu dute. Japoniar jatorriko poema txikiak dira haikuak, eta 30en bat jaso dituztela iragarri dute deitzaileek. Horiek guztiak irakurriko dituzte gaur, 18:00etan, Arkupen, eta erronka horretan parte hartu dutenen artean opariak zozketatuko dituzte gero.

Literatura Astean murgildu dira Kurtzebarri eskolan

Literaturari eskaini diote astea Kurtzebarri eskolan, eta helburua haur eta gazte literaturako Euskadi Sariak –batzuk– ezagutaraztea eta hurbiltzea izan da. Maila bakoitzak liburu bat izan du irakurri eta lantzeko, eta egindako lanekin liburutegia apainduko dute. Lan horiek apirilaren 29an eta 30ean ikusi ahal izango dira.

OHARRAK

Disko-festa

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako disko-festa izango dute umeek gaur, 18:00etatik 19:30era, Ilargi plazan.

Andramaixak: bilera


Herriko jai nagusiak antolatzeko hirugarren asanblada egingo du Gazte Mugimenduak bihar, zapatua, 17:00etan, udaletxe zaharrean.

Sarek eta Etxeratek deituta, batzarra eta elkarretaratzea

Aretxabaletako Sarek eta Etxeratek batzarra egingo dute gaur, egubakoitza; udaletxe zaharrean izango da, 18:30ean. "Konponbidearen bidean emandako pausoak" aztertuko dituzte, eta *Gari Atxabaltara* dinamikaren inguruko azalpenak konpartitu. Ondoren, 19:30ean, azken ostiraleko elkarretaratzea izango da, Herriko Plazan.

Bedoñako poeta gaztea

Joakin Arana Ezpeleta *Loramendi* Bedoñako –Aretxabaletako auzoa orduan– Mendibitza baserrian jaio zen, 1907ko urtarrilaren 27an; zortzi anaia-arrebaren artean hirugarrena izan zen. 1920an Altsasuko kaputxino fraideengana joan zen Filosofia ikasketak egitera, eta gaztelaniaz ezer ez jakitiek euskara ia galtzeraino pasatu zuen, baina hori akuilu izan zen ama hizkuntzari heltzeko berrero. 1925eko abuztuan fraide kaputxino izendatu zuten Zangozan. Haren lanik aipagarrienak, 60 inguru, Lizarran zegoela idatzi zituen; 1930eko udazkenean argitaratu zituen, hain zuzen ere, *Zeruko argia*-n. Hainbat sari jaso zituen; 1932an Hernaniko Oleri Egunean lehen saria, esaterako. 1933ko martxoaren 23an hil zen, peritonitisak jota, Donostian, abade izateko 23 egunen faltan.



Joakin Arana Ezpeleta. LORAMENDI

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Arlo batzuetan aurretik doaz txinatarrak"

ARITZ ATXAGA PEREA FABRIKAZIO MEKANIKO DISEINUKO TEKNIKARIA

Shanghain (Txina) dago Atxaga, Mondragon Assemblyko langile gisa; lau asterako joan da, eta haren bigarren aldia da; maiatzaren 4an bueltatuko da

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Aritz Atxaga Perea (Eskoriatza, 1990) lan esperientzia aberasgarria bizitzen ari da Shanghain (Txina). Izan ere, Aretxabaletako Mondragon Assembly enpresako arduradun mekanikari gisa dabil han lanean. Haren lanak hainbat herrialde ezagutzeko aukera eman dio, eta argi du orain arte egondako gustukoena Shanghai dela.

Zer ari zara egiten Shanghain?

Apirilaren 8an hartu nuen hegaldia Zurichera (Suitza), eta handik Shanghaira; hamalau-hamabost orduko bidaia izan zen, gutxi gorabehera, eta gure filialera joan naiz, makinaren ezagutzak gure lankide txinatarrei erakustera. Labur esanda, gure makinak dauzkaten azken teknologien ezagutzak erakustera etorri naiz hona; bai elektronikoki eta bai mekanikoki.

Zenbat denborako egonaldia egingo duzu? Horrez gain, zer egiten duzu egunerokoan?

Shanghain lau aste egingo ditut. Aurreikuspenen arabera, maiatzaren 4an bueltatzea da asmoa, baina ikusiko dugu. Egunerokoari dagokionez, berriz, gure lankide txinatarrei makinaren ezagutzak irakastera eta azaltzera etorri naiz, eta horretan dihardugu. 08:00etatik 17:00etara egiten dugu lan, baina 06:30ean irteten gara hoteletik; izan ere, ordu bateko bidaia dugu gure enpresara. Kunshan probintzian dago, Qiandeng herrian.

Luze doa egonaldia?

Hemengo bizitza oso frenetikoa da, eta oso azkar pasatzen da denbora. Euskal Herriarekiko sei orduko diferentzia dugu, eta bitxia egin zitzaidan jakitea kontinente osoan ordu bera dutela; gure kasuan, Portugalera hurbildu eta ordu aldaketa dugu. Egunerokoan murgilduta, eta etxekoez eta lagunez asko gogoratu arren, gustura nago Shanghain.



Aritz Atxaga, The Bund -Shanghaiko erdigunea- atzean duela. ARITZ ATXAGA PEREA

"GURE LANKIDE TXINATARREI MAKINAK AZALTZERA ETORRI NAIZ SHANGHAIRA"

Kultura eta ohitura ezberdinekoak dira; ohitu zara horretara?

Hemen dena da bitxia guretzat: haien bizimodua, janaria, gurekiko jarrera oso abegikorra dute... Sekula ikusiko ez zenukeena ikusten da hemen, eta oso dibertigarria da, haien kultura erabat ezberdina delako gurearekin alderatuz. Hori horrela, denak txunditzen gaitu. Kanpotik ez eman arren, oso lasai bizi direla esango nuke.

Ikusi edo bizitako bitxikeriak?

Shanghaik 24 milioi biztanle ditu, baina oso hiri isila da, ez dago zaratarik. Sekulako trafikoa dago, baina %70 auto elektrikoak dira. Beraz, ez da gure lurraldeko hiri batean entzun deza egun moduko zalapartarik. Horrez gain, kalean argazkiak eskatzea ere ohikoa da. Hau da, gurekin nahi dituzte argazkiak; kar-kar-kar. Diru fisikorik ere

ez da ikusten, ez dute erabiltzen, dena mugikor bidez ordaintzen dute. Gurekin alderatuz, arlo askotan askoz aurreratuagoak dira. Eraikuntzari dagokionez ere sekulako azpiegitura dago hemen, dena oso handia da, eta harritu ninduen lehenengo gauza hori izan zen.

Ez duzu lehenengo aldia han, ezta? Zenbat denbora egon zinen aurrekoan?

2022an izan nintzen Shanghain lehenengo aldiz. COVID garaian izan zen, eta hiru hilabete egin nituen hemen. Herrialdera sartzeko hamar eguneko konfinamendu bat egin behar izan nuen, eta protokolo oso zorrotza jarraitu. Denboran atzera eginez, sinestezina dirudi...

Laster bueltatuko zara herrira; aurrera begira, etorkizunean baduzu asmorik berriro hara joateko?

Hori ikusteko dago, batek daki... Bikotekidearekin batera oporretan seguru bueltatuko naizela. Oso aberasgarria izaten ari da nire esperientzia hemen; ez soilik lan eremuan, baita pertsonalki ere. Izan ere, elkarriketa osoan esan dudana moduan, gauza asko daude ikusteko, merezi du.

Larrain dantza egiten ikasteko saioak izango dira maiatzean

Interesdunek hilaren 30era arte dute aukera izena emateko, 636 78 59 71 zenbakira 'whatsapp'-a idatzita

I.B. ESKORIATZA

Beste urte batez, Arizmendi Ikastolak antolatzen duen Ferixa Egunean herritarren aurrean larrain dantza egiten ikasteko saioak egingo dituzte maiatzean -martitzenetan-. Bi urtez egin dute eskoriatzarrek larrain dantza Ferixa Egunean, eta aurrez dantza ikasteko aukera izan dute interesdunek. Bi urtez jarraian egindako hitzorduan izandako arrakastaren ostean, beste urte batez ere egin nahi dute, lehenengo edizioan esan moduan, "Ferixa Egunean larrain

dantza egitea errotzeko eta, bide batez, Eskoriatzan antolatzen diren bestelako hitzorduetan ere dantza herrikoia egiten dakiten herritarrek izan daitezten".

Idoia Lahidalga dantza irakastearen gidaritzapean, maiatzaren 7an, 14an, 21an eta 28an izango dira saioak -hasiberrientzat-, 19:00etatik 20:00etara bitartean, Joseba Inurrategi frontoian. Izena emateko, 636 78 59 71 telefono-zenbakira deitu edo *whatsapp*-a idatzi daiteke. Maiatzaren 21ean eta 28an, berriz, azken errepasoa egingo dute.



ANE ARRIETA

Sagardotegira, urtero moduan

Ohitura onak galdu barik, beste urte batez antolatu dute Eskoriatzako gazteek sagardotegira irteera. Sagardo denboraldia amaituta, azken hiru urteetan moduan, Eskoriatzako hainbat kuadrillatoko gazteak batu dira hitzordura; goizean poteoa egin, Hernaniko Iparragirre sagardotegian jan eta gero parranda egin zuten bertaratuek.

Eskoriatzako elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketa, abian

Herrigunetik Elizoste, Egokiena, Dorleta eta Errementari (batzokia) arituko dira elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketan, eta elizateetako bakarra arituko da, Apotzagako Auza Etxe; finala ere han egingo dute, maiatzaren 18an. Dagoeneko hasi dira elkarteetan mus partidak jokatzen, eta baikoitzetik bi bikote sailkatuko dira finalerako.

OHARRAK

Zinema: 'Bizkarsoro'

Domekan 19:00etan proiektatuko dute Josu Martinez zinemagilearen filma, Zaldibar antzokian. Sarrera doakoa izango da.

Liburu azoka

Maiatzaren 30era arte, bigarren eskuko liburu azoka egingo da udal bibliotekan. Liburu bakoitza euro batean egingo da salgai.

Gazteen presentzia indartzeko eguna, gertu

Gazte Eguna ospatuko dute zapatuan Eskoriatzan, Itzartu Gazte Asanbladak antolatuta. Jaiaren bigarren edizioa da, eta egun osoko programa antolatu dute; taldea eratu zenean ezarritako balioak transmititzeko eta ondo pasatzeko eguna izango da, besteak beste

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Itzartu Gazte Asanbladak antolatutako jaia egingo dute zapatuan, bigarren urtez, Eskoriatzan. Duela bi urte sortu zen taldea, gazteak kalera irteteko, elkarren artean ezagutzeko, elkartzeko eta herrian bertan geratzeko helburuarekin. Hala, lehenengo edizioak izandako arrakastarekin, helburu berarekin antolatu dute aurtengoa ere.

Balio ugari eta aldarrikapenak

Euskara, feminismoa eta gazteen presentzia izanda Itzartu Gazte Asanbladaren ardatza, oinarri horien araberrako festa eguna gura dute izatea Gazte Eguna. "Taldea sortu zen herriko jende askok kanpora egiten zuela konturatu ginelako, gazteon artean ere ez ginelako askorik harremantzen, ezta elkar ezagutzen ere zenbait kasutan, eta taldea eratu genuenetik zenbait ekintza egin ditugu horren bueltan. Gazte Eguna izan da egindako ekintzetatik azpimarragarriena, eta nahi duten guztiak gonbidatuta daude egun eder horretaz disfrutatzeraz", adierazi du Leire Lezetak, Itzartu Gazte Asanbladako kideak.

Muralarekin logoa aurkeztu

Egitarauari erreparatu, talde-lana sustatzeko mural-margotze parte-hartzailea egingo dute. Olaia Benito eskoriatzarrak diseinatutako marrazkia da egingo dutena, eta marrazkiaren erdigunean Itzartu Gazte Asanbladaren logoa izango dena geratzeko da islatuta. Horma-irudia Santa Marinarin egingo dute, euren lokalaren sarreran. "Bozetoa egin-

100 LAGUN INGURU BATUKO DIRA JOSEBA IÑURRATEGI FRONTOIAN BAZKALTZEKO

da dago, baina azken ukituak falta dira. Taldearen ideia nagusiak islatu nahi izan ditugu: gure indarra, gure balioak... muralean agertuko diren banderatzu batzuen bitartez. Eskoriatzako elementu batzuk ere izango ditu,

Gazte Eguneko egitaraua

Zapatua, apirilak 27

- **11:00** Mural-pintaketa parte-hartzailea egingo dute Santa Marina plazan.
- **13:00** Triki-kalejira Fernando Eskoriatza plazan hasita, tabernaz taberna.
- **15:00** Gazte bazkaria frontoian: makarroiak okelarekin eta hanburgesak saltsarekin.
- **20:00** Kontzertuak plazan: Lizartxo erromeria eta Oihu.
- **00:00** Pintxada kolektiboa Inkernu tabernan.

erdian logoa, eta baita esaldi bat ere. Duela gutxi egin genuen logo berria, eta logo berria estreintzeko hitzordua ere izango da", adierazi du Benitok.

Kontzertuekin lotuta

Ondoren, triki-poteoa egin eta bazkaria 15:00etan izango dute frontoian. "100 lagun inguru batuko gara. Esan beharra dago bazkaria Eskoriatzako komertzio batean eskatutakoa dela, herriko komertzioei ere balioa emateko", adierazi du Aitzol Zubizarretak, Itzartuko kideak. 20:00etan, kontzertuak izango dira: Oñatiko Lizartxo erromeria eta Oihu taldea, Eskoriatza eta Aretxabalako musikariek osatutakoa. "Zaturako eguraldi iragarpena ez da hain ona, eta asmoa da plazan jartzea eszenatokia. Hala ere, eguraldi txarra egiten badu, kontzejupean egingo ditugu kontzertuak, iaz moduan", azpimarratu du Zubizarretak. Amaitzeko, Inkernu tabernan pintxada kolektiboa izango da. Antolatzailerek adierazi dutenez, lekua dago musika jarri nahi duen edonork izena emateko. Horretarako, @itzartueskoitza Instagram kontura idatzi daiteke.



Itzartu Gazte Asanbladako zenbait ordezkari asteon, kontzejupean. IMANOL BELOKI



Udaberri Egunean aritutako haurrak, loreak landatu berri. GUREL GURASO ELKARTEA

Loreak landatu eta habiak jarri dituzte Udaberri Egunean

Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatutako ekimenean, txoriendako bost habia ipini zituzten hainbat txokotan

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Udaberri Eguna ospatu zuten apirilaren 21ean, joan den domekan, Leintz Gatzagan. Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatutako jaiaren helburua udaberriari ongietorria egitea izan zen, eta, horretarako, zenbait ekintza egin zituzten gurasoek haurrekin batera ondo pasatzeko asmoz.

Margaritak landatu zituzten

Herriko bost haur batu ziren, gurasoek lagunduta, eta loreak jarri zituzten herriguneko loreontzietan eta Dorlapean -Gatz Museoa, zubiaren azpiko aisialdigunean-. "Margaritak landatu ditugu herriguneko zenbait tokitan dauden loreontzi handietan. Horrekin batera, aisialdirako eremu gisa auzolanean egindako Dorlape gunean, Gatz Museoko zubiaren azpian, erreka alboan ere zenbait lore lan-

datzeko aprobetxatu genuen. Lanak egiteko, gainera, belar txarrak kentzeko ere aprobetxatu genuen hitzordua...", adierazi du Ainhoa Barandiaranek, Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideak.

Habiak zuhaitzetan jarrita

Herriguneko zenbait zuhaitzetan egurrezko habiak jartzeko ere aprobetxatu zuten Udaberri Eguna, bertaratutakoek. Guztira, lau habia jarri zituzten, eta, txorientzako eremuak izango diren etxetxoak jartzeaz batera, proposamena ere luzatu nahi izan dute Gureletik. "Herrigunean lau zuhaitzetan jarri ditugu habiak, eta, asmoa da beste herrietatik datozen haurrek aurkitzen dituzten. Bilatzean txoriren bat badago barruan zortea izango dute...", adierazi du Barandiaranek. Egunari amaiera emateko mokadutxoak egin zuten.

Maiatzaren 14an aurkeztuko dute Gatz Eguneko egitaraua

Maiatzaren 19an ospatuko da aurten Gatz Eguna, eta, programaren xehetasun guztiak emateko, maiatzaren 14an, martitzena, prentsaurrekoa egingo dute Gatz Museoa. Aurtengo edizioa zortzigarrena izango da, eta, herrian errotu den festa izanda, Leintz Gatzagako produktu izarrari balioa emateko eguna izango dute.

Gatz Eguneko egitarauari dagokionez, antolatzailerek aurreratu dutenez, gatzaren eta bertako produktuen azokak ez du hutsik egingo; mendi ibilaldia ere egingo dute, urtero moduan; eta Gatz Museoa bisita gidatuak eskainiko dituzte, euskaraz zein gaztelez. Kantu bazkaria ere antolatu dute Gatz Eguna borobiltzeko, eta Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak musikaz giroa afaria egingo dute. Afarirako txartelak Labidean jarriko dituzte salgai.



Joan den astean hasi zituzten Zurrategiko kiosko lanak; irudian, eguazteneko –apirilak 23– egoera. A.R.K.

Kioskoko lanak, erabilera zabalagoa izan dezan

Kioskoa berritzeko lanak hasi ditu Udalak, egiten diren ekintzetarako moldagarriagoa izan dadin; berezitasuntzat, Igeltzek adierazi du ekintzak bi alboetara egiteko aukera izango dela. Uztailaren 13rako amaitu nahi dituzte lanak, herriko jaiak hasi aurretik

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Itxura berria izango du Zurrategiko kioskoak, berritze lanei ekin baitie Udalak, 110.000 euroko aurrekontua zehaztuta. Era horretan, espazioa erabilgarriago bihurtu nahi du, Aritz Igeltz Hirigintza zinegotziak jakinarazi duenez: "Proiektua aurrera eramatea erabaki dugu, herrian

behar bat baitzegoen kioskoa erabilera anitzagokoa izateko, egiten diren ekintzei-eta probetxu handiagoa ateratzeko; hori izan da helburua".

Lan horiek egiteko Goizperren laguntza izan du Udalak, eta Tekniber Ingeniaritza enpresak egin du proiektua, udal aparejadorearekin. Horrez gain, Udalak azaldu du kontratisten artean

Zabalo Igeltsaritz, Solberg Galdaragintza, Gezadekor Margoak eta Toldos Segura daudela.

Askotariko erabilerak

Erabilera "anitzagoak" izango ditu, beraz, kioskoak aurrerantzean, hori baita xede nagusienetako bat: egiten diren ekintzetarako moldagarria izatea. Horretarako, ebaki bat egingo



Kiosko berriaren itxura, izango dituen aukera guztiekin. ANTZUOLAKO UDALA

Kioskoaren askotariko aukerak

Kioskoko egungo eskailerak zabaldu egingo dituzte, eta gainean oholta bat puntualki jartzeko aukera izango du; teilatuan, berriz, toldo hedagarri bat. Alboetan barandak jarri eta kendu ahalko dira, eta baita toldo bertikal batzuk ere.

dute egun eskailera dagoen eremuan, eta, hala, plazarantz hamabi metroko ahoa duen agertoki bat geratzen da; are gehiago, eskaileraren gainean puntualki oholta bat ere instalatzeko aukera egongo da, gainean toldo hedagarri bat jarrita estalita gera dadin.

Horrez gain, jardinerak kendu eta barandak izango ditu perimetro osoan kioskoak, jarri eta kentzekoak. Baina bada gehiago: "Toldo batzuk ere izango ditu, kontzertuak-eta egiten direnean erabiltzeko; halere, kioskoaren gauza berezietako bat izango da alde batera zein bestera egin ahalko direla antolatutako ekintzak".

Bukatze-epaia

Lan horien bukatze-epari dagokionez, apiriletik uztailera bitartean egitea aurreikusten

du Udalak, eta, horrela, uztailaren hasierarako erabilgarri egotea. "Espero dugu uztailaren 13rako egina egotea, gustatuko litzaziguke ordurako bukatzea; jaiak baino astebete lehenago, hain justu. Horrela, egun horretan zerbait berezia egiteko aukera izango genuke herriko taldeen parte hartzearekin: musikariak, antzerkilariak, dantzariak eta abar".

Egin beharrekoak aurreikusitako moduan eginez gero, beraz, herriarrek jaietarako motorrak berotzeko aukera izango dute, ziur aski, astebete lehenago.

110.000 EUROKO AURREKONTUA ZEHAZTU DU UDALAK, ETA GOIZPERREN LAGUNTZA IZAN DU

Leire Galeano txapeldun

Ados pilota elkarteko binakako txapelketako finala jokatu zen apirilaren 20an udal pilotalekuan, eta Leire Galeano pilotari antzuolarrak eskuratu zuen txapela, Ainhoa Ruiz de Infanterekin batera. Maddi Barrocal eta Naroa Agirre izan zituzten aurkari, elite mailan, eta partidu oso lehiatua izan zen hasieratik; 17-22 bukatu zen partida.



IMANOL SORIANO

Olatz Salvador izango da bihar Torresoroan, Mattin Saldiasekin

Olatz Salvador musikari donostiarra Torresoroa aretoko oholta gainean izango da bihar, apirilak 27, arratsaldeko zazpitan, kontzertua emango baitu; hala ere, oraingo honetan ez da musika banda osoarekin arituko, baizik eta duo formatuan; hain justu, Mattin Saldias gitarrari jotzaile zarauztarra izango du alboan, taldekide ere badue-

na aldi berean. Hala, interesa duen orok Bibe plataforman eskuratu dezake sarrera, eskuragarri baitaude oraindik: hamar euroko prezioa du ohiko sarre- rak eta bost eurokoa, berriz, ikasle eta langabeenak.

Zarautz zuzenean (2017) izan zen Salvadorren lehen diskoa, eta ondoren etorri ziren beste biak: *Zintzilik* (2018), bakarkako lana, eta *Aho uhal* (2021), hainbat kolaborazioarekin; esate baterako, Idoia Asurmendi musikari aramaioarrarena.

OSASUNA

**Ondo zainduta,
sasoitsu bizi**

- Aho osasuntsu, gorputz indartsu
- Hankak eta bernak zaintzeko aholkuak
- Fotobabesa, larruazalaren lagungarri
- Kalitatezko mediku-arreta



Aho osasuntsua gorputz osasuntsua ere bada

Ahoa zaintzea kontu estetiko soil bat izatetik urruti, gorputz osoa osasuntsu izateko oinarrizko elementua da. Hortzak maiztasunez garbitzea eta dentistarengana sei hilabetean behin joatea oinarrizko betebeharrak dira hainbat gaixotasun ekiditeko

Osasungintzan, zenbait pertsonarentzat aho-osasuna oharkabean pasatu daiteke, hein handi batean ahoa eta bereziki hortzak alor estetikoarekin soilik lotzen dituztelako. Hala ere, ahoa ondo zaintzeak berebiziko garrantzia hartzen du gorputzaren zaintza orokorrean.

Ahoa zaintzea funtsezko praktika da gaixotasunak prebenitzeko. Finean, ahoa da digestio eta arnas aparatuetarako sarbidea, eta haren egoerak gure osasunean zuzenean eragiten du. Horren zaintza txar batek uste dena baino patologia gehiago eragin ditzake. Ohikoenen



Dentista bat pazientearekin. PEXELS

artean, sarroa, gingibitisa, periodontitisa, txantxarrak eta halitosia daude. Gainera, ahoko higie txar batek lehendik izandako patologia larriagotu ditzake; adibidez, biriketako gaixotasunak, gaixotasunardiobaskularrak eta diabetesa. Horrenbestez, ahoa modu egokian zaintzea ez da txantxetan hartu beharreko kontu bat.

Gomendioak

Ahoa osasuntsu mantentzeko, hainbat jarraibide daude. Horietan garrantzi berezia hartzen du hortzak maiztasunez garbitzeak. Jan ostean elikagai-hondarrak gelditzen dira hortzen artean. Hondar horiek hortzetatik kendu ezean, usteldu egiten dira, eta gaixotasunak eragin ditzaketan bakterien agerpena sustatzen dute.

Ahoko higie ona mantentzea ez da hortzak garbitzea soilik mugatzen. Ahoarekin lotutako ohitura osasuntsuak sustatzeak ere berebiziko garrantzia du. Ohitura horien artean, besteak beste, azukreen eta elikagai prozesatuen kontsumoa mugatzea eta alkohola, tabakoa eta halako

substantzien kontsumoa mugatzea nabarmendu daitezke.

Horrez gain, dentistarengana maiztasunez joatea beharrezkoa da aho-osasunarentzat. Gutxienez, dentistarengana sei hilabetean behin joatea gomendatzen dute adituek, bertan azterketa osoa egin ahal izateko. Bisita erregular horiek funtsezkoak dira gerta litezkeen arazo guztiak garaiz detektatu eta aurre egin ahal izateko. Debagoienean kalitatezko aho-zaintza bermatzen duten hainbat dentista daude. Horien artean, Aretxabaletako Durana hortz klinika, Arrasateko Vitaldent, Arrasateko Arregi hortz klinika eta Oñatiko M. Angeles Mendizabal daude.

Profesional horiek puntako teknologia darabilte diagnostiko zehatzak egin eta beharrezko izan litezkeen tratamenduak aurrera eramanez ahal izateko. Azterketa orokorrak egiteko zein arazo konkretuei aurre egiteko, beharrezko den jakintza eta materiala daukate eskura. Ahoaren zaintza ez da etorkizunerako utzi behar, gaurdanik bermatu beharreko zerbait da.

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

**Euskal Herria 3, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 44 22
www.udalaitz.com
inform@cmudalaitz.com**

Espezialitate medikuak

Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048

Diagnosi-probak



Javier izeneko erabiltzaileen hankak tratamendu aurretik eta ostean. VARITEK

Barizeak kirurgia erabili gabe ere tratatu daitezke

Arazo larri bilakatu daitezke barizeak, garaiz eta modu egokian tratatu ezean. Varitek barizeen tratamenduan espezializatutako zentroa da, kirurgia erabili gabe gisa guztietako barizeak sendatzen dituena. 2.500 zain safenatik gora tratatu dituzte

Barizeak, batez ere, hanketan agertzen diren zain-dilatazioak dira. Biztanleen %20 ingururi eragiten diete; bereziki, adineko pertsoneri. Emakumezkoengan gizonetzkoengan baino ohikoa izaten dira.

Eragozpen estetikoek gain, hainbat sintoma eragiten dituzte barizeek: mina, hankek pisatzea, ezerosotasuna, bero-sentsazioa, orkatilen hantura eta abar. Hala ere, aipatu beharreako da eritasun horren agerpena ez dagoela derrigorrean sintoma horien agerpenarekin lotuta.

Denborarekin barizeek okerrera egiten dute, eta garaiz tratatu ezean arazo larriak eragin ditzakete. Ohiko esku-hartzeek gain, gaur egun alternatiba arinagoak daude, kirurgiarik gabek, kasu konplexuenera ere eraginkorrak direnak.

Varitek gisa horretako interbentzioetan espezializatutako zentroa da. Ibilbide profesional handiko espezialistak dituzte euren zentroetan, eta bertako erradiologoek 2.500 zain safena baino gehiago tratatu dituzte urte hauetan guztietan.

Nolakoak dira tratamenduak?

Variteken azpi-espezialitate medikoa erradiologia interbentzionista da. Erradiologia irudi bidezko diagnostikoan oinarritzen da. Barizeen kasuan, Doppler ekografiaren bidezko diagnostikoa funtsezkoa da tratamendu egokia diseinatzeko. Interbentzionismoaren konbinazioarekin, kateterismoen eta zitzada ekogidatu txikien bidez, arazoa barrutik konpontzen dute. Egoera une oro aztertzeak aukera izanik, modu oso zehatzean tratatzen dituzte barizeak.

Kirurgia gabeko teknika horiek eskura izateak tratamendu bakoitzera modu eraginkorrean egokitzeko aukera eskaintzen die Varitekeko espezialistei, erabiltzailearen onurarako. Varitekek eskura duen teknologia-ri esker, edozein motatako barizeak tratatu ditzakete, bi hankak aldi berean ere tratatuz.

Erabiltzaileak pozarren irteten dira Varitekeko klinikatik. "Hamarreko arretoa dute. Ikusi ezean, ez nukeen sinistuko. Ametsetan ere ez nuen espero hanka hauek horrela geratzea", dio 59 urteko Javier erabiltzaileak.

Zure barizeen tratamendurako kirurgiarik gabeko konponbidea

Zainetako ultzera eta kirurgiaren ondoren berragertutako barizeetan espezializatutako erradiologo interbentzionistak

Ibilbide zabal baten ondoren eta Varitek kliniketan arrakastaz sendatutako zain safenoren 2.500 kasu baino gehiagoren ostean, kirurgiaren beharrik gabeko metodologia berritzaile eta zehatza osatu dugu barize mota guztien tratamendurako.

Diagnostiko xehe baten bidez, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzeko ditugu, pazientearen bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, barizeak kirurgiarik gabe, ospitaleraterik eta konbaleszentziarik gabe eta adin-mugarik gabe tratatzeko aukera ematen diguten teknikak erabiltzen ditugu.



RPS 55/19

variTek

Euskalduna kalea 6
Bilbao-Bilbo



BILBO
690 623 391

Atotxa Zelaia Plaza z/g
Donostia-San Sebastián



DONOSTIA
666 776 159

Florida kalea 72
Vitoria-Gasteiz



GASTEIZ
689 338 931

varitek@varitek.es    www.varitek.es

LAGUNAROREKIN ADOSTASUNA  LAGUN ARO

Fotobabesa oinarrizkoa da larruazala zaintzeko

Erradiazio ultramoreak sor ditzakeen kalteak saihestu ahal izateko ezinbestekoa da fotobabesa. Zaintza aproposa jaso nahi duenak Estella farmazian larruazala aztertzeo aukera du fotobabeserako neurri egokienak aholkatu diezaioten

Eguzkia hartzea beharrezkoa den arren, fotobabesa ezinbesteko bilakatzen da larruazalaren osasuna zaintzeko. Fotobabesaren helburua, finean, erradiazio ultramorearen pean egotearen larruazalean gerta daitekeen kaltea saihestea da.

Erradiazio ultramoreen gehiegizko esposizioak ondorio oso kaltegarriak izan ditzake, eguzki-erreduretatik hasi eta larruazaleko minbizirainokoak. Kalte horiek ekiditeko, funtsezkoa da fotobabeserako neurriak hartzea.

Larruazalak baditu berezko defentsa mekanismoak izpi horietatik babesteko. Hala ere, mekanismo horiek aldatu egiten



Pertsona bat eguzkitako krema ematen. PIXABAY

dira pertsonatik pertsonara; hau da, larruazal guztiek ez dute berdin jokatzeko erradiazio ultramorearekiko. Horregatik, garrantzitsua izaten da nork bere larruazala ezagutu eta baikoitzaren arabera fotobabes neurri egokiena zein den jakitea.

Fotobabesaz arduratzen den edonork Estella farmazian larruazala aztertzeo aukera du. Modu horretan, bertako profesionalak larruazalaren ezaugarriak identifikatu, eta fotobabeserako neurri egokienak zeintzuk diren aholkatu dezakete, hain zuzen ere, zaintza egokia eman ahal izateko.

Kontuan hartzeko faktoreak

Fotobabesa oinarrizkoa da urteko sasoi guztietan, ez udan edo klima eguzkitsuetan bakarrik. Egun hodeitsuetan erradiazio ultramoreak hodeietan sartu daitezke eta azala modu bertsuan kaltetu dezakete. Gainera, elurrak, urak eta hareak izpien %80 islatu dezakete.

Fotobabesaren garrantzia medio, erradiazio ultramoretik babesteko estrategiak garatu izan dituzte. Estrategia horietan

hedatuenak eguzki-babeserako faktore egoki bat duten eguzki kremaren erabilerarekin lotuta daude. Eguzki-babeserako faktoreak pertsona bat eguzkipean erre gabe zenbat denboraz egon daitekeen adierazten du, babesik gabe beharko lukeen denborarekin alderatuta.

Horren harira, berebiziko garrantzia hartzen du erradiazio ultramoredun izpien aurka babes egokia ematen duen krema bat aukeratzeak. Horrez gain, ordu gutxian behin aplikatzen joan behar da; bereziki, igeri egin edo izerditu ostean.

Fotobabesaren onurak ugariak dira eta erredurak prebenitzetik haratago doaz. Larruazalaren zaintza egokiak zahartze goiztiarra saihesten laguntzen du; adibidez, zimurrak eta eguzki-orbainak ekiditen. Larruazaleko minbizia garatzeko arriskua ere murrizten du.

Horregatik guztiatik, gomendagarria da Estella farmaziako profesionalen laguntzarekin larruazala aztertu eta haien jarraibideak oinarri, larruazala ahalik eta egokien zaintzea.

RPS: 68/23



M^a Angeles Mendizabal

H **AHO SENDAGILEA**

Inplantologia konbentzionala eta gidatua

Odontologia estetikoa

Periodontzia

Leire Errasti

Odontologia orokorra


Ortodontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati • Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com

RPS: 126/23

Arregi

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL



Bixente Ferrer 3, Arrasate

☎ 943 79 71 90

Inplantologia
Ortodontzia ikusezina
Periodontzia
Protesiak
Hortz estetika
Laser bidezko hortzen zuritzea
PADI





Mediku bat eta paziente bat OTA eskanerlean. CENTRO MEDICO UDALAITZ

Kalitatezko medikuntza, mugitzeko beharrik gabe

Osasungintzak garrantzi handia du edonoren bizitzan. Kalitatezko zerbitzu batez hitz egiten bada, ezin dira aipatu gabe utzi Centro Medico Udalaiz eta halako klinikak. Desplazatzeko beharrik gabe, beharrezko diren proba guztiak eskaintzen dituzte

Osasungintzan berebiziko garrantzia hartzen du nor bere burua zaintzeko erraztasunak izateak. Joan-etorrian ibili behar asko zaildu dezake kalitatezko arreta bat jasotzea. Hori ekiditeko, zentraltasuna hartzen du kontuan Centro Medico Udalaiz klinikak.

Centro Medico Udalaizten helburu nagusia diagnostiko zehatz eta aproposa ematea da, modu horretan, pazienteei tratamendu eta arreta mediku egokia eman ahal izateko. Horretarako, Centro Medico Udalaiztek, lehen mailako profesionalak izateaz gain, zerbitzu guztiak leku bakarrean eskaintzen ditu, desplazamendu beharrik gabe.

Zerbitzu ugari

Centro Medico Udalaiztek hainbat zerbitzu espezializatu eta proba eskaintzen ditu, gaixotasun eta baldintza mediko oro diagnostikatu ahal izateko. Espezialitate horiek guztiak barnebiltzen dituen koadro medikoa dute: digestio-aparatura, angiologia eta kirurgia baskularra, endokrinologia, ginekologia, medikuntza oro-

korra, barne-medikuntza, medikuntza estetikoak, pneumologia, neurofisiologia, oftalmologia, otorrinolaringologia, gorputzeko kaltearen peritazioa, psikologia, traumatologia, neurokirurgia, minaren unitatea eta urologia.

Hori gutxi ez balitz bezala, pazienteari ahalik eta diagnostikoa osatu eta egokiena bermatzeko asmoz, beste hainbat proba osagarri egiteko aukera eskaintzen dute: analisi klinikakoak, ohiko erradiologia, OTA eskannerra, erresonantzia magnetikoa, ekografiak, dentsitometria, mamografia, elektromiograma eta elektrokardiograma.

Horrez gain, gidabaimena, armen eta animalia arriskutsuen gainekoa eta segurtasun pribatua berritzeko proba psikoteknikoak ere egiten dituzte.

Horrenbestez, bere eta inguruko osasuna bermatu nahi duen pertsona orok beharrezko izan ditzakeen zerbitzu guztiak izango ditu eskuragarri Centro Medico Udalaizten. Etengabe desplazatzen zein itzarote-zerrenden zain egon nahi ez dutenek beren lekua dute bertan.

VITALDENT
ZURE AHOA DA GARRANTZITSUENA

200€

-ko deskontua* zure hortzetako tratamenduan

"Lehen ez zitzaidan gustatzen jendaurrean barre egitea, orain ez dago GELDITUKO nauenik".

ARRASATE
Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

*200 €-ko deskontua 1.500 €-tik gorako tratamenduetan. 2024/03/01etik 2024/04/30era arte (biak barne) kontratatutako tratamenduetarako balio duen sustapena. Ez da metagarria beste deskontu eta sustapenekin. Kontsultatu sustapenari atxikitako klinikak vitaldent.com webgunean. Osasun-erregistro zenbakia: CSI0715. RPS 43-21

RPS: 88/23



ESTELLA
ORTOPEDIA SEKZ.

Ander Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN
HITZARTUTAKO ZENTROA



Eguneroko bizitzarako laguntzak



Mastektomia produktuak



Rollator



Aulki gurpildun elektrikoak



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

"Gazte Egunera jendea etortzea nahi genuke"

ANA MANSO ETA UNAI ANDRES ELGETAKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEAK Hasi da atzerako kontaketa zapatuko Gazte Egunerako. Lehena da Gazte Asanblada berriarendako. Aurreikusten dute gaueko kontzertuek erakarriko dutela jende gehien

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Sorreratik daude Ana Manso (Elgeta, 2000) eta Unai Andres (Elgeta, 1999) Gazte Asanbladan. Azaldu dute taldean gogotsu daudela Gazte Egunerako.

Nola doaz prestaketa lanak?

Ana Manso (A.M.): Denbora asko daramagu Gazte Eguna antolatzen, baina lehena da, eta ikusteko dago zer gertatzen den. Badugu itxaropena jendeak erantzungo duela, nahiz eta txartel salmenta motel doan –martitzenean–. Pentsatu nahi dugu azken uneen animatuko dela kontua.

Zein adinetako gazteendako da Gazte Eguna?

Unai Andres (U.A.): Herri osoa errendako da. Gazte Eguna deitzen da Gazte Asanbladak sortu delako, baina ekitaldiak ez du adin mugarik.

2023ko urtarrilean egin zenuten Gazte Asanbladaren aurkezpen ekitaldia; noiz erabakitzen duzue Gazte Eguna antolatzea?

A.M.: Hasieratik izan dugu buruan Gazte Eguna egitea, eta bazen gure asmoa lehenago ere egitea, baina gauza asko etorri ziren, eta, gauzak ondo egiteko denbora behar genuela pentsatuta, atzeratzea erabaki genuen. Ikusiko dugu zelan doan lehenengo, baina nahiko genuke behin hasita urtero egitea.

Areto futbolarekin emango diozue hasiera.

U.A.: Hori da. Haizea tabernan dago izena emateko orria. Talde gutxi batzuk badaude izena emanda, eta egunean bertan ere egongo da apuntatzeko aukera. Guk, dena den, nahiago dugu izen-ematea lehenago egitea sailkapenak eta beste ondo egiteko. Taldeek, hori bai, mistoak izan behar dute.

Musikak garrantzi handia izango du Gazte Egunean.

A.M.: Bai. Eguerdian karro-potea egingo dugu, musikarekin girotuta, eta bazkalostean kontzertu akustikoa izango dugu



Ana Manso eta Unai Andres. L.Z.L.

"BAZKARIRAKO ZEIN KONTZERTUETARAKO SARRERAK SALGAI EGONGO DIRA EGUNEAN BERTAN"

Aretxabaletako JB bikotearen eskutik. Gauean, berriz, lau talde izango ditugu: Korda Rota, Fito Skins, Kaparrak eta Babesgabe. Hurrenkera horretan joko dute, gainera. Amaitzeko, bi DJ izango ditugu; Kadira dute izena eta neskak dira biak.

Eta ze mugimendu dago Gazte Asanbladan sortu eta ia urte eta erdira?

U.A.: Esango nuke oraintxe hasi dela itxura hartzen. Barikuetan elkartzen gara, 19:00etan, Udalak utzitako gela batean –kultura etxeko erabilera askotariko gela–. Bilera irekiak dira; beraz, animatzen ditugu elgetarrak parte hartzera. Adin askotariko gazteak gaude, eta gure ateak zabalik daude denendako.

Herriko hainbat ekintzatan parte hartu duzue denbora honetan: jaietan, Sagardo Egunean, Piñu-koku martxan, koko-batzean...

A.M.: Bai, eta Gazte Egunean ostan etorriko da Puntaik Punta eta ostan Ferixa Nagusiko jaiak berriro. Aurten ere txosna jartzeko asmoa dugu. Hasita gaude taldeak lotzen. Etorkizunera begira nahiko genuke hilean ekintza bat antolatu, baina ikusiko dugu posible den.

Egun osoko egitaraua

Apirilak 27, zapatua

- **10:00** Areto futbol txapelketa mistoa.
- **12:30** Poteo girotua.
- **14:30** Bazkaria antzokian.
- **16:30** JB bikotearen kontzertu akustikoa.
- **22:00** Kontzertuak: Korda Rota (Arrasate), Kaparrak (Aretxabaleta), Fito Skins (Elorrio) eta Babesgabe (Elgeta).

Oharra: kontzertuak, 5 euro. Bazkaria eta kontzertuak, 20 euro. Haizea tabernan daude salgai sarrerak.

Liburutegiaren postua eta ipuin saio musikatua gaur plazan

Arratsaldeko ekintzekin emango zaio amaiera Liburuaren Nazioarteko Eguneko egitarauari

L.Z.L. ELGETA

Apirilean hainbat izan dira liburutegi zerbitzuetatik antolatutako ekintzak. Haur Liburuaren Eguna –apirilak 2– eta Liburuaren Eguna –apirilak 23– gogora ekartzeko izan dira. Gaur arratsaldean mahaia jarriko du plazan liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. Helburua da liburutegiak ematen dituen zerbitzuak eta eskaintzen dituen jarduerak ezagutzera ematea. Liburuaren mailegutza da erabili-ena, baina badira beste asko: informazio bibliografikoa, erre-

pografia, e-Liburutegia, e-Filma, ikasketa gela...

Ipuin kontalari saioa ere izango da gaur plazan. Kontukabiko lagunek *Istorio baten truk* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Kontukabitarrak ezagunak dira Elgetan. Orain bi urte, *Ipuin katramilatua* eskaini zituzten plazan. Gaurko kontalaritza saioa 17:30ean hasiko da.

Bestetik, herriko umeez egindako artista liburuaren erakusketak ikusgai jarraitzen du. Hilaren 30era arte egongo da liburutegian.



ANTOLATZAILEAK

Bikote onenak izan dira

Imaz-Ezeolaza eta Unzetabarrenetxea-Maguregi bikoteak nagusitu dira Elgetako frontenis txapelketan. Bi asteburutan jokatu da eta lehiatuak izan dira bi finalak. 25-16 amaitu zen gizonezkoena eta 25-20 emakumezkoena. Antolatzaileek balorazio oso positiboa egin dute. Jakinarazi dute zozketako zenbaki irabazlea 86 dela eta ordezkoa, 495.

Maiatzeko bigarren asteburuan Puntaik Punta Jaia herrian

Mankomunitateak urtero antolatzen duen bidezidorren festa Elgetan egingo dute aurten. Asteon aurkeztu dute hiru eguneko egitaraua Udaleko ordezkariak, Mankomunitatekoek eta Foru Aldundikoek (Ikus 5. orria). Herriko eragileak ere hasita daude antolaketa lanetan. Udalak deituta aurreko astean egin zuten lehenengo bilera irekia.

OHARRAK

Erretiratuak, Ordiziara

Xalbadorpek irteera antolatu du Ordiziara. Izen-ematea domekan izango da, 11:00-13:00 artean, Ozkarbi elkartearen.

Zabaletaren kamiseta

Beheko kaleko jai batzordeak Zabaleta pilotariaren kamiseta bat zozketatuko du. Txartelak salgai daude Goikoetxe harategian eta Lola jatetxean.



Bi erabiltzaile gazte Agorrosingo fitness gela batean, eguazten goizean; bereziki arratsaldeetan edukiera bete egiten da. J.B.L.

Gimnasioa bogan, eta "kezka" haren erabileran

Agorrosingo arduradunek ohar bat bidali diete guraso diren erabiltzaileei gimnasioa erabiltzen duten 14 eta 17 urte arteko seme-alabarik izanez gero haiekin berba egitea "biziki" gomendatzeko; haien ariketekin eta dinamikekin "kezkatuta" dago Kirol Zerbitzua

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Agorrosin kiroldegiko fitness gelek orain arte bizi izan ez duten mugimendua ari dira izaten azkenaldian, asko hazi dira eta zerbitzu horren erabiltzaileak. Eta hazkunde horretan nabaria izan da gazteen eta, bereziki, nerabeen presentzia; fitness gela horiek 14 urtetik gorakoek erabil ditzakete, baina, hain zuzen ere, asko dira 14 eta 17 urte arteko erabiltzaileak.

Gaur egun, bi fitness gela daude, eta, maiz, beste gela batzuk ere erabili behar izaten dira gimnasioa erabiltzeko; izan ere, ia arratsalderoko kontua izaten da edukiera gainditu delako hesia jarri behar izatea, ez dadin erabiltzaile gehiagorik sartu. Udan zehar makineria berritzeko asmoa ere badu Udalak, eta fitness gelen erabilera handia mantendu egiten bada "beste irtenbide bat" bilatu behar du dutela adierazi dute.

Formakuntza eskaintzen segi Udaleko Kirol Zerbitzua fitness gelako begiralea mantendu egingo du, aholku profesionalak eman ditzan, eta aurreratu du ekainera begira *express* izeneko saioak gimnasioaren erabilerarekin izango dutela lotura: "Ordu erdiko formakuntza saio motzak dira; nahi duguna da kalterik ez sortzea.

Izan ere, indar entrenamenduak bereziki zaindu behar dira gorputza hedapen fasean dagoenean. Nerabeak egiten dituzten ariketa horien inguruan ahalik eta kontzienteen izatea bultzatu nahi dugu; guk ezin dugu askoz gehiagorik egin formakuntza eskaintzea baino. Konturatu gara nonbaitek hartzen dituztela entrenamendurako programak, eta uste dugu

hor badagoela arrisku bat", esan du Udaleko Kirol Saileko arduradun Iñaki Ugarteburuk.

Kirol Zerbitzuan badakite ez dela Bergarako errealitatea bakarrik: "Hemen eta beste hainbat tokitan gertatzen ari da, baina guri dagokigu Bergarakoekin arduratzea. Gurasoei eskatu nahi diegu seme-alabekin berba egin dezatela, besterik gabe".

"Formakuntza eskaintzen segituko dugu"

IÑAKI UGARTEBURU UDALEKO KIROL SAILEKO ARDURADUNA

Zerk sortu dizue kezka?

Azkenaldian, nerabe asko joaten dira fitness gelara, eta apur bat kezkatuta gaude euren entrenamenduekin eta daroaten dinamikekin. Astean hainbat orduz begirale profesionala izaten dugu aholkuak emateko, baina nerabe horietako askok apenas egiten diote jaramonik. Edo, behintzat, igarri dugu oso gutxi galdetzen dutela. Indar entrenamendu gogorregiak



J.B.L.

egiten dituztela uste dugu eta ikusi dugu batzuek proteinak eta bestelako produktuak ere hartzen hasi direla.

Ze neurri hartu dituzue?

Adin txikikoak direnez, oraingoz ohar bat bidali diegu gurasoei esanez jakingo dutela euren seme-alabek gimnasioa etortzeko ohitura dutela eta horren inguruan berba egin dezatela. Guk formakuntza eskaintzen jarraituko dugu, baina ezin dugu inor behartu.

Elorregiko jaiak asteburuan, eta Labegaraietakoak bueltan datoz

San Prudentzio jaietan bertso bazkaria izango dute bihar; Labegaraietako egun handia maiatzaren 1ekoa izango da

J.B.L. BERGARA

San Prudentzio jaiak ospatuko dituzte asteburuan Elorregin. Gaur, hilak 26, plaza garbituko dute eta makala igo (18:00), eta, ondoren, afaria egingo dute (20:00). Bihar, San Prudentzio bezpera, izango da egun handia: auzo bazkari girotua (14:30) Ane Zuazubiskar, Aitor Tatiegi eta Angel Mari Peñagarikano bertsoariekin eta, ondoren, Manu Iztueta soinu-jolearekin kanta zaharrez gozatzeko aukera egingo da; 18:00etan, askotariko jolasak frontoian; eta, 21:30ean hasita, Sukena, Zentzu Okerra eta 3ttu taldeen kontzertua eta DJ Ziorlako Astuak.

Domekarako, San Prudentzio eguna, hiru ekintza antolatuta dituzte: meza (10:30); pilota partiduak (11:00) eta pintxoak zein salda Alkartasuna elkartearen; eta, jaietako amaiera emateko, suziriak, 14:00etan.

Bueltan, pandemiaren ostean

Bestalde, pandemiaren ostean, bueltan datoz Labegaraietako jaiak. Martitzenean, apirilak 30, patata-tortilla lehiaketarekin ekingo diete jaietakoak, 19:15ean; norberak eroan behar ditu osagaiak, sua barne, eta, ondoren, tortillak eta bestelako ogitartekoak izango dituzte afaltzeko kiroldegiko karpan. Gero, 21:00etan, DJ Julen Narbaiza izango dute. Maiatzaren 1erako honako hau izango da egitaraua: diana txistulariekin (10:00); meza, salda eta txorizoa (11:00); gaztetxoentzako marrazki topaketa (11:00); auzo-poteoa musika eskolako fanfarrearekin (13:00); auzo bazkaria, janaria norberak eroanda (14:30); auzo-krosa (16:00); ume eta gaztetxoentzako jolasak (17:30) eta, ondoren, txokolate-jana eta erraldoiak.

Maiatzaren 4an eta 5ean Ernai kaleko jaiak ospatuko dituzte.



Bertso bazkaria San Prudentzio jaietan, Alkartasuna elkartearen. GOIENA

Hiru auto erreta, edukiontziei su eman ostean, hilaren 22an

Apirilaren 22an, 02:20 inguruan, su eman zioten Ramon Maria Lili kaleko edukiontziei, eta, horren ondorioz, hiru auto erre ziren: bi auto erabat kiskalita geratu ziren eta besteak kalteak izan zituen. Ertzaintzak pertsona bat identifikatu zuen, eta eginbideak ireki zizkieten. Oxirondon, San Martzialerako bidean beste edukiontzi bat erre zuten.



Bi auto erabat kiskalita. GOIENA

Lekuko aldaketa, eta odol gaztea erakartzeko nahia

2012a ezkerko odol emaleen delegatu izan den Antonio Herzogek Pedro Mugikari pasatu dio lekukoa. Mugikak Herzogen lana goraiatu du, eta gazteak behar direla nabarmendu: "70 urtetik gora ezin da odolik eman, eta komeni da gazteak kontzientziatzen joatea"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako Odol Emaileen Elkarteak batzar orokorra egin zuen martxoaren 4an, eta delegatua aldatzea erabaki zuen. 2012a ezkerko delegatu izan den Antonio Herzogek (La Carlota, Kordoba, 1943) Pedro Mugikaren (Bergara, 1959) eskuetan utzi du ardura.

Herzogen "txalotzeko" lana Mugikak, hasteko eta behin, Herzogen lana txalotu du: "Lan bikaina egin du Herzogek. Gainera, 12 urte iraun duen haren zikloan, pandemiak eragin zituen arazoak kudeatzea tokatu zitzaion; pandemiaren ondorioz emaleen kopuruak ez du behera egin, eta, aldatzekotan, gorantz egin du. Beste herri batzuetan, Eibarren, adibidez, ez da lortu oraindik pandemia aurreko kopurura bueltatzea". Herzogen "txalotzeko lan bikainaren" ostean, "ilusioz" hartu du Mugikak ardura berria: "42 urte bete dira lehenengoz odola eman nuenetik, eta, gaur egun erretiratuta nagoenez, ardura berriak ez dit lan handirik ekarriko. Laguntzeko ilusioz nago".

Gazteak erakarri nahian Mugikak azpimarratu duenez, emale gazteen beharra dago, batez ere: "Gazteak dira bereziki erakarri nahi ditugunak. Izan ere, zehaztuta daukagu 70 urtetik aurrera ezin dela odolik eman; eta joera argia izango denez gero eta urte gehiago bizitzea, komeni da gazteak kontzientziatzen hastea. Gaur egun gizonezkoak gehiago badira ere, "emakumezko asko" dagoela ere badio Mugikak: "Emaleen kopurua ez da parekidea, baina azken urteetan emakumeak ere etorri dira. Adinari dagokionez, 40 eta 45 urte arteko herritarrak dira nagusi".

Odola eman, eta pintxoaz gozatu Odola emateko egin behar den bakarra da ateratze bat tokaten



Pedro Mugika eta Antonio Herzog, Arin zentroan. ODOL EMAILEEN ELKARTEA

HURRENGO ATERATZEA MAIATZAREN 8AN IZANGO DA, ARIN EGUNEKO ZENTROAN, 16:30ETIK 20:30ERA

denean San Joxepe erretiratu elkarteak Arin eguneko zentroa joatea: "Ahal bada, alde zurreratik deitu eta lasai asko etorri. Zentroan erizain bat egongo da egun horretan, tentsioa eta beselako neurketak egiteko. Dena ondo badago, beste profesional batengana pasatuko da eta galdara labor batzuk egingo dizkio, eta gero, momentuan bertan aterako diote odola. Prozesu osoak ez du 25 minutu baino gehiago irauten. Ondoren, arrakasta handia izan ohi duten pintxo ederrak eskaintzen ditugu". Hilean bi eguaztenetan egon ohi da odola emateko aukera, 16:30etik 20:30era.

Azken ateratzea apirilaren 17an izan zen eta hurrengoa maiatzaren 8an izango da -beti ez da hamabost egunean behin izaten-. 2024rako 23 ateratze dituzte aurreikusita.

Elkartea "oso ondo" dago

Elkartea 1966an jarri zuen mar txan Jose Mari Dulanto medikuak eta haren taldeak, eta, orduetik, Gipuzkoako elkarte indartsuenetako bat da. "Begarako elkarte oso ondo dago, beste batzuekin alderatuta, baina komeni da gazteak erakartzea. Odolerako beharra beti egoten da; bereziki, udan. Ezin da ahaztu ebakuntza gehienetan behar izaten dela odola, eta, beraz, komeni da odol-putzu ona izatea. Hori esanda, eskerrak eman nahi dizkiegu emale guztiei".



NIRE USTEZ

MIKEL GOENAGA

Irimo ez?

Begararen, Klima eta Energiari buruzko Tokiko Planaren barruan, Berener sortu da, energia berriztagarrien komunitatea. Trantsizio energetikoa bultzatzea helburu duen kooperatiba. Beharrezkoa klima aldaketari aurre egiteko, gure neurri apalean. Baina itsasoan ur tanta bat besterik ez, oso gutxi gure klimak behar duenarekin alderatuta. Gure planetak askoz gehiago beharko du. Gorrako Igoeran, txirindulariak animatzeko hainbat pintada ikusi nituen errepidean. Guztien artean, bat deigarria: *Irimo ez!* Gure paisaia defendatu nahi dugu, eta egitasmo horren bultzatzaile diren enpresen neurri gabeko irabaziek asaldatzen gaituzte. Menditik itzuli, etxeko argia piztu, eta dutxa bero bat hartu dut. Hara hor! Ni ere, neurri baten, enpresa erraldoiak aberasten. Kezkatzen nau klima aldaketa negozio iturri bihurtzeko, eta gure paisaia eraldatzeko. Baina zorrotzgiak ote gara? Ez ote genioke eskura dugun teknologiarik onura gehiago atera behar? Zeren badago are eta gehiago kezkatzen nauena: zer iritzi izango duten gutaz etorkizuneko belaunaldiek, gu gara-eta haien klima eta paisaia aldatzen ari garenak.

OHARRAK

Pentekosteak: erraldoi berriak eta entsegua

Jaietan bi erraldoi estreinatuko dituzte, eta lehiaketa abiatu dute 6 eta 18 urte arteko ume eta gazteei zuzenduta, izena erabakitzeko. Proposamena egin behar da maiatzaren 10a baino lehen; Bergarako Erraldoi Taldearekin (BET) edo Jardun elkartearekin jarri behar da harremanetan. Gainera, jakinarazi dute etzi, hilak 28, entsegu orokorra egingo dutela Zabalotegiko frontoian, eta dei egin diote nahi duenari bertaratzeko.

Bertso bazkaria Gorrako kantuan

Domekan bertso bazkaria egongo da Gorrako kantuan, Xabi Igoa, Peru Abarrategi eta Ane Zuazubiskar bertsolariekin. Bazkaria, kafea eta kopa barne, 30 euro. Izena emateko: 943-58 50 28.

Euskal presoan aldeko Azken Ostirala

"Salbuespen neurri guztiak" indargabetzea eskatuko dute. Elkarretaratzea San Martin plazan egingo dute, gaur (19:30).

Aranzadi ikastolako ikas bidaiarako zozketa

DBHko laugarren mailako ikasleen zozketako zenbaki saritua 1.366 da. Irabazlea apirilaren 30erako jarri behar da harremanetan: aranzadiikasbidaia24@gmail.com.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zuzeneko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Projektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21 K
KALITATEA
Enpresa Registrada N°90/025

Jolasa, belaunaldi arteko harremanen sustatzaile

Belaunaldien Arteko Nazioarteko Egunaren harira, ume eta hirugarren adineko bergararrak Oxirondon elkartuko dira gaur elkarrekin jolasteko. Gaur egungo eta garai bateko jolasak aitzakia hartuta eta euskara ardatz, harreman berriak bultzatu nahi dituzte antolatzaileek

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Apirilaren 29an, astelehena, Belaunaldien Arteko Nazioarteko Eguna ospatuko dela-eta, aurtien bigarren urtez jarraian ume eta hirugarren adineko bergararrak elkartuko dituzte jolasaren bueltan. Hitzordua gaurko, apirilak 26, egin dute, Oxirondo plazan, 17:30ean; izan ere, egubakoitz arratsaldeak izan ohi dira ume bergararren zat asteko unerik egokiena.

Planteamendua simplea bezain berritzailea da: ume bergararrak hirugarren adineko bergararren elkartzea eta jolasaren bidez belaunaldien arteko harreman berriak sustatzea.

"Emaizta oso ona" iaz

Iaz jarri zuten martxan ekimena, Adineko Kontseiluaren sorreran aritutako taldeek bultzatuta. Gaur egun, herriko sei eragilek hartzen dute parte antolaketan: Aidau haur zerbitzua, Duintasuna elkarte, San Joxepe erretiratu elkarte, Nagusilan, Jardun eta

Udala. Iaz antolatu zuten lehen aldiz, eta, antolatzaileen arabera, "emaitza oso ona" eman zuen: "Euskara ardatz eta jolasa elkartzeko aitzakia moduan hartuta, elkarrizketa ederrak sortu ziren iaz. Umeek asko gozaten dute nagusiei entzuten, asko ikasten dute. Eta nagusiak, era berean, protagonista sentitzen dira umeekin batera arratsalde ederra igarota. Oso polita da".

Egungo eta garai bateko jolasak Aidau haur zerbitzuak Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetan ari diren umeekin egiten du lan, eta uste dute gaurko saiorako 25 bat ume egongo direla. San Joxepe elkarte, berriz, azken unera arte ez da jakingo

AMAIERAN, TXOKOLATE-JANA IZANGO DUTE, BAITA EGUNGO ETA GARAI BATEKO MUSIKA ERE

zenbat erretiratu animatuko diren umeekin batera jolastera.

Gaur egungo eta garai bateko jolasak izango dira protagonista gaur Oxirondo azokan. Nagusiek ume zirenean egiten zizuten jolasak azalduko dizkiete umei, eta alderantziz. Izena ematen duten nagusien eta umeen arabera sortuko dituzte taldeak, talde berean adin ezberdinetako herritarrek nahastuz; talde bakoitza kolore batez identifikatu ahalko da. Askotariko jolasez gozatuko dute umeek eta nagusiek: besteak beste, sokasaltoa, txapak, igela...

Txokolate-jana eta musika

Jolasekin gozatua hartu ostean, protagonistek indarrak berreskuratzeko aukera izango dute; izan ere, txokolate-jana antolatu du San Joxepe elkarteak. Gainera, musika jartzeko asmoa ere badago; kasu horretan ere, gaur egungo umeek entzuten duten musika garai bateko musikarekin tartekatuko dute.



B.U.

Organoa, berrituta eta muntatuta

Bi urte eta erdiz Lyonen (Frantzia) modu artisaun berritu ostean, 1889ko Stoltz Freres organoa apirilaren 12an heldu zen San Pedro parrokiara. Orduetik, buru-belarri aritu dira lanean Michel Jurine enpresako langileak muntaketa lanetan, eta gertu dago; ekainaren 29an, San Pedro eguna, kontzertu berezia emango dute. Atzo, bisita egin zuten (argazkian), lanei jarraipena egiteko.

Eskubaloia: senior eta gazte mailetan, kopari heltzeko ordua

Gazte mailako neskek Zumaiaren aurka jokatu dute, etxean, eta senior mailako mutilak Legazpin lehiatuko dira

J.B.L. BERGARA

Liga txapelketa amaitu ostean, asteburu honetan kopari helduko diote Bergarako senior mailako mutilek eta gazte mailako neskek. Gazte mailako nesken taldeak Gipuzkoako Oria Kopa jokatu du eta B multzoan lehiatuko da zumaiarren eta oñatiarren aurka. Zumaiarrek euskal ligan hirugarren amaitu dute eta oñatiarrek Euskal Ligatik jaitsi dira. Bergararrek, Euskal Ligara igotzeko fasea jokatu eta Federazio garaikurra irabazi ostean, orain arteko "denboraldi bikaina"

borobiltzeko aukera izango dute kopa lehiaketan: "Zertarako gai diren erakusteko aukera izango dute, batez ere, zumaiarren aurkako partidua estuan". Bihar izango da partidua, Labegaraian (13:00).


Bestalde, lehen territorialeko senior mailako gizonen taldeak Gipuzkoako Deba Kopa jokatu du, eta A multzoan lehiatuko da legazpiarren eta oñatiarren aurka; bergararrek ez dute lan erraza izango: zapatuan Legazpin emango diote hasiera kopari, 16:00etan.



lazo jolasetako bat Bonba izan zen, Oxirondo azokaren atarian egin zutena. GOIENA

Bergara Hiria: final laurdenetan, Ander Murua protagonista

Bergara Hiria txapelketako hirugarren final laurdenen barruan, promes mailan lehia estua izan zuten Irribarriak eta Garciak Sarasibar eta Canseco menderatzeko (22-21). Nagusien mailan, berriz, bikote bat nabarmen gailendu zen: Ander Muruak eta Aitor Alduntzinek 22-7 irabazi zieten Ekain Lizeagari eta Aratz Olideni.



Muru eta Alduntzin. BKE PILOTA SAILA

Korrontziren ezagunena, dantzariak hauspotua

Maiatzaren 4an 'K dantzan' emanaldi bereziaz gozatu ahalko da udal pilotalekuan (21:30); Korrontzik bere hogeitabi abesti ospetsuenak joko ditu eta agertokian Moises Azpiazu taldeko hogeitabi dantzari batuko dira. Sarrerak salgai daude 'seminarixoa.eus'-en, zortzi eurotan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Korrontzi musika taldeak eta Moises Azpiazu dantza taldeak bat egin dute *K dantzan* izeneko ikuskizunerako; maiatzaren 4an izango da, udal pilotalekuan (21:30). Sarrerak salgai daude dagoeneko, www.seminarixoa.eus webgunean, zortzi eurotan. Salgai jarri ziren lehen egunean 250 bat sarrera saldu zituzten.

20 bat dantzari ordu eta erdiz

Proiektu horren bitartez, 2015ean Agus Barandiaran trikitilariak ideiatutako eta zuzendutako proiektua abian jarri zuen: Korrontzi Dantzan. Proiektuaren hasierako helburua Euskal Herriko taldeak dantzan jartzea eta elkarrekin emanaldiak egitea izan zen, eta aurrean bederatzigarren urtea beteko da proiektu "arrakastatsu eta hunkigarri" horrekin; oraingoan, herriko Moises Azpiazu dantza taldeko hogeitabi dantzariarekin arituko da ordu eta erdiz. Barandiaranek



Korrontziren eta dantzarien ikuskizuna iragartzeko agerraldia, asteon. MIREIA BIKUÑA

proiektua martxan jarri zuenetik 60 dantza talde baino gehiago izan dira *K. Dantzan* ikuskizunean parte hartu dutenak, eta, Euskal Herrira ez ezik, Madril,artzelona, Portugal eta Flandriaraino ere iritsi da. Bada, heldu da ordua

proiektu berezi hori Bergarara ere hel dadin. "Guretzat plazera *K Dantzan* ikuskizuna Bergarara ekartzea, are gehiago herriko dantzariekin batera egingo dugula jakinda. Ziur ilusio eta indar berezia sortuko dela oholtza gainean", adierazi zuen Agus Barandiaranek ikuskizunaren berri eguztenez egindako prentsa agerraldian. "Korrontzik 20 urte bete ditu aurrean eta gure kanturik ezagunenak bildu ditugu kontzertu berean: hogeitabi izango dira; betiere, bertako dantzariak emango dioten indarrarekin batera. Ziur gaude bertaraten direnek asko gozatuko dutela".

Horrez gain, sinistuta dago Barandiaran dantzari bergararekin aurrerago ere "zerbait" egingo dutela: "Bidea hasi besterik ez dugu egin, ziur aurrerago ere aurkituko dugula elkar. Guretzat oso aberasgarria da".

Maite Lazkano: "Irrikaz gaude" Korrontziren dantza irakaslea Moises Azpiazu dantza taldearen entsegu lokalera joan da eta dantzari koreografia berriak irakatsi dizkie, eta bestelako

dantzak elkarrekin ere prestatu dituzte. Irakasleak koreografia horiek guztiak moldatu eta egokitu ditu taldearen dantzari kopurua, dantza-maila eta izaera kontuan harturik. Guztira, lau entsegu trinko egin dituzte irakaslearekin hainbat dantza prestatzeko, eta, horrez gain, taldeak bere entseguak egin ditu ohiko jardueran.

Moises Azpiazu dantza taldeko arduradun Maite Lazkanok dio "oso berezia" izan zela kontzertua lotzeko modua, eta maiatzaren 4a "gainean" dagoela gaineratu du: "Urduritasuna badago, baina esango nuke ilusioarekin lotuta duen urduritasuna dela. Denok gaude irrikaz emanaldiaren eguna heltzeko, eta horren adierazle da ze gogotsu joaten garen entseguetara. Ilusioa itzela dugu, berezia eta hunkigarria izango da eta".

**MOISES AZPIAZU
TALDEKOAK "URDURI
BEZAIN GOGOTSU"
DAUDE MAIATZAREN
4KO EMANALDIRAKO**



GOIENA

Ikasle helduen kontzertu berezia

Begarako Musika Eskolak antolatzen duen Apirilean Musika zikloaren barruan ikasle gaztetxoak izan ohi dira protagonista. Hala ere, musika eskolan badira helduak diren ikasleak ere, eta asteon kontzertua eman dute Seminarixoan, urtean zehar ikasitakoa herriari erakusteko. Bittor Giral irakaslea gidari zela, kontzertu berezia eman zuten, han batu zirenen gozamenerako.



DEBAGOIENEN
**PROFESIONAL
LIBERALAK**



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ETXE
ADMINISTRATIOAK**

**URIBESALGO
ADMINISTRATIOAK**
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Argazkiko espaloia eta atzean dauden plazarako sarbide diren eskailera berritu eta egokitu egingo dituzte. A.T.

Olakua irisgarriago egiteko, beste fase bat

Olakua 13, 14, 15. zenbakidun eraikinek osatzen duten plazatxo eta inguruak egokitu dituzte bosgarren faseko irisgarritasun lanetan. Ekain inguruan hasia aurreikusten dute eta 362.000 euroko aurrekontua izango dute lan horiek

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Udalak Olakua auzoa irisgarriago egiteko lanekin jarraitzen du eta bosgarren faseko lanen esleipen prozesua martxan dute. Olakua 13, 14 eta 15. zenbakidun eraikinek osatzen duten plazatxo eta inguruak egokitzea aurreikusten da fase horretan.

Askotariko lanak

Hirigintza zinegotzi Iñigo Ruizek adierazi du helburua dela oztopo arkitektonikoak saihestea, uste baino "gehiago" baitaude: "Agerikoenak beti dira eskaileak eta espaloietako alturak, edo zebra-bideak pasatu ahal izateko zebra-bideetako alturak, eta horiek kendu edo behintzat beste ibilbide batzuk bermatuko dira, oztopo horiek gabe. Baina horiez gain, gehiago ere badaude, azkenean auzo zaharra da, beste era batera eraikitakoa eta espaloietako arketak oztopoak izan daitezke, fatxadatik irteten diren edozein oztopo –seinaleak edo farolak, adibidez– ere bai."

Horiek saihestu eta moldatu egingo dituzte. Baina horrez gain, herritarrek egiten dituzten ibilbideak ere identifikatu dituzte, horiek ahalik eta irisgarrienak izan daitezkeen: "Zela heldu atarrietara, horietatik zela irten, bertako plazatoraino zela heldu, auzo nola konektatu beste auzo batzuekin, zaborra ateratzeko bideak irisgarri izatea, behar bereziak dituztenendako aparkalekuetara modu irisgarri baten iristeko modua jartzea... lan dezente egingo dira", esan du Ruizek.

Aurrekontua

Lanak 362.000 euroko aurrekontu orokorra dute eta horietatik ia 16.000 euro ur sarea berritze-

ESPALOIAK ETA OINEZKOENDAKO BIDEEN SEGURTASUNA HOBETUKO DITUZTE, BESTEAK BESTE

ko lanei dagozkien –lan horiek Gipuzkoako Urak enpresak ordainduko ditu, baina prozeduran sartu dira eta kontratu berean esleitu dira–. Lanen bosgarren faseko lizitazioak aurkezteko epea atzo, eguena, amaitu zen eta sei hilabeteko epean egin beharko direla zehaztu dute esleipenerako oinarrietan. Lanek ekain inguruan hasia aurreikusten du Hirigintza zinegotziak.

Beste gune batzuk ere bai

Udalaren irisgarritasun planean beste lan batzuk ere badituzte mahai gainean: "Urteak darabizaguz Mendiko kaleko lanak hasi nahian, baina bertan egin diren etxebizitzak amaitu arte atzeratzen joan gara lanok. Plan horri aurrean gehitu zaio Kale Zaharreko irisgarritasun plana. Gehikuntza horrek Kale Zaharra eta inguruak hartzen ditu bere baitan: Kale Zaharra, Otadui zuhaitzia, Lizaur kalea eta Aita Madina kalea. Bederatzi fasetan banatuta", azaldu du Ruizek.

Olabarrietako jaiak ospatuko dituzte, gaur bertan hasita

Egitarau zabala prestatu dute aurten ere, adin eta gustu guztiendako herritarrendako jaiak izan daitezkeen

A.T.G. OÑATI

Artxubi baserritik 18:45ean abiatuko den kalejirarekin herritarrek Olabarrieta auzora erakarrari nahi dituzte jai batzordekoek, auzoko festei hasiera emateko. 19:00etan etxafuegoak eta txorimaloak izango dira gaur, eta 22:00etatik aurrera kontzertuak eta DJak: Zentzu Okerra, Txua, Emaion eta Bob Marlet. Autobus zerbitzua izango da, gainera, kaletik auzora.

Zapatuan eta domekan ere izango da zertaz gozatu: bihar, pilota txapelketako finalerdiak,

auzo bazkaria, bertsolariak, trikitilariak eta erromeria izango dira; eta etzi, meza nagusia, gazta eta sagardo dastatzea, jolasak eta txorimaloak. Maiatzaren lehen, berriz, meza, pilotako finala, luntxa, dantzak eta mus txapelketa egingo dituzte.

Olabarrietako jaiak, gainera, hasiera eman diete herri barruko eta landa inguruko auzoen jaiak. Aurten, Oñatiko 22 auzotan, gutxienez, ospatuko dituzte jaiak. Maiatzean, esaterako: San Migel Txiki, Murgixa, Errekalde eta Araotz.

Artzain-txaboletarako dirulaguntza eska daiteke dagoeneko

Udalak dirulaguntzak emango ditu herri onurako mendietan dauden artzain-txaboletan egingo diren obretarako. Laguntza horiekin, udalerriko biodibertsitatea berreskuratzen, hobetzen eta lehen sektorea mantentzen lagundu gura du Udalak. Abeltzaintza estentsiboa sustatzea eta laguntzea da helburua, artzain-txabolak hutsik egon beharrean erabilera emanda, udal ondarea kontserbatzeko eta mantentzeko. 13.000 euro banatuko ditu eta eskaerak maiatzaren 6a baino lehen egin daitezke. Dirulaguntza emateko orduan lehenetsia izango dute artzaintza ogibide dutenek, eta jarduerari lotutako lanak lehenetsiko dituzte.

Txiki Txoko ikusi gura dutenek ateak zabalik dituzte

Dagoeneko bukatu dira ate irekien jardunaldiak Txiki Txoko haur eskolan, baina 0 eta 2 urte bitarteko umeak dituzten familiek aukera daukate hura ikustera eta ezagutzera joateko. Harremanetarako bide hauek dituzte: 943-71 64 05 zenbakia –14:30etik 16:00etara bitarteko bulego ordutegiarekin– eta oinati.oinati@haurreskolak.eus.

Herribusa Urtiagainen gelditzea eskatu ahal izango da domekan

Aloñako Igoera egingo dute domekan, hilak 28, eta Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuak geldialdia egingo du Urtiagainen, eskatuz gero. 07:30ean hasiko da linea horretako autobusa zerbitzua ematen, orduro. Arantzazutik azkena, berriz, 19:00etan aterako da. Salomon markak antolatzen duen Golden Trail National Series zirkuituaren barruan dago aurten Aloñako Igoera, eta 09:30ean emango diote hasiera lasterketari, plazan. Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako 342 korrikalarik hartuko dute parte; 172 Debagoienekoak. Eta horietatik 111, oñatiarrak. ET-B1ek zuzenean emango du.

Herrixa Kantuan ekimena egingo dute gaur, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, izango da Herrixa Kantuan ekimeneko hilabete honetako hitzordua; 18:30ean, kontzejupean. Jose De Azpiazu musika eskolakoekin batera euskal kantak abestuko dituzte, musikak lagunduta. *Ostiraltxo* abestiarekin hasi, eta *Gora ta gora beti*, *Txorria txoria* eta *Txantxibiri* kantuak abestuko dituzte, besteak beste.

"Txerria ez da animalia zikina, garbizalea da"

JOSE ANTONIO AZPIAZU HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

'El cerdo en la historia de los vascos' liburua argitaratu du Jose Antonio Azpiak. Txerriari buruzko hainbat mito apurtu ditu eta animalia garrantzia azpimarratu du

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Eguaztenean aurkeztu zuen, kultura etxean, *El cerdo en la historia de los vascos* liburua Jose Antonio Azpiak.

Nolatan idatzi duzu txerri buruz?

Gauza arraroa, ezta? Ezohikoa. Txerriak beti izan du fama txarra eta zikinkeriarekin lotu izan dugu. Gaztelaniaz zikinkeriarekin lotutako izen ugari dauzka: *cochino, marrano, cerdo, puerco, chancho...*

Eta zikina al da?

Txerria basoan, naturan, oso garbia da, eta oso garbizalea, gainera. Lehen, ohitura zegoen mendira eramateko eta han bizpahiru egunez laguntzen egoteko –han egotera ohitu zedin–, eta txabola batean bizi ziren. Kaka eta txiza handik kanpora egiten zituen, gero garbi lo egin ahal izateko. Gero, Euskal Herrian, geuk ekarri ditugu baserrietara, leku estuetara, zikinkeria artera. Baina baserrian ere lasto gainean egiten du lo, eta hori apur bat zikintzean, bazterre botata eta berria behar izaten du.

Denetik jaten duten animaliak dira?

Animalia asko dira omniboroak –denetik jaten dutenak–, eta esan izan da baita ere txerriak koprofilikoak direla –kaka jaten dutela–. Edozer jan dezake, baldin eta gose baldin bada. Baina txerriek bezala, oiloek eta ahuntzek ere hori egiten dute. Txakur batzuek ere, gose badira, gizakion kakak jaten dituzte. Ez da txerrien kontua bakarrik.

Ekonomikoki zein eragin dute?

Familia gehienek txerriak zituzten, eta ez bat edo bi bakarrik. Txerrien haragia edota txerri-kumeak saltzeko erabiltzen zituzten, eta hemengo baserrietarrek galdu egin dute ohitura hori. Lehen, hazi etxean egiten ziren; eta gaur egun, ez. Txorizoak egiteko zer egiten dugu? Nafarroa aldera eta beste leku batzuetara joan, haragia handik ekarri eta txorizoak bertan egin. Dagoene-



Jose Antonio Azpiak, argitaratu berri duen liburua eskuetan duela. JULEN MURUA

"TXERRIAK HAZTERA IPARRALDEKO LANDARA ERAMATEN ZITUZTEN XVI. MENDEAN"

ko kriantzarik ez da egiten eta txerrien hilketarik ere ez. Baina duela gutxi elkarrizketatu nuen Oñatiko abere-hiltzaile bat eta esan zidan urtero –fabrikan lan egiteaz gain– 100 bat txerri hiltzen zituela. Eta baserrietako gizonak, normalean, eurek ere hiltzen zituzten, familiakoekin batera. Hilketak eguna jaieguna izaten zen. Sozializatzeko ere balio zuen eta txerria hiltzen laguntzen zutenendako opari izaten ziren txerriak.

Iparraldeak izan du bere garrantzia. Iparraldea baserri inguruko landa zen, eta hemen, hegoaldean, berriz, XVI. mendean industria geneukan, armagintzarekin eta burdingintzarekin oso lotua, eta jende askok ez zeukan lekurik txerriak hazteko. Orduan, Iparraldetik ekartzen zituzten txerri pila bat, adibidez, Soraluze-
ra, Eibarrera eta Elgoibarrera.

Hemengoak txerri txikiak zirenean, hara bidaltzen zituzten, han gizendu eta berriz ekartzeko. Eta euskaldunek jaten zuten ia haragi bakarra txerriena zen. Behiak lanerako ziren, eta oiloak, arrautzak egiten zituztenak, merkatuan saltzeko. Euskal Herrian oso garrantzitsuak izan dira; Ternuara eramateko, esaterako, zortzi edo bederatzita hilabetetarako gehienbat eramaten zuten urdaia edo urdaiazpikoa jateko. Oso inportantea izan da gure bizimoduan, eta ez hemen bakarrik, zer esanik ez Andaluzian eta Extremaduran. Oraindik euren esportazio inportanteak txerrienak dira. Txinara, esaterako, bidaltzen dituzte izugarriko kantitateak.

Erlijoarekin ere lotu izan da.

Mahomatarrek eta juduek txerria zikina zelako ezin dutela jan esan izan da, eta ez zituzten hezten. Zergatik? Eurak ibiltariak zirelako, eta txerriak ezin zituzten eraman alde batetik bestera. Zer egokitzen zen euren beharretara? Gamelua. Horrek esnea ematen zuen, ibiltaria da, egun asko pasa ditzake urik edan gabe... baina txerriak ura behar du, eta ez da ibiltaria.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Gerra

Nork egin gaitu gizakiok garen bezalakoak? Jainkoren bat izan da edo zer? Gizakia gizaki denetik maitasunaren eta gorrotoaren olatuen artean bizi izan da, eraikiz eta txikituz, bakean eta gerran. Beti gerraren bat, hango lurraldeetan orain, baina hemen ere izan omen daiteke, balizko Hirugarren Mundu Gerra ere aipatzen da. Horretarako prestatzen NATO, antzinako errezetarekin: ahalik eta arma gehien eduki, eta suntsigarriagoak; horretan bai aurreratu baitugu galanki, armen suntsipen gaitasunean.

Zutabe hau apirilaren 26an argitaratuko da, Gernika bonbardatu zuten egunean. Gogoratu beharrekoa, munduan gertatu diren beste bonbardaketak bezala. Egun honetan bada gogoratu beharreko beste gertaera bat ere: Txernobyngo istripu nuklearra. Gizakion eskuetan biak jarrita, gerra eta energia nuklearra, eta horretarako arriskuak handituz doaz, ezin imajinatu nolako ondorioak izan daitezkeen. Oraintxe ematen du gorrotoaren olatua nagusitzen ari zaigula gizakion artean.



IMANOL BELOKI

Elene Guridi 'Galdegazte'-n

Apirilaren 30ean, Goiena telebistako *Galdegazte* saioan Elene Guridi Realeko jokalaria oñatiarra elkarrizketatuko dute Elkar Hezi ikastetxeko DBH-3ko Eider Urzelai, Julen Martiarena eta Ane Sagastume ikasleek, eta kontrolean izango dira Aritz Bermejo, Irati Guridi eta Karina Zaritska. Saioa 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean ikusi ahalko da, martitzenean.

AUTLAN[®]
EMD

**Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.**

Xabier Ugarte omenduko du Oñati Abesbatzak

Oñati Abesbatzak urtero egiten duen elkartrukean, aurten, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoiarekin egingo dute. Maiatzaren 4an Bidaurretan izango da emanaldia, eta Xabier Ugarte omentzeko aprobetxatuko dute

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI Urtarrilean zendu zen Xabier Ugarte euskaltzale eta musikari oñatiarra, eta asko dira ordutik egin dizkioten omenaldiak. Hala, maiatzaren 4an, 12:30ean, Bidaurretako elizan omenaldi-kontzertua eskainiko dio Oñati Abesbatzak, urteetan bertako kide izan baitzen. "Ez zen edonolako partaidea izan, oso garrantzitsua izan zen Oñati Abesbatzarentzat. Esaterako, zuzendaririk ez genuenean, hura aritzen zen zuzendari lanak egiten, horretarako gaitasuna zuen pertsona bakarrenetakoa baitzen. Oso pertsona aktiboa zen", dio Xabier Zelaiak, Oñati Abesbatzako kideak.

Urtarrilean taldeko ohorezko bazkide izendatu zuten Ugarte, eta, era berean, Zelaiak aitortu du garbi zutela emango zuten lehen kontzertua haren "omenez" izango zela. Horrez gainera, Bidaurretako emanaldia aprobetxatuko dute Ugarteri buruzko aipamena egin eta familiari

haren omenezko plaka edo ororigarri bat emateko.

Elkartrukea Madrilekin

Maiatzaren 4ko kontzertua data seinalatua da, gainera, Oñati Abesbatzarentzat; izan ere, kasualitatez, urtero egiten duten elkartrukearekin bat egin du egunak. Iaz, Talavera de la Reina-ko abesbatza batekin egin zuten, eta aurten, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoia-ekin egingo dute elkartruke hori. Xabier Zelaiak dio Esteban bera jarri zela harremanetan elkartrukea egiteko, eta, kontzertuaren ideia azaldutakoan eskaintza oso gustura hartu zuela aitortu du: "Esteban bera

OÑATI ABESBATZA MADRILEN IZANGO DA EKAINAREN 14TIK 16RA; KONTZERTU BAT EMANGO DU HAN

Oñati Abesbatzan aritutakoa da, eta lotura zuzena du bai abesbatzarekin eta baita Xabier Ugarterekin ere. Aita Madinaren musikaren gainean lan asko egindakoak dira biak. Hala, oso ideia ona iruditu zitzaion".

Hamazazpi piezako kontzertua

Madrildik etorritako taldea bada ere, zuzendaria eta abesbatzako hiru kide oñatiarrak dira; beraz, horrek oñatiar kutsua emango dio emanaldiari. Hasieran, Oñati Abesbatzak zazpi pieza abestuko ditu, Miren Gurutze Plazaolak zuzenduta. Ondoren, Esteban Urzelaiak zuzendutako abesbatzak beste zortzi pieza taularatuko ditu. Azkenik, berriz, bi abesbatzek *Aita gurea* eta *Txantxon Piperri* kantuak abestuko dituzte batera; zuzendari bakoitzak pieza bana zuzenduko du. Elkartrukea ez da Bidaurretan amaituko; izan ere, ekainaren 14tik 16ra Oñati Abesbatza Madrilen izango da eta kontzertu bat emango du han.



IMANOL SORIANO

'Walking football'-a Azkoagainen

Joan den asteburuan, futbolaren beste modalitate batekin gozatzeko aukera izan zuten Azkoagainen: hain zuzen ere, Realak eta Athleticen *walking football*-eko partidua jokatu zituzten. Gainera, Realeko taldean bost oñatiarrek jokatu zuten. Partidu horiek Aloña Mendi Elkartearen 75. urteurreneko ekitaldien barruan jokatu ziren.

Kondairen munduan murgilduko da Musika Banda

Oñatiko Musika Bandak kontzertuen denboraldiko bosgarrena eskainiko du domekan kiroldegiko pilotalekuan, 13:00etan. Oraingoan, kondairetan oinarritutako programa izango da; hori dela eta, Ali Babaren historian, Hooken historian, Erdi Aroko gazteluen kondairetan eta persiar merkatu batean sartzeko aukera izango dute ikusentzuleek musikaren bitartez. Gainera, Kontzertuak Familian egitasmoaren barruan dago, eta, beraz, musika eskolako ikasleen banda bat nola osatzen den ikusteko aukera izango dute, baita kontzertua bandako kideen ondotik ikusteko aukera ere, *0 aukia* egitasmoaren bitartez.

Beteranoen arteko partidua maiatzaren 1ean Azkoagainen

Aloña Mendi Kirol Elkartearen 75. urteurreneko ekitaldien barruan, datorren eguaztenean, maiatzak 1, Aloña Mendiko eta Realeko beteteranoen arteko partidua jokatu da Azkoagainen. Etzekoei dagokienez, Aloñan jokalaria izan direnek aste batzuk daramatzate entrenatzen neurketa horri begira. Partidua 11:30ean jokatu da.

Pelax-en kontzertua domekan 18:30ean, denboraldia agurtzeko


Etzi emango zaio amaiera Burrenda Faktoriaren kontzertu denboraldiari, eta azken emanaldian Pelax-en kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da. 2013an bakarkako egitasmoari ekin zion Unai Pelayok, baina, urteak aurrera joan ahala, talde forma hartu du; lau kidez osatuta dago gaur egun. Duela hamar urte hasitako ibilbidean, zazpi disko argitarako dituzte, azkena 2024ko urtarrilean. *Esan gabe doa* du izena lan horrek, eta bertako abestiak entzuteko aukera egongo da Antixena gaztetxean. Kontzertua 18:30ean hasiko da eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 18:00etatik aurrera.

Ligako finalerako txartelak jokoan bihar eta etzi

Herriko Futbol Txapelketa azken txanpan sartu da eta asteburuan ligako finalerdiak jokatu dira. Bihar, 20:00etan, Frakas Brabas eta Albok taldeek jokatu dute elkarren aurka, eta etzi, 19:00etan, Hangöver eta Tutelatruku ari-tuko dira nor baino nor gehiago. Erabakita dagoena Kopako finala da: Shatoken Moura eta Weingüter aurrez aurre.



2022an Bidaurretako elizan eman zuten kontzertua. IMANOL SORIANO



la ze daukon honek... la ba...
Baiñe, baiñe, hauxe suelto dau!
Ba, nik neuk konponduko dot.
Hoooooolaxe... Ointxe, norbaittek
konpondu biherko dust hau...



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.

Helburu handiak jokoan oilarren arteko derbian

FUTBOLA Igoera jokoan dute UDAk eta Bergarak, eta zapatuko derbia erabakigarria izan daiteke (Agorrosin, 12:00). Aretxabaletarrek euren esku dute igoera; mahoneroek, berriz, azken aukerak baliatu beharko dituzte helburua lortzeko

Julen Murua Mesonero BERGARA
Hiru puntu baino gehiago egongo dira jokoan asteburu honetan Bergarak eta UDAk Agorrosinen jokatu duten derbian. Berezi, aretxabaletarren egoerari eragingo dion partida izango da, haiek baitira, denboraldia amaitzeko bost jardunaldiren faltan, helburu handiak lortzeko lehian ari direnak. Hamabost puntu daude jokoan eta lau puntuko aldea dute aretxabaletarrek -66- haien jarraitzaileekiko: Eibar eta Zarautz -62-. Bergararren kasuan, berriz, duela bi asteko Zarautzen aurkako porrotak aukera ia guztiak xahutu zizkien, baina, hala ere, zapatuko derbia aurreneko postuei lotzeko behin betiko aukera izan daiteke mahoneroentzat.

"Zaila, baina polita"

Asteburuko derbiaz galdetuta, elkarrirrespetu handia diote Unai Calzonek eta Iker Ruiz de Larramendik, eta bi taldeetako entrenatzaileak bat datoz ideia berarekin: partidu zaila izango dela, baina, era berean, polita. Hutsean amaitu zuten joaneko partidua, Ibarra; bi taldeek

erakutsi zuten garaitzeko zailak diren taldeak direla, eta "itzuliko partiduak ere derbiak izaten dituzten osagai berberak" izango dituela uste dute bi entrenatzaileek.

Azken aukera

Bala gutxi gelditzen zaizkio Bergarari aurreneko postuei eusteko, eta, "play-off postuak urruti" ikusten dituzten arren, aukera guztiei heldu nahi dietela dio Ruiz de Larramendik. "Partidu oso zaila" izango dela aurreikusten du entrenatzaile bergararrak, eta "etxean jokatzeko nabaritu egin beharko da", haren esanetan, hiru puntuak Agorrosinen gera daitezten. Azkenengo partiduetan "ahalik eta puntu gehien lortzea" du helburu Bergarak, "goiko talderen bat despitatuz gero bertan egoteko".

LIDERGOARI EUTSI NAHI DIO UDA-K; BERGARAK, BERRIZ, GOIKOEN HANKA-SARTZEAK BALIATU

Hutsegiterik ez

Badirudi hiru izango direla lehenengo postua eskuratzeko lehian arituko diren oilarrak, eta horien artean ondoen kokatuta dagoena UDA da. Aurkari zuzenen kontra jokatzeko falta bazaie ere, Calzonek euren eskuetan dute igoera: lehenengo sailkatuak dira eta oraindik badute huts egiteko aukeraren bat. Hala ere, ezin dira askorik despistatu; izan ere, orpoz orpo jarraitzen diete eibartarrek eta zarautzarrek. Aretxabaletarrek dio "gelditzen diren partidu guztiak oso garrantzitsuak" direla eta ez dagoela "besteak baino inportanteagoa den jardunaldirik".



IKER RUIZ DE LARRAMENDI
BERGARAKO
ENTRENATZAILEA

"Ahalik eta puntu gehien ateratzea da helburua, eta asteburu honetan hasi nahi dugu; nabaritu egin behar da etxean jokatzeko dugula".



UNAI CALZON
UDA-KO
ENTRENATZAILEA

"Oraindik asko falta da: bost partidu, bost mundu. Partiduz partidu joan nahi dugu, eta ez dugu jardunaldi bakarrean zentratu nahi".



Luken Arriola eta Mikel Ortiz de Urbina, iazko derbian, Bergaran. IMANOL SORIANO



Aitor Ajuria, iazko irabazlea, deabruarekin helmugaratzen. IMANOL SORIANO

Suziria zerura botatzeko ordua iritsi da, favorito garbirik gabe

MENDI LASTERKETA Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako 342 korrikalarik hartuko dute parte Aloñako Igoeran

J.M.M. OÑATI

Ate joka dago Aloñako Igoeraren XIX. edizioa, eta dagoeneko korrikalariak hasi dira euren gorputzak berotzen. Domekan 90:30ean botako dute zerura lasterketaren hasiera adieraziko duen suziria, eta orduan hasiko dira Euskal Herri osoko baina baita Iberiar penintsulatik etorritako lasterkariak helmuga deabruaren eskutik zeharkatzearen bila.

Faborito garbirik ez

342 korrikalari arituko dira Aloñan gora, eta, horien artean,

hainbatek dituzte lasterketa irabazteko aukerak. Golden Trail Series zirkuituko aurreneko probaren irabazle Fabian Venero eta June Villaroel dira horietako bi, baina badaude beste hainbat protagonista ere, hala nola, Nuno Oliveira, Walter Berra, Gontzal Murgoitio, Aitor Ajuria -azken txapelduna-, Ibai Larrea, Oihana Kortazar, Lide Urrestarazu -euskal selekzioko korrikalaria- eta Ainara Uribarri oñatiarra. Hainbat dira aipatu gabe gelditzen diren izenak, baina guztiek izango dute garaikurra lortzeko aukera.

La Salleri irabaziz gero, lauko finalerako txartela lortuko du MUK

SASKIBALOIA "Hil edo biziko partidua" izango da domekakoa, Iñaki Ogara entrenatzailearen hitzetan

J.M.M. ARRASATE

Bi jardunaldi besterik ez zaie gelditzen Mondragon Unibertsitateko ligaren erregularra amaitzeko, eta asteburu honetan lauko finalerako txartela eskuratu dezakete, Ibarra kiroldegian La Salleren aurkako partidua irabaziz gero, domekan, 18:00etan.

Aste Santu aurreko bi porroten ostean, bolada onari eutsi diote berririo Iñaki Ogarenekin, hiru garaipen jarraian erdietsita; Donostiako La Salle taldearen -sailkapeneko bosgarrena- bisita izango dute asteburuan,

Ogararen hitzetan "final bat" izango den partiduan. La Salle baino garaipen bat gehiago dute arrasatearrek bi jardunaldiren faltan, eta, joaneko partida bi punturen aldearekin irabazi zutela jakinda, garaipenarekin lauko finalerako txartela lortuko lukete. Ogarak dio "hil edo biziko partidua" izango dela eta garaipena taldeak egindako merituei aitortza izango litzatekeela: "Taldea egin duen denboraldi izugarria da eta meritu guztiak egin dituzte denboraldia borobildu eta saria eskuratzeko".

Gerraosteko istorio bat Altunaren film berrian

Kirmen Uriberen 'Elkarrekin esnatzeko ordua' eleberrian oinarritutako 'Karmele' fikziozko film luzea ari da grabatzen Asier Altuna 'Kixi' bergararra; Jone Laspiur eta Eneko Sagardoy dira protagonistak, baina Debagoienekoak ere badira aktore lanetan

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

30eko hamarkada amaieran Frantzia erbesteratuta dagoen erizain euskaldun bat da Karmele Urresti –Jone Laspiur aktoreak gorpuzten du–. Txomin Letamendi tronpeta-jole birtuoso azagutuko du Frantzia –filmean Eneko Sagardoy aktoreak interpretatuko du–. Maitasun eta konpromiso politikoko istorio bat bizi izango du bikoteak askotariko herrialdeetan bizi ondoren; Parisen, Caracasen eta Euskal Herrian, besteak beste. Familia bat osatuko dute elkarrekin, elkarrenganako konplizitate osoarekin, harik eta bi aukeraren artean erabaki behar duten momentua heltzen den arte: familia edo ideiekiko fidelitasuna. Hala laburbiltzen dute Asier Altuna kide den Txintxua Films ekoiztetzeko arduradunek egunotan errodutzen ari diren film luzearen istorioa.

2018an iragarri zuen Bergarako zinemagileak *Karmele* filma egiteko asmoa, eta, beharrezko finantzaketa lortu ondoren, orain dela egun gutxi hasi da grabaketa egiten. Euskarazko proiektu bat da eta Asier Altuna *Kixi* zinemagileak eta Marian Fernandez ekoizle eragileak gidatzen duten Txintxua Films eta Esnatzeko Ordua Films ari dira ekoizpen lanetan.

Kirmen Uriberen liburua oinarri

Karmele Urrestiren eta Txomin Letamendiren benetako istorioan oinarritutakoa da, Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian inspiratuta. "Askatasun faltaren aurrean agertzen den pertseberantzia, borroka eta duintasunari buruzko pelikula bat da *Karmele*. Era berean, kultura, musika eta artea zeharkatzen dituen bidaia bat ere bada. Beti erakarri izan naute hainbat belaunaldiren elkarbizitza era-



Eneko Sagardoy eta Jone Laspiur aktoreak Asier Altunarekin. DAVID HERRANZ

kusten duten historia familiarrek. Karmele ezagutarazi nahi dut, gazte-gaztetatik muturreko egoerei aurre egin behar izan dien emakumea, jarrera ausarta eta konprometitua duena, haren ideiekiko kontsekuentea eta ideia horiek erabakitasunez defendatzen dituenaz, azaldu du Asier Altuna zinema-zuzendariak.



Karlos Etxaniz, grabatzen. K.E.

Altunak idatzi eta zuzendu du filma, eta ohiko lantaldea du ondoan, euskal zinemagintzako profesional asko: Ander Sistiaga produkzio-zuzendaria, Javier Agirre argazki-zuzendaria eta Zalua Ziluaga arte-zuzendaria, batzuk aipatzearen

Aurrekontu "handia"

Bilbon, Urduñan eta Lekeition egin dituzte dagoeneko hainbat grabaketa, eta Donostian, Hondarribian, Tolosan eta Lapurdin izango dira datozen asteetan, maiatzaren 31ra bitartean, eten barik errodutzen. "Anbizio handiko pelikula bat da. Handi bihurtu da, eta uste dut pelikula inportantea izango dela", azaldu du Altunak *Berria* egunkarian egindako adierazpenetan.

Abeslariak ere aktore

Jone Laspiur (*Ane*, *Maixabel*, *Akelarre*) eta Eneko Sagardoy (*Handia*, *Irati*, *Patria*) dira filmeko protagonistak nagusiak eta talde artistikoan daude ibilbide

luzea duten aktore gehiago; esaterako, Nagore Aranburu (*Irati*, *Querer*) eta Javier Barandiaran (*Maixabel*).

Aurpegi ezagunekin batera, baina, Altunak herrikideengana ere jo du, hasiera batean, abeslari lanak egiteko proposatzera. Hauxe kontatu du haren lagun Karlos Etxaniz bergararrak: "Film berrirako soinu banda kide naizen KUP abesbatzak kantatzea proposatu zidan, eta taldekoekin komentatu ondoren baiezkota eman genuen pozarren. Donostiako estudio batean grabatu dugu dagoeneko filmarentzako musika. *Kixi*-ren lantaldeak ekoiztu zuen *Oreina* filmean ere hala egin genuen, eta esperientzia polita izan zen. Aurrez hainbat soinu bandatan abestu dugu; *Lo imposible* eta *El orfanato* film luzeetan, esaterako".

Eresoinka kultura taldekoak

Filmean kantatzeko proposamenaz harago, aktore lanetan jarduteko proposamena ere egin zion Altunak Etxanizi geroago. "Eresoinka kultura taldeko kideak ziren istorioko protagonistak; hori horrela, filmeko kontakizuneko une batzuek talde horretan bizi izandakoak jasotzen dituzte; izan ere, garai hartan garrantzi handiko kultura taldea izan zen hori euskal politika giroan. Bada, KUP abesbatzako kide batzuk agertuko gara filmean Karmelerek eta Txominekin kantuan. Hiru errodaje-egunetan izan naiz, eta oraindik ere joango naiz beste hainbat pasarte grabatzera. Kantatzeaz gain, hitz batzuk esateko aukera ere eman digute. Esperientzia polita izan da oraingoan ere, nahiz eta gure egunerokotasuneko lan kontuekin uztartzea ez den samurra izan", gaineratu du Etxanizek.

"KULTURA, MUSIKA ETA ARTEA ZEHARKATZEN DITUEN BIDAIA BAT DA"

ASIER ALTUNA, ZINEMA-ZUZENDARIA

"SOINU BANDA KANTATZEAZ GAINERA, ANTZEZTU ERE EGIN DUT"

KARLOS ETXANIZ, ABESLARIA

Publikoak erabakiko du Algaraka-ko lehiakide bat

Idoia Torregarai, Josu Zubiak eta Aner Peritzek osatutako epaimahaiak aukeratu ditu izena eman duten hamabost herri-tarretatik hamaika lehiakide, eta publikoaren ardura da hamabigarrena aukeratzeko.

Algaraka.eus webgunean ikus daitezke parte-hartzaileen bideo guztiak, eta hor eman daitezke botoa ere; gaur, apirilak 26, da bozketan parte hartzeko azken eguna. Astelehenean, apirilak 29, jakinaraziko dute antolatzaileek lehiakideen zerrenda eta saioen egutegia.

Lau saio, guztira

Bergarako Seminarixoan izango da Jardun Euskara Elkarteak Goienarekin antolatutako bakarrizketa lehiaketaren lehen kanporaketa, maiatzaren 10ean, eta, hurrenez hurren, Urretxuko Labeaga aretoan eta Zumaia-ko Aita Mari aretoan izango dira hurrengo egubakoitzetan. Maiatzaren 31n izango da finala, Seminarixoan, 20:00etan.

Kooltur Ostegunak denboraldiaren azken txanpan sartuko dira

Urriari hasi eta maiatzera bitartean antolatzen du Kooltur Ekin-tzak taldeak Arrasateko gazte-txean egiten duten eguneneko kultura eskaintza. Eta prest dute denboraldiko azken sorta. Granadako La Sole rap kantaria gonbidatu dute datorren astera, eta Danele Sarriugarte idazlea eta Miren Narbaiza *Mice* abeslaria izango dira maiatzaren 16an lekukoa hartuko dutenak: *Poperra*, *afterra* eta *Utopia* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Maiatzaren 9an San Pankrazio eguna izanik ez dela eskaintzarik izango adierazi dute Kooltur Ostegunetako bultzatzaileek.

Bukatzeko, Lisabö

Maiatzaren 23an, Arrasaten hainbat alditan izan diren Lie Detectors gipuzkoarrak izango dira protagonista, eta, eskaintza borbiltzeko, eskarmentu handiko Lisabö zarpikotea gonbidatu dute maiatzaren 30erako. Emanaldi guztiak 22:00etan izango dira, eta sarrerak, zazpi eurotan.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Alokairua Arrasaten. Etxebizitza errentan hartuko nuke Arrasaten. Alaba bat duen pertsona langile eta arduratsua naiz. Deitu telefono honetara: 646 47 59 02

Bergara. Bergaran etxea errentan hartuko nuke. Bi ume dituen ama naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 34 10

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Arrasateko Olarte kalean dagoen Etxoste taberna errentan ematen da. Interesa izanez gero, idatzi naiamc-neill2000@gmail.com helbide elektronikora, edo deitu 605 43 93 04 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Bergarako Labegaraieta tabernan lan egiteko pertsona bila gabilta. Interesa izanez gero, tarbenara etor zaitzke curriculuma uztera. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 78 89 18

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Orduka lan egiteko, asteburuetan edo gauetan prest dagoen emakumezkoa. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 69 40 90

Arrasate. Astean behin etxean garbiketa egiteko prest dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. 7 urteko esperientzia dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 51 42 99

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzeria lagundu edota konpainia egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Arrasate. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Zaintzan esperientzia handia dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 66 76 91

Bergara. Emakume arduratsua, esperientziaduna eta soziosanitario tituluakin, nagusiak zein umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Lanaldi erdiz lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 628 64 22 76.

Debagoiena. Emakumea goizetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 96 78 69

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanak egin edota haur eta nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 671 64 11 25

Debagoiena. Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 37 01 92.

Debagoiena. Emakumea zaintza edota garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumezkoa astelehenerik ostiralera bitartean etxean bertan bizi izaten lan egiteko prest, baita orduka edo gauetan ere. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia dut eta erizaintzako laguntzaile eta geriatria ikasketak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 14 83 (Dori)

Debagoiena. Emakumezkoa etxe eta tarbebetan garbiketa lanak egin edota umeak zaintzeko prest. Malgutasun osoa dut. Orduka, egunean zehar ezein gauetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 691 28 53 25

TABERNARIA

Bergarako Labegaraieta tabernan langilea behar da. Interesatuok utzi curriculuma tabernan.

Debagoiena. Emakumezkoa garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko prest. Malgutasun osoa dut. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 44 48 98

Debagoiena. Erizain laguntzaile naiz eta nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke egunean zehar zein gauetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientzia nagusien zaintzan. Behar izanez gero, erreferentziak aurkeztu ditzazket. Malgutasun osoa dut. 643 21 04 28

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Legezko agiriak ditut. Deitu 666 16 95 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, egunean zehar edota gauetan, etxe zein ospitaletan. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. Etxe edo ospitaletan nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Astean zehar zein asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut eta nire herrialdean erizaintza ikasketak egin nituen. Esperientzia dut nagusien zaintzan. 643 50 56 62

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako esperientzia dut. 632 10 85 60

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 677 00 90 26

Debagoiena. Etxean bertan zein etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Asteko edozein egunetan lan egiteko prest nago. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia asko duen gizonezkoa naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 37 43 11

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Legezko agiriak ditut. Deitu 666 16 95 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak ere. Deitu 631 93 11 90 telefono zenbakira.

Debagoiena. Gizonezkoa garbiketa lanetan, erakuntzan edo sukaldari-laguntzaile bezala lan egiteko prest. Sukaldari lanetan esperientzia dut. Legezko agiriak ditut. 633 49 39 78.

Debagoiena. Gizonezkoa lan ezberdinetan aritzeko prest. Baserrietan, pertsona nagusien zaintzan, fabriketan. Lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut lan motari eta ordu-tegiari dagokionean. Telefonoa: 604 19 00 27

Debagoiena. Gizonezkoa prest etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke, baita enpresetako karga-jasagailu gidari ere. 614 11 43 60

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumezkoa. Orduka lan egingo nuke. 643 50 58 27

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka, etxe zein ospitaletan. Egunean zehar eta gauetan lan egiteko prest. Deitu 647 31 48 17 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Malgutasun osoa dut. Telefonoa: 632 54 45 86

Debagoiena. Pertsonak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. 624 09 66 51

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak dituen eta lanerako malgutasun osoa duen gizona naiz. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. 672 55 67 35

8. DENETARIK

806. GALDU

Arrasateko Zigarrola auzoa. Apirilaren 17an, auto bi buru-euskarri eta maletategi-estalki bat ahaztuta utzi genituen Zigarrola auzoan dagoen Merkaldendak aurrean. Informaziorik baldin baduzu, deitu, mesedez, hurrengo telefono zenbakira: 629 38 59 15

ZORION AGURRAK



OÑATI Unax Gende Sanchez
Apirilaren 30an, 10 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat etxeko partetik! Asko maite zaitugu.



OÑATI Gari Letamendi Mugarza
Apirilaren 29an, 5 urte. Zorionak, Gari! Azkenian allau da zure urtebetetze eguna. Ondo ondo pasau. Muxu handi bat familia eta lagunentz partetik.




OÑATI Maia Igartua Zubia
Apirilaren 28an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! 9 urte iada. Ondo ondo pasau zure urtebetetze eguna!



OÑATI Ihabar Agirrezabal Maiztegi
Apirilaren 27an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau zure urtebetetze eguna! Asko Maite zaitugu! Jarraritu zaren modukoa izaten!



BERGARA Paul Erdozia Barrenetxea-Arando
Apirilaren 26an, 8 urte. Zorionak, Paultxo! Segi beti bezela, infinito maitxe zaitzugu!



OTXANDIO Aimar Arejoleiba Carrasco
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau zure urtebetetze egunean. Musu handi bat Atxabaltatik.



ARRASATE Unax Andres Lopez
Apirilaren 23an, 9 urte. Zorionak, maitia! Primeran pasau zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik. Izugarri maite zaitugu!



ARRASATE Enara Calle Alonso
Apirilaren 23an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Muxu potolo bat familia guztian partetik. Maite zaitugu!



ARETXABALETA Amaia Garcia
22an, 48 urte. Zorionak, Amaia! Ondo ospatu zure eguna eta ez ahaztu inoiz, hemen gaudela zuretzat edozertarako! BARIKUTXUKO lagunak.



ELGETA June Askasibar Zabala
Apirilaren 20an, 7 urte. Zorionak, June! Muxu potolo bat familia osoaren partetik!



ZORIONTEKO HIRU BIDE
• Goiiena.eus-en erabiltzaile sortu eta *Goiiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
• Mezua bidali *zorionagurrak@goiiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
• Zatoz Goienera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI Olaia Urkia
20an, 9 urte. Zorionak, bihotza! 9 urte. Ondo pasa zure eguna familia eta lagunentz partetik. Besarkada eta muxu erraldoi bat maite zaitugun guztien partetik.



OÑATI Aiala Velasco Juan
Apirilaren 19an, 5 urte. Zorionak, bihotza! Esku oso ia! 5 urte! Ondo pasa!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiiena paperean eta Goiiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiennakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiago argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti

Inmobiliaria

Bergara: San Antonio,
69m² erabilgarri,
2 logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
203.000€

Bergara: Iriburu,
73m² erabilgarri,
oso eguzkitsua eta
kanpoaldekoa. Eraikina
igogailuarekin.
155.000€

Bergara:
Koldo Eleizalde,
90m², erabilgarri, 3 logela,
oso eguzkitsua, terraza
eta trastelekuarekin
165.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmikorosti.com

Informazio
gehiago:



HILDAKOAK

Juan Ugarte Lopez de Vergara.
Aramaion, apirilaren 18an. 72 urte.

Juanita Goñi Mujika.

Aretxabaletan, apirilaren 22an. 95 urte.

Javier Linazasoro Arruti.

Arrasaten, apirilaren 21an. 70 urte.

Maria Sanchez Horrillo.

Quintana de la Serenan, apirilaren 23an. 88 urte.

Juanita Ayastuy Viteri.

Arrasaten, apirilaren 23an. 94 urte.

Antonio Garcia Barquero.

Arrasaten, apirilaren 19an. 79 urte.

Mari Angeles Urain Aranalde.

Arrasaten, apirilaren 24ean. 87 urte.

Maria Dolores Estevez Saenz.

Bergaran, apirilaren 24ean. 92 urte.

Felix Zubia Ruiz de Aza "Txomin".

Eskoriatzan, apirilaren 18an. 91 urte.

Iñaki Zubizarreta Letona "Arrupe".

Eskoriatzan, apirilaren 20an. 75 urte.

Plazido Urzelai Kortabarria.

Oñatin, apirilaren 19an. 95 urte.

Pilar Lazcanoiturburu Garmendia.

Oñatin, apirilaren 20an. 96 urte.

Liboria Barbero Barbero.

Oñatin, apirilaren 24ean. 90 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 26 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Zapatua, 27 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Domeka, 28 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 29 JUNCAV: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Martitzena, 30 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Eguaztena, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Eguena, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 26 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 27 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 28 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 29 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 30 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 2 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 26 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Zapatua, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Domeka, 28 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Astelehena, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Martitzena, 30 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguaztena, 1 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguena, 2 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

**Mila
Igartua Egaña**



2023ko apirilaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 28an,
12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.



Oñatin, 2024ko apirilaren 26an.

ESKER ONA



**Araceli
Bolinaga Askasibar**

Roke Zubizarreta Leteren alarguna



2024ko apirilaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

*Eskerrik asko ama/amama
emondako guztiagatik,
joan zara gure ondotik
baina ez gure bihotzetik.
Zauden lekuan zaudela
muxu handi bat denon
partetik.*

Hileta-elizkizunetara
etorritakoei eta samin-
agurrak bidali dizkiguzuenoi
eskerrik asko, sendikoen
izenean.

Bergaran, 2024ko apirilaren 26an.

ESKER ONA

**Juanita
Goñi Mujika**

Maximo Arenazaren alarguna



2024ko apirilaren 22an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 26an.

OROIGARRIA

**Juanita
Goñi Mujika**

Maximo Arenazaren alarguna



2024ko apirilaren 22an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko danagatik, amandria.

Zure lobak: Xabier, Lide, Iker eta Jon.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 26an.

ESKER ONA

**Iñaki
Zubizarreta Letona**

'Arrupe'



2024ko apirilaren 20an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
Eskoriatzan, 2024ko apirilaren 26an.

ESKER ONA



**Antonio
Garcia Barquero**



2024ko apirilaren 19an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
Arrasaten, 2024ko apirilaren 26an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak
gure bidez agurtzen lagunduko
diegu, orain arte bezala, eta guztiak
izango ditue agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gurean
izan dituzten konfiantzagatik eta
maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZULEA • Moyua OÑATI



ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**JOSE ANTONIO AZPIAZUREN AZKEN LIBURUA**

El cerdo en la historia de los vascos liburua aurkeztuko du eta Jon Muruaren galderei erantzungo die.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ALOÑAKO IGOERAREN LABURPENA**

XIX. Aloñako Igoerak emandakoa erakutsiko dute: irudi ikusgarrienak eta protagonisten iritziak.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'**

Herbehereetan bizi den Aroa Elortza bergararrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**KAZETARI GAZTEAK ELENE GURIDIREKIN**

Realeko bigarren taldeko jokalarri oñatiarrak Elkar Heziko ikasleen galderak erantzun ditu.

'Galdegazte' Martitzena, 21:30 eta 23:30

**AMAGOIA GURRUTXAGARI ELKARRIZKETA**

Profesionalak izan ginen urtea liburuz egingo du berba Joni Ubeda kazetariarekin.

'Elkarrizkettap' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26**ARRASATE San Andres auzoko jaiak**

11:00etan, haur eskolako kalejira; 17:00etan, pregoia; 17:15ean, marrazki lehiaketa; 17:30ean, buruhandiak; 17:30ean, aurpegi-margotzea; 18:00etan, txokolate-jana; 21:00etan, Cricket dardo txapelketa; eta 23:00etan, Gozategi.

San Andres auzoan.

ELGETA Liburutegia plazara

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira.

Mendizaleen plazan, 16:00etan.

ARETXABALETA Liburuaren Nazioarteko Eguna

17:00etan, literaturke azoka; 18:00etan, haiku irakurketa; 19:00etan, haiku erronkan parte hartu dutenen artean zozketa; eta 20:00etan, azokaren itxiera eta luntxa.

Arkupe kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA 'Elkarrekin jolasean' olinpiar jokoak

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailen arteko neska-mutikoak eta nagusiak elkartuko dira.

Munibe plazan, 17:30ean.

ARETXABALETA Disko-festa

Aretxarte merkatarien elkartearen eskutik.

Ilargi plazan, 18:00etan.

ARRASATE 'Euskelelea' ikuskizun musikatua

Euskal Barrok Ensembleren eta Goikobalu Txiki Abesbatzaren eskutik, 4 urtetik gorakoentzat. Aurrez izena eman behar da.

Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA Elorregi auzoko jaiak

18:00etan, plaza garbitzea eta txopoaren igoera; eta 20:00etan, afaria.

Elorregin.

BERGARA 'Material bisual sentikorra' erakusketa

Eduardo Alsasuaren margolanak, gaurtik maiatzaren 12ra.

Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloi Elkartearen eskutik.

Kulturolan, 18:30ean.

OÑATI Olabarrietako jaiak

18:45ean, kalejira, Artxubi baseritik abiatuta; 19:00etan, etxafuegoak eta txorimaloak; eta 22:00etan, Zentzu Okerra, Txua, Emaion eta Bob Marlet taldeak eta DJak.

Olabarrieta auzoan.

ZAPATUA 27**OÑATI Orkatzategira mendi irteera**

Euskal Mendi Federazioaren 100. urteurrenaren harira.

Foruen plazan, 07:00etan.

ELGETA Gazte Eguna

10:00etan, areto-futbol txapelketa mistoa; 12:30ean, poteoa; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, JB bikotearen kontzertu akustikoa; eta 22:00etan, Korda Rota, Kaparrak, Fito Skins eta Babesgabe taldeak.

Elgetan.

ARRASATE Jaiak San Andresen

11:00etan, puzgarriak; 11:30ean, pulpeiroak; 12:00etan, herri kirolak; 15:00etan, bazkaria; 16:00etan, hip-hop erakustaldia; 20:00etan, Salvate Si Puedes, Kontralde, Josetxu Piperrak, A Fuego Y Tu eta Malaña taldeak.

San Andres auzoan.

ESKORIATZA Gazte Eguna

11:00etan, mural-margotzea; 13:00etan, poteoa; 15:00etan, bazkaria; 20:00etan, Lizartxo eta Oihu taldeak; eta 00:00etan, pintxada kolektiboa Inkernun.

Eskoriatzan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Ordutegia: 11:30-13:30.

Erguingo gazte txokoa.

OÑATI Parrokiako kanpandorrearen liburu aurkezpena

Jose Ramon Arrazola egileak aurkeztuko du. Sarrera, kanpandorrearen azpiko atetik.

Parrokiako sakristian, 11:30ean.

OÑATI Olabarrietako jaiak

13:00etan, pilotako finalerdiak; 14:30ean, bazkaria, eta ostean, Egaña eta Lizaso bertsolariak eta Izer eta Alabier trikitalariak; eta 19:00etan, erromeria.

Olabarrieta auzoan.

BERGARA Elorregi auzoko jaiak

14:30ean, bazkaria, Tatiegi, Peñagarikano eta Zuazubiskar bertsolariekin eta Iztueta soinu-jolearekin; 18:00etan, jolasak; eta 21:30ean, Sukena, Zentzu Okerra eta 3ttu taldeak.

Elorregin.

LEINTZ GATZAGA Gipuzkoako Bola jaurtialdia

Gipuzkoako 53. hiru txirilo txapelketa.

Bolatokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Mastertxef' eta 'Epaleen dastatzea' ekintzak

Gaztetxoendako.

San Andresko gazte txokoa, 17:00etan.

ANTZUOLA Olatz Salvador eta Mattin Saldias

Bikote formatuan egingo dute. Sarrerak, hamar euro.

Torresoroan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Korrontzi 20' emanaldia

Bizkaiko taldearen 20. urteurreneko biraren baitan. Sarrerak, bost euro.

Arkupen, 20:00etan.

DOMEKA 28**OÑATI XIX. Aloñako Igoera**

Aurten, Golden Trail National Series zirkuituaren barruan. 10:30ean, Aloña Txiki.

Foruen plazan, 09:30ean.

ANTZUOLA San Isidro Pilot Txapelketa

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan.

Frontoian, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Mendizaleen plazan, 10:30ean.



OLATZ SALVADOR

BERGARA Elorregi auzoko jaiak 10:30etan, meza; 11:00etan, pilota partiduak, eta ostean, pintxoak; eta 14:00etan, etxafuegoak. *Elorregin.*

OÑATI Olabarrietako jaiak 11:00etan, meza nagusia; 12:30etan, gazta eta sagardo dastatzea; 17:00etan, jolasak; eta 18:00etan, txorimaloak. *Olabarrieta auzoan.*

ARRASATE Jaiak San Andresen 11:00etan, puzgarriak; 11:30etan, pulpeiroak; 12:00etan, erraldoiak; 13:00etan, patata-tortilla lehiaketa; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, Potx magoa; eta 18:00etan, disko-festa. *San Andresen.*

OÑATI Pelax taldea Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak: zortzi eta hiru euro. *Gaztetxean, 18:30etan.*

ESKORITAZA Pelikula: 'Bizkarsoro' filma Josu Martinezen lana. Debalde. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARAMAIO Laburbira Zortzi film laburren emanaldia. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ARRASATE Savage Beat taldea Amsterdamgo taldeak geldialdia egingo du Arrasaten, Alonsotegitik eta Madrildik bueltan. Punk, rock eta garage musika jotzen dute. *Irati topalekuan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 29

ARRASATE 'Loezina eta loaren apneak' hitzaldia Felix Zubiak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

MARTITZENA 30

ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea Euskarazko liburu baten irakurketa egiteko saio irekiak. Izena, liburutegian. *Liburutegian, 19:00etan.*

ANTZUOLA Olatz Salvador eta Mattin Saldias

Bikote formatuan igoko dira oholtzara Salvador eta Saldias, eta emanaldi akustikoa egingo dute, gitarrak lagunduta. Sarrerak, hamar eurotan, *Bibe.me* atarian. *Bihar, zapatua, Torresoroan, 19:00etan.*

BERGARA Labegarrietako jaiak

19:00etan, jaiari hasiera kiroldegi aurreko plazan; 19:15ean, patata-tortilla lehiaketa; eta 21:00etan, DJ Julen Narbaiza. *Labegarrietan.*

EGUAZTENA 1

ARRASATE Jaiak San Andresen 10:00etan, Kurtzetzikira mendi irteera; 11:00etan, meza; 13:30etan, poteoa Ad Libitum txarangarekin; 14:00etan, nagusien bazkaria eta dantzaldia; 18:30etan, *Bocabeats comedia*; eta 20:00etan, Trumans taldea. *San Andresen.*

BERGARA Labegarrietako jaiak 10:00etan, diana; 11:00etan, meza eta marrazki topaketa; 13:00etan, poteoa; 14:30etan, bazkaria; 16:00etan, auzo-krosa; eta 17:00etan, haurrentzako eta gazteentzako jolasak. *Labegarrietan.*

OÑATI Olabarrietako jaiak 11:00etan, meza nagusia, eta ostean, pilota txapelketako finalak; 12:00etan, luntxa eta dantza emanaldia; eta 16:00etan, mus txapelketa. *Olabarrietan.*

ARRASATE Idazketa tailerra:

azken saioa Miren Amuriza idazleak gidatutako azken saioa egingo dute gaur. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARRASATE 'Familian sexualitateaz hitz egiten' hitzaldia

Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA 'La bete' pelikula

Jatorrizko bertsoian eta azpitu-luekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 2

BERGARA '3.000 metroen mugan pedalkatuz' ikus-entzunezkoa

Jon Bikandik egingo du berba. *Pol Polen egoitzan, 19:00etan.*

ARRASATE La Sole bakarlarria Granadako musikariaren emanaldia Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 3

ELGETA 'Urmaeleko biodibertsitatea' saioa 16:30etan, eskolan, *Uraren hegoak* erakusketa; eta ostean, saio teoriko-praktikoa. *Elgetan.*

BERGARA Bakarrizketa: Ane Lindane

Bergarako Sorturen Udaberri Feminista ekimenaren baitan. *Arrano tabernan, 22:30etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Mayday Club
Zapatua, domeka
eta astelehena:
19:30.

BERGARA

SEMINARIXOA

Pequeñas cartas indiscretas
Domeka eta
astelehena: 19:30.

Dragoi-jagolea
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Pájaros
Egubakoitza:
22:00.
Zapatua: 19:30,
22:00.

Domeka eta
astelehena: 19:30.

Dragoi-jagolea
Zapatua eta
domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Pájaros
Egubakoitza:
16:30, 22:30.
Zapatutik
astelehenera:
20:30, 22:30.
Martitzena:
17:30.

La familia Beneton
Egubakoitza eta
astelehena:
18:35.

Zapatua eta
domeka: 12:00,
18:35.

Pequeñas cartas indiscretas
Egubakoitza,
astelehena eta
martitzena:
16:30, 20:30.
Zapatua eta
domeka: 12:00,
16:30, 20:30.

Emma y el jaguar negro
Zapatua eta
domeka: 12:00.

Menudas piezas

Egubakoitza:
17:30, 19:45,
22:00.
Zapatua eta
domeka: 12:00,
18:30, 20:30,
22:30.
Astelehena eta
martitzena:
18:30, 20:30,
22:30.

Civil war
Egubakoitzetik
martitzenera:
17:00, 21:30.

Dragonkeeper
Egubakoitza:
18:30, 20:30.

Zapatua eta
domeka: 12:00,
16:30, 18:30.
Astelehena: 16:30,
18:30.

Siempre nos quedará mañana
Egubakoitzetik
martitzenera:
16:45, 19:15,
21:45.

Ama Gloria
Egubakoitzetik
astelehenera:
16:30, 20:30.
Martitzena: 16:30.

El especialista

Egubakoitza,
astelehena eta
martitzena: 17:00,
19:30, 22:00.
Zapatua eta
domeka: 12:00,
17:00, 19:30,
22:00.

Rivales
Egubakoitza,
astelehena eta
martitzena: 16:30,
19:15, 22:00.

Zapatua eta
domeka: 12:00,
16:30, 19:15,
22:00.

The Palace
Egubakoitzetik
martitzenera:
19:15, 22:30.

Historias de Tokyo
Martitzena: 18:35,
20:30.

Rosalie
Egubakoitzetik
martitzenera:
18:15, 22:30.

Kung Fu panda 4
Zapatua eta
domeka: 12:00,
16:30.
Astelehena eta
martitzena: 16:30.

La casa
Martitzena: 20:15.

KRITIKA

La quimera

★★★★★

Zuz.: Alice Rochrwacher. **Herr.:** Italia (2023). **Aktoreak:** Josh O'Connor, Isabella Rosellini, Carol Duarte. **Iraupena:** 130 minutu.

Altzor ezkutua

ANTONIO ZABALA

Sentsazio atsegina izaten da zinema-aretoa sartzen zarenean eta ez duzuenean sumatzen ikusten ari zaren istorioa nola garatuko den edo zein bidetik joango den. Ez dut esaten ezer ulertzen ez denean —halako filmak era badaude—, baina, istorio eta kontatze modua ildo arruntetik aldantzen denean, ikuslearen jakin-nahia berpizten da. Hori bai, batzuetan ikusleak ikuspegi zabala izan behar du, baina istorioan sartzen denean, gozatzeko aukera izaten du. Horixe da *La quimera* filmarekin gertatzen dena.

Istoriota Italian gertatzen da, joan den mendeko 80ko hamarkada inguruan. Protagonista lurpean dauden hilobi eta altzor etruskoak

topatzeko ahalmen berezia duen ingelesa da. Ganora gutxiko pikaro-talde batekin lan egiten du, legez kanpo aurkitutako altzorra partikular bati saltzeko. Noraezean dabil, gabe maite zuen neska gaztearen galeragatik, eta bidean pertsonaia pila bat topatzen ditu. Zuzendariak formatu eta tamaina askotariko irudiak erabiltzen ditu, garai eta mota askotariko musika... Bada juglare moduko bat bere kantuen bidez istorioaren zatiak kontatzen dizkiguna. Jauregi zaharra, tren geltoki abandonatua, auzoetako berbera musikalki eta altzor etruskoak agertzen dira. Eguneroko bizitza beste garai bateko misterio eta indar magikoarekin nahasten dira.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Kalabazak

Ez nekien hain sortzaile edo kreatiboa nintzela hamabost kiloko kalabaza nola kozinatu pentsatzen hasi nintzen arte. Momentu hartan jakin nuen zer den irudimentsua izatea. Hala ere, ez dakit irudimena dei dakioken Internetera sartu eta bertan errezetak bilatzeari.

Si la vida te da limones hazte una limonada dio esaldi motibatzaile horietako batek. Norbaitek kalabazak ematen badizkizu, ordea, egin dezakezun plateren zerrenda amaigabea da. Egin ditut bizkotxoak, pureak, risottoak eta pizzarako baseak; labean, egosita eta zartaginean; osorik eta zatituta. Ez dut ikasi gurdi bilakatzen oraindik, baina bizepsa entrenatu dut Satanas zirkularra zatitzen. Hatz laranjak ditudala ikusten baduzu, ez larritu, ez dut gaixotasunik: kalabaza da.

Egunero nire irudimena desafiitzen duen barazki amorfoak bi lezio irakatsi dizkit: alde batetik, imajinazioa edozein izkinatan sortu daitekeela; eta, bestetik, nik ez dudala hainbeste behar bizitzeko: ondokoari oparitzean datza soluzio simple eta eraginkorrena. Kalabazak, gauza guztiakin gertatzen den bezala, bere neurrian eta elkarbanatuta, hobeto.

BUKATZEKO

Kaleak musikaz pozteko, txaranga berria herrian

Txaranga bat osatu dute Antzuolako herritarrek. Momentuz, Antzuolako Txaranga modura izendatu dute euren burua, eta joan den eguaztenean egin zuten estreinako emanaldia. Harrera ezin hobea jaso zuten herrikideen partetik

Gontzal Belategi Zubia ANTZUOLA

Txaranga propioa izango du hemendik aurrera Antzuolako herriak. Oraindik izena pentsatzeke dute, eta, momentuz, Antzuolako Txaranga gisa izendatu dute euren burua. "Oraingo, ez dugu izenik; ea gazteei zerbait bururatzen zaien eta ipintzen diogun izenen bat. Ipiniko dugu zerbait", zioen barre artean Imanol Lizarralde txarangako tronpetajoleak.

Izenik ez izan arren, gogorik eta energiarik ez zaie falta txarangako kideei. Herenegun egin zuten lehen emanaldia, eta musikaz bete zituzten herriko kaleak. Jendeak pozez hartu zuen txaranga berria, eta, kaleetako hotzari kontrajarriz, giroa berotuz joan zen kantek eta doinuek aurrera egin ahala. "Oso ondo joan da, espero baino hobeto", zioen txarangaren atzetik ibili zen herritar batek. "Martxosoa izan da, oso polita, hamarrekoa", zioen beste jarraitzaile batek.

Txarangako kideak ere oso pozik gelditu ziren emaitzarekin. "Erantzuna oso ona izan da, lehen aldia izateko. Ikusi da aurrez egindako lana. Nabaritzen da hasiberriak garela, baina esango nuke ondo portatu gare-



Antzuolako Txarangako partaideak. TXOMIN MADINA

la", adierazi zuen Bittor Giralek, txarangako zuzendariak. Jendearen harrerarekin ere pozik zeuden txarangako kideak, eta ekain aldera beste emanaldi bat egiteko asmoa dutela adierazi zuten.

Dozena bat kide

Momentuz, dozena bat kide ditu txarangak, baina irekita daude kide gehiago hartzeko. Giralek azaldu ditu parte hartzaileek txaranga osatu ahal izateko jotzen dituzten instrumentuak: "Txaranga baten ezaugarri nagusiak perkusioa –kaxa, platoa eta bonboa–, tronboiak, tronpetak, saxofoiak eta tubak dira. Zoritxarrez, momentuz, ez dugu tubarik. Garrantzitsua da, baina, momentuz, dugunarekin estreinaldi bat egiteko nahikoa da".

Giral bera kenduta, gainontzeko partaideak antzuolarrak dira. Horrez gain, adinaren ikuspegitik, alde handia dago taldekideen artean. "Azkenean, Antzuolako musikariak biltzean denetik agertzen da: batzuk 40 urtetik gorakoak, beste batzuk 10 eta 20 urte artekoak, eta hortik beherako haurrak ere bai. Pixka bat denetik dago".

Azaroa ezker lanean

Azaroan jarri zuten martxan txarangaren proiektua, Bergarako Musika Eskolaren eta Antzuolako Udalaren artean izandako elkarrizketa batzuen bidez. Udalak herrian musika joko zuen taldetxo bat osatu nahi zuen, eta, azkenean, txaranga forma hatu zuen. Behin musikariak elkartuta, entseguak egiten hasi ziren, eta, elkarren artean ikasiz, eguazteneko emanaldia prestatu zuten.

ALOÑAKO IGOERA

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILTIK' SAIOAN
ASTELEHENEAN, APIRILAK 29, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

